

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA  
IPARRALDEA  
NAFARROA  
EUSKAL HERRIA

# IV. Inkesta Soziolinguistikoa

# 2006



# IV. Inkesta Soziolinguistikoa

# 2006

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

**Vitoria-Gasteiz, 2008**

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteca>>.

#### IV. Inkesta Soziolinguistikoaren Batzorde Eragilea

- PATXI BAZTARRIKA GALPARSORO, Hizkuntza Politikarako sailburuordea, Batzorde Eragilearen burua.
- ERRAMUN OSA IBARLOZA, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Koordinaziorako zuzendaria.
- JEAN CLAUDE IRIART, Euskararen Erakunde Publikoaren zuzendaria, Iparraldeko lanen jarraipenaren arduraduna.
- JON AIZPURUA ESPIN, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Plangintza eta Azterlanetako zerbitziburua, inkestaren arduradun teknikoa.

Argitaraldia:	1.a, 2008ko ekaina 2.a, 2008ko uztaila
Ale-kopurua:	3.000
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Internet:	<a href="http://www.euskadi.net">www.euskadi.net</a>
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastian, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz
Azala:	Antton Olariaga
Maketazioa:	Concetta Probanza
Inprimatzailea:	Gráficas Santamaría, S.A.
ISBN:	978-84-457-2775-1
Lege Gordailua:	VI-320/08

## AURKIBIDEA

<i>Euskara bidelagun duela aurrera doan herria.</i> Miren Azkarate Villar, Kultura sailburua	9
Hitzaurrea. Patxi Baztarrika Galparsoro, Hizkuntza Politikarako sailburuordea	11

### EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA (EAE)

1. EAEko biztanleriaren ezaugarri nagusiak	15
2. Hizkuntza-gaitasuna	17
2.1. Biztanleria hizkuntza-gaitasunaren arabera	17
2.2. Hizkuntza-gaitasuna, adinaren arabera	20
2.3. Taldeen ezaugarriak hizkuntza-gaitasunaren arabera	26
2.4. Hizkuntza-gaitasun erlatiboa	27
3. Hizkuntzaren transmisioa	30
3.1. Lehen hizkuntza, lurraldearen arabera	30
3.2. Lehen hizkuntza, adinaren arabera	32
3.3. Lehen hizkuntza, hizkuntza-gaitasunaren arabera	34
3.4. Familia bidezko transmisioa	34
3.5. Hizkuntza-bilakaera: euskararen irabaziak eta galerak	37
4. Euskararen erabilera	40
4.1. Euskararen erabileraren tipologia	40
4.2. Euskararen erabileraren tipologia, adinaren arabera	46
4.3. Euskararen erabilera elebidunen artean	50
4.4. Euskararen erabileran eragiten duten faktoreak	54

5. Euskararen erabilera eremuka	56
5.1. Euskararen erabilera etxean	57
5.2. Euskararen erabilera gertuko komunitatean	60
5.3. Euskararen erabilera eremu formalean	62
6. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrerak	64
7. Ondorioak	69

## IPARRALDEA

*IV. Inkesta Soziolinguistikoaren emaitzak Iparraldean: egoera larri bat baina itzaropenerako keinu batzuk.*

Max Brisson, Euskararen Erakunde Publikoko lehendakaria 73

1. Hizkuntza-gaitasuna	77
1.1. Biztanleria hizkuntza-gaitasunaren arabera	77
1.2. Hizkuntza-gaitasuna, adinaren arabera	80
1.3. Taldeen ezaugarriak hizkuntza-gaitasunaren arabera	90
1.4. Hizkuntza-gaitasun erlatiboa	91
2. Hizkuntzaren transmisioa	94
2.1. Lehen hizkuntza, eskualdearen arabera	94
2.2. Lehen hizkuntza, adinaren arabera	96
2.3. Familia bidezko transmisioa	99
2.4. Hizkuntza-bilakaera: euskararen irabaziak eta galerak	101
3. Euskararen erabilera	106
3.1. Euskararen erabileraren tipologia	106
3.2. Euskararen erabileraren tipologia, adinaren arabera	111
3.3. Euskararen erabilera elebidunen artean	114
3.4. Euskararen erabileran eragiten duten faktoreak	118
4. Euskararen erabilera eremuka	121
4.1. Euskararen erabilera etxean	121
4.2. Euskararen erabilera gertuko komunitatean	123
4.3. Euskararen erabilera eremu formalean	125

5. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrerak	126
6. Ondorioak	132

## NAFARROA

1. Nafarroako biztanleriaren ezaugarri nagusiak	137
2. Hizkuntza-gaitasuna	139
2.1. Biztanleria hizkuntza-gaitasunaren arabera	139
2.2. Hizkuntza-gaitasuna, adinaren arabera	142
2.3. Taldeen ezaugarriak hizkuntza-gaitasunaren arabera	148
2.4. Hizkuntza-gaitasun erlatiboa	149
3. Hizkuntzaren transmisioa	152
3.1. Lehen hizkuntza, eremuaren arabera	152
3.2. Lehen hizkuntza, adinaren arabera	154
3.3. Lehen hizkuntza, hizkuntza-gaitasunaren arabera	157
3.4. Familia bidezko transmisioa	158
3.5. Hizkuntza-bilakaera: euskararen irabaziak eta galerak	160
4. Euskararen erabilera	164
4.1. Euskararen erabileraren tipologia	164
4.2. Euskararen erabileraren tipologia, adinaren arabera	170
4.3. Euskararen erabilera elebidunen artean	172
4.4. Euskararen erabileran eragiten duten faktoreak	176
5. Euskararen erabilera eremuka	180
5.1. Euskararen erabilera etxean	180
5.2. Euskararen erabilera gertuko komunitatean	184
5.3. Euskararen erabilera eremu formalean	186
6. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrerak	188
7. Ondorioak	193

**EUSKAL HERRIA**

1. Euskal Herriko biztanleriaren ezaugarri nagusiak	199
2. Hizkuntza-gaitasuna	201
2.1. Biztanleria hizkuntza-gaitasunaren arabera	201
2.2. Hizkuntza-gaitasuna, adinaren arabera	203
2.3. Hizkuntza-gaitasun erlatiboa	205
3. Hizkuntzaren transmisioa	207
3.1. Lehen hizkuntza, lurraldearen arabera	207
3.2. Lehen hizkuntza, adinaren arabera	208
3.3. Lehen hizkuntza, hizkuntza-gaitasunaren arabera	210
3.4. Familia bidezko transmisioa	211
3.5. Hizkuntza-bilakaera: euskararen irabaziak eta galerak	212
4. Euskararen erabilera	215
4.1. Euskararen erabileraren tipologia	215
4.2. Euskararen erabileraren tipologia, adinaren arabera	220
5. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrerak	221
6. Ondorioak	225

**Fitxa teknikoa**

Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)	229
Iparraldea	229
Nafarroa	230
Euskal Herria	230

Miren AZKARATE  
Eusko Jaurlaritzako  
Kultura sailburua



## EUSKARA BIDELAGUN DUELA AURRERA DOAN HERRIA

**G**auzak zihoazen bidetik zihoazela, euskara XX. mendera iritsiko ez zela zioenik bazegoen Euskal Herrian, XIX. mendean. XX. mendean, oster, beste hainbatek antzeko iragarpenik ere egin zuen XXI. menderako. Alabaina, kontuak kontu, iragarpen apokaliptikoak gorabehera, agerikoa da euskarak, euskaraz ari den hiztun-elkarteak hobeki esan, azken hamarkadetan irauteko ez ezik, indarberritzeko ere garrantzi handiko urratsak egin dituela.

Euskaraz dakien eta hura baliatzen duen herritarren kopurua hazi egin da azken hamarkadotan. Euskaraz jarduteko erabilera-eremuak ugartu egin zaizkigu euskaraz jardun nahi dugunoi, eta euskaraz aritzeko gai den hiztun-elkartea ere, sasoi batekoarekin alderatuta, are gazteagoa da. Horiek horrela, ezin lotu dakizkioke uztarri berari euskarak azkenaldian izan duen indarberritzea eta hil kanpaien diskurtsoa, eta are gutxiago du diskurtso horrek errealitatea islatzen.

Baieztape honek, ordea, ez du ezkutatu nahi egoera berriak ez ezik erronka berriak ere baditugula eskuartean. Izan ere, euskal gizartea etengabe aldatuz doa, euskaraz gutxi-asko moldatzen direnen ezaugarriak eta beharrak egokituz eta eguneratuz doazen era berean. Garrantzi handiko kontua da, beraz, arian-arian gertatzen ari den aldaketa honi begiratzea eta erantzuten saiatzea, euskara eta harekin batera doan hiztun-elkartea etorkizunean indartzen jarraitu nahi badugu.

Euskararen bilakaera eta bizi-indarra ez dira berberak euskararen lurralde guztietan, eta horrek agerian uzten du, besteak beste, ezinbestekoa dela hiru baldintza biltzea euskararen indarberritzea bizkortzeko: batetik, euskara aintzat hartzen duen lege marko egokia; bestetik, hizkuntzaren indarberritzea xede duen hizkuntza politika eragingarria; eta azkenik, herritarren atxikimendua, halakorik izan ezean alferrekoak bairateke gainerako guzti-guztiak. Hiru baldintza horiei laugarren bat ere gehi dakioko: euskararen lur-eremuan ari diren instituzio guztien arteko elkarlana, hain zuzen ere,




borondate kontu soila baita hizkuntza kontuetan lankidetza mamitzea, beti ere erakunde bakoitzaren eskuduntzak eta erabaki-eremuak errespetatuz eta abiaburutzat hartuz. Ez baitago, azken batean, hizkuntzaren inguruko ekimenetan elkarrekin aritu ezinik. Denok dugu zeregin horretan irabazteko modua, norik beretik ezer galdu gabe, ezeri muzin egin gabe, deus atzendu gabe, eta, bidenabar, denon artean herritarren bizikidetzari ekarpen erabakigarria eginez.

Europako Kontseiluak aspaldi aholkatu zigun lankidetza gutxiagotutako hizkuntzak indarberritze kontuetan, bai mugaz gaindi bai Estatu batean hizkuntza komuna dugun erkidegoen artean ere. Eta lankidetzan jardutea da nire eta Eusko Jaurlaritzaren borondatea, orain arte bezala etorkizunean ere. Eusko Jaurlaritzaren eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoaren arteko lankidetzaren emaitza dugu, hain zuzen ere, IV. Inkesta Soziolinguistikoa hau. Aurrera begira, euskararen lurraldeetan ari diren administrazio bakoitzaren egitekoak eta erabaki-eremuak errespetatuz, hurrengo inkesta prestatzean Nafarroako instituzioen ahalegina ekimen honetara biltzea desiragarria litzateke.

2006an eginiko IV. Inkesta Soziolinguistikoa emaitzak dira lau hizkuntzatan (euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez) argitara eman ditugunak. Euskararen egoeraren argazkia ez ezik, une jakin bateko gizartearena ere eskaini digu IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Argazki hori ez da, ordea, une jakin bati dagokiona bakarrik, hamabost bat urteotako bilakaeran gizartearen eboluzioa behatzeko talaia paregabea baizik.

Indarguneak, ahuleziak, erronkak eta beharizan berriak. Horiei guztiei buruz gogoeta egiteko abagune paregabea eskaintzen digu eskuartean dugun azterketak. Egin dugunaz, egun dugun egoeraz eta etorkizun hurbilean euskara indarberritzen jarraitze-ko hartu beharreko norabideaz hausnartzeko aukera paregabea.

Donostian, 2008ko ekainaren 18an



Patxi BAZTARRIKA  
Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza  
Politikarako sailburuordea eta  
IV. Inkesta Soziolinguistikoa burutu  
duen batzordeko presidentea




## HITZAURREA

**G**utxiengo batek hitz egiten duen hizkuntza bat indarberritzea ez da egun batetik bestera lor litekeen kontua. Horretarako, denbora behar da, belaunaldiak, pazientzia, bidera atera litezkeen zailtasunak gainditzeko kemena, hiztunen beharizan zahar eta berriei arian-arian erantzuteko iaioetasuna, herritarren atxikimendua, herritarren gogo hori asebetetzeko instituzio publikoen konpromisoa, askotariko bitartekoak, eta abar. Eta horiez guztiez gain, euskal gizartearen aitzinamenduari buruzko informazio zehatza ere behar-beharrezkoa da.

Azterketa soziolinguistikoak garrantzi handiko lanabesak dira informazio hori jasotzeko. Izan ere, helduleku egokiak eskaintzen dizkigute azterketok, gizartearen bilakaera, indarberritu nahi den hizkuntzarekiko gizarte-joerak, indarguneak eta ahuleziak agerian utzi eta egoera eraldatzeko xedez taiaturiko hizkuntza politika eragin-garria zehazterakoan.

Horregatik, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2005-2009 aldirako zedarritutako lan-lerroen arteko hogeita hamabigarrenak “Bilakaera soziolinguistikoaren berri izateko ikerlanak bultzatzea” jaso zuen, horien artean “Euskal Herriko IV. inkesta soziolinguistikoa” burutzeko eta argitaratzeko konpromisoa espresuki aipatuz.

Euskararen bilakaerari buruzko oinarrizko datuak eskaintzen dizkiguten tresna nagusietan, zentsua eta errolda binomioa litzateke lehena. Bi informazio iturburu horien gurutzaketa tarteko, hizkuntzei buruzko hainbat datu bildu ahal ditugulako bost urterik behin (herritarren hizkuntzaren ezagutzari –1981 urtean jasotako informazioa–, lehen-hizkuntzari –1986– eta etxeko erabilerari buruzko informazioa –1991–), Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria osoa kontuan hartuta. Nafarroako Foru Erkidegoan, aldiz, herritarren hizkuntzaren ezagutzari buruzko datuak bildu ohi dira soilik. Iparraldean, oster, ez da hizkuntzei buruzko galderarik egiten zentsuan.



EAE n zein Nafarroan egiten diren zentsuek zein erroldak biztanleria guztia hartzen dute aintzat, ez dute, alabaina, informazio bera biltzen, eta Iparraldeari dagokionez, ez dugu –arestian aitortu dugunez– zentsuaren bidezko informaziorik. Horiek horrela, 1991. urtean burutu zen, euskararen lurraldean euskarak bizi duen errealitateari buruzko informazio komuna jaso ahal izateko asmoz, lehenbiziko inkesta soziolinguistikoa.

Inkestak bi helburu izan ditu hastapenetik: batetik, Euskal Herrian euskararen egoerari buruzko azterketa zorrotza burutzea bost urterik behin, horrela zentsu eta errolden maiztasunarekin bat eginik erkatzeko aukera eskaintzen baita; bestetik, hori egitea euskararen lurralde guztietako informazioa bilduz, ahal den neurrian, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Nafarroako Foru Erkidegoaren eta Iparraldeko instituzio publikoen arteko lankidetzaren bidez.


Inkestak hamasei urtetik gorako euskal lurraldeetako biztanleak hartzen ditu aintzakotzat (2.500.000 pertsona gutxi gorabehera). Beraz, ez ditu kontuan hartzen, besteak beste, eskolaren eraginez euskaldunenak diren adin-tarterik gazteenak. Sexuaren eta adinaren arabera estratifikatu ohi da azterketa, eta, guztira, 7.200 inkesta egin dira. Informazioa jasotzeko, galdetegi egituratu eta itxi bat erabili da. Oraingo honetan aldatu da, hala ere, informazioa jasotzeko sistema, telefono bidezko elkarrizketa baten bitartez jaso baita inkestari erantzun dion bakoitzak aitorturikoa.

1991n burututako I. Inkesta Soziolinguistikokoaren emaitza 1995. urtean argitaratu zen *Euskararen Jarraipena* izenburupean; 1996an burutu zen II. Inkesta Soziolinguistikoa, aldiz, 1999an argitaratu zen; 2001ean egin zen III. Inkesta Soziolinguistikoa, berriz, 2003an argitaratu zen; eta 2008an jartzen dugu zure eskuetan 2006ko abenduan jasotako datuetan oinarriturik burututako IV. Inkesta Soziolinguistikoa.




IV. Inkesta Soziolinguistikoa hainbat ikerketa-eremu jasotzen ditu, eta, haiek nolabait laburbiltzearen, lau izan litezke azpimarratzeko modukoak: batetik, herritarren hizkuntza-gaitasuna edo hizkuntzaren ezagutza; bestetik, hizkuntzaren transmisioa; hirugarrenik, euskararen erabilera hainbat esparrutan (etxean, lagunartean, lanean, eremu formalean, eta abar); azkenik, euskararekiko jarrera.


Hamabost urteko (1991-2006) euskararen bilakaerari buruzko eta euskal lurralde guztietako informazio komuna laburbiltzen duen seriea argitaratu dugu, honenbestez. Aski informazio baliotsua, euskararen indarberritzeak izan dituen eta dituen gorabeheraz gogoeta egiteko. Etorkizun hurbilean euskararen indarberritzeak jarraipena izan dezan hartu beharko litzatekeen noranzkoaz instituzioek ez ezik euskal herritarrek ere gogoeta egin dezaten baliagarria, nire ustez.

Donostian, 2008ko ekainaren 18an



**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA**  
IV. Inkesta Soziolinguistikoa





## 1. EAEko biztanleriaren ezaugarri nagusiak

Biztanleriari buruzko 2006ko datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAEn) 2.133.684 pertsona bizi dira guztira. Horietatik, 279.600 lagunek (%13,1ek) 16 urte baino gutxiago dituzte, beraz inkesta soziolinguistikoak aztertzen duen unibertsoetik kanpo daude.

Baina, kontuan hartu behar da gaur egun gazte horien artean daudela elebidunen ehunekorik handienak (16 urtetik beherako gazteen bi heren baino gehiago elebidunak dira), eta unibertso osoarekiko duten pisua txikia bada ere, eragina dutela EAEko emaitzetan (gaur egun EAEko biztanleria osoaren herena baino gehiago da elebiduna).


Azken 15 urteotako bilakaera aztertuz gero, EAEko biztanleriak bi ezaugarri argi ditu:

- zahartze-prozesua, eta
- etorkinen eragina

EAEko biztanleria gero eta zaharragoa da. Bizitza-esperantza oso handia da eta, aldi berean, jaiotze-tasak behera egin du nabarmen. 1991 eta 2006 bitartean, 65 urtetik gorako biztanleriak ia %50 egin du gora. 2006an, 65 urtetik gorako 126.661 pertsona gehiago daude 1991n baino. 30 urtetik beherakoen artean, aldiz, jaitsiera handia izan da. 15 eta 24 urte bitarteko gazteen artean, esaterako, 145.144 lagun gutxiago daude (-%40,5).

Biztanleriaren jatorriari dagokionez, azken 15 urteotan atzerritik etorritako inmigra-  
granteen hazkundera oso handia izan da. EAEko atzerritarrak 25.782 ziren 1991n eta 108.782 dira 2006an, hau da, EAEko biztanleen %2 izatetik %5 izatera iritsi dira.


**Euskal gizartea gero eta zaharragoa da, eta inmigra-  
granteen hazkundera handia izan da azken urteotan**



**1. irudia.** Biztanleriaren piramidea sexuaren, adinaren eta jaioterriaren arabera.  
EAE, 1991



**2. irudia.** Biztanleriaren piramidea sexuaren, adinaren eta jaioterriaren arabera.  
EAE, 2006



## 2. Hizkuntza-gaitasuna

### 2.1. BIZTANLERIA HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERA

2006ko datuen arabera, 16 urte edo gehiagoko 1.850.500 pertsona bizi dira EAEn. Horietatik %30,1 (557.600 lagun) elebidunak dira, hau da, ondo hitz egiten dute euskaraz eta gaztelaniaz. Badira, halaber, beste 339.600 pertsona (%18,3) euskaraz ondo mintzatzen ez badira ere, ondo ulertzeko gai direnak. Horiek elebidun hartzaileak dira. Gainerako guztiak (953.300 pertsona, %51,5) erdaldun elebakarrak dira, hau da, ez dakite euskaraz hitz egiten.


**Euskal Autonomia Erkidegoko (EAEko) 16 urte edo gehiagoko biztanleen %30,1 elebiduna da, %18,3 elebidun hartzailea eta %51,5 erdaldun elebakarra**

**1. taula.** 16 urte edo gehiagoko biztanleria lurraldearen eta adinaren arabera. EAE, 2006


Adin-taldeak	16 urte edo gehiagoko biztanleria			
	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
≥ 65	<b>393.200</b>	49.800	217.400	126.000
50-64	<b>402.400</b>	56.800	213.500	132.100
35-49	<b>512.000</b>	73.500	275.100	163.400
25-34	<b>348.600</b>	51.800	184.900	111.900
16-24	<b>194.300</b>	29.100	104.000	61.200
<b>Guztira</b>	<b>1.850.500</b>	<b>261.000</b>	<b>994.900</b>	<b>594.600</b>

*Iturria:* IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.






**3. irudia. Hizkuntza-gaitasuna. EAE, 2006 (%)**



Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

Datuak lurraldearen arabera aztertuz gero, Gipuzkoa da erebidunen ehunekorik eta kopururik handiena duena (%49,1 eta 291.900 pertsona, hurrenez hurren). Bizkaiko erebidunak %23,0 dira, hau da 228.500 pertsona. Arabak du EAEko erebidunen ehunekorik eta kopururik txikiena (%14,2 eta 37.200 hurrenez hurren).

**4. irudia. Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera. EAE, 2006 (%)**



Oharra: zirkuluen tamaina lurralde bakoitzeko biztanleriaren arabera da.

Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

Atzera begiraturaz gero, 1991n baino 138.400 elebidun gehiago daude 2006an. Izan ere, 1991n EAEko elebidunak %24,1 ziren, 1996an %27,7, 2001ean %29,4 eta, esan bezala, 2006an %30,1. Azpimarratzekoa da, halaber, 16 urtetik gorako biztanleriak eten gabe gora egin arren, erdaldun elebakarrak duela 15 urte baino 119.300 gutxiago izatea (%59,2 ziren 1991n eta %51,5 dira 2006an). Aldi berean, euskaraz ondo hitz egin ez arren, ondo ulertzeko gaitasuna dutenek, hau da, elebidun hartzaileek gora egin dute: biztanleen %8,5 izatetik %18,3 izatera iritsi dira azken hamabost urteotan.

Elebidunen igoera EAEko hiru lurraldeetan gertatu da. Araban, esaterako, 1991n baino 21.600 elebidun gehiago daude gaur egun, Bizkaian 70.000 elebidun gehiago eta Gipuzkoan 46.500 elebidun gehiago.

**2. taula.** Elebidunen bilakaera. EAE, 1991-2006 (%)

	16 urte edo gehiagoko biztanleriaren elebidunen ehunekoa			
	1991	1996	2001	2006
Araba	7,0	11,4	13,4	14,2
Bizkaia	16,5	20,9	22,4	23,0
Gipuzkoa	43,7	46,0	48,0	49,1
<b>EAE</b>	<b>24,1</b>	<b>27,7</b>	<b>29,4</b>	<b>30,1</b>

**Iturria:** IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritzak, 2006.

## 2.2. HIZKUNTZA-GAITASUNA, ADINAREN ARABERA

**Elebidunen ehunekorik handiena 35 urtetik beherako gazteen artean dago. Multzo hori izan da, hain zuzen ere, azken urteotan bilakaerarik handiena izan duena**

Elebidunen hazkundera 50 urtetik beherako adin-talde guztietan gertatu da. Hazkunde hori ez da berria. Izan ere, halaxe gertatu izan da azken 15 urteotan. Baina oso nabarmena izan da gazteen artean. Gaur egun, 16 eta 24 urtekoen artean elebidunak %57,5 dira eta 25 eta 34 urtekoen artean %37,3.

Elebidunen ehunekorik txikienak, aldiz, 35 urtetik gorako artean daude, elebidunen ehunekoa EAEko batez bestekoaren azpitik dago, bereziki 50 eta 64 urteko helduen artean (%21,3).


Azken 15 urteetako bilakaerari begiratu gero, elebidunen hazkundera gazteenetatik ari da zabaltzen. Multzorik erdaldunena helduena da, baina urteak aurrera egin ahala, multzo hori elebidunak irabazten ari da azpitik eta erdaldun elebakarrak galtzen goitik, zaharren kaltean. Hau da, gazteak gero eta euskaldunagoak diren bitartean, zaharrenean multzoan (duela 15 urtera arte elebidunen ehunekorik handiena zuenean) erdaldun elebakarren ehunekoa hazi egin da.

Elebidun hartzaileen ehunekoa adin-talde guztietan hazi da. Halere, lehenengo aldia da ehuneko hori 16 eta 24 urte bitarteko artean, hau da, gazteen artean (%24,9) 25 eta 34 urte bitarteko artean (%26,0) baino txikiagoa dena. Hau da, gazteen artean, elebidunen hazkundera erdaldun elebakarren beherakada ez ezik elebidun hartzaileena ere eragiten ari da. Beste hitzetan esanda, 16 eta 24 urtekoen artean elebidun hartzaileetan dagoen galera elebidunen mesedetan gertatzen ari da.

50 urtetik gorako biztanleen artean hirutik bi erdaldun elebakarrak dira. 50 urte baino gutxiago dituzten artean, aldiz, beherakada izaten ari da: erdia (%52,3) 35-49 urtekoen artean, herena baino zertxobait handiagoa (%36,7) 25 eta 34 urtekoen artean eta ia bostena (%17,6) 16-24 urtekoen artean.

**5. irudia.** Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. EAE, 2006 (%)

Adin-taldeak



Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jurlaritz, 2006.

Aipatutako joera horiek hiru lurraldeetan antzeman daitezke argi eta garbi, nahiz eta bateko eta besteko ehunekoak oso bestelakoak izan.

**3. taula.** Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. EAE, 2006 (%)

Adin-taldeak	16 urte edo gehiagoko biztanleria		
	Elebidunak	Elebidun hartzaileak	Erdaldun elebakarrak
≥ 65	25,0	9,0	66,0
50-64	21,3	13,2	65,6
35-49	25,7	22,0	52,3
25-34	37,3	26,0	36,7
16-24	57,5	24,9	17,6
<b>Guztira</b>	<b>30,1</b>	<b>18,3</b>	<b>51,5</b>

Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jurlaritz, 2006.

## ARABA

Elebidunak %5 inguru dira 50 urtetik gorako arabarren artean. 50 urtetik behera, aldiz, ehuneko bikoiztu egiten da adin-talde batetik hurrengora: 35 eta 49 urtekoen artean %11,3, 25 eta 34 urtekoen artean %21,5 eta 16 eta 24 urtekoen artean %42,5. Gazte elebidunen arteko ehunekoaren jautzia erabatekoa izan da azken hamabost urteotan. Izan ere, 1991an 25 eta 34 urtekoen artean elebidunak %5,1 baino ez ziren eta 16 eta 24 urte bitarteko gazteen artean %8,9.

Elebidun hartzaileen ehunekorik txikiena zaharreneen artean dago (%4,4) eta handiena 25 eta 34 urteko gazteen artean (%33,8). 16 eta 24 urtekoen artean elebidun hartzaileen ehunekoa %27,9koa da eta elebidunenaren azpitik dago.

Elebidunen eta elebidun hartzaileen igoerak erdaldun elebakarren jaitsiera dakar ezinbestean. 65 urtetik gorako hamarretik bederatzik (%90,7) ez dakite euskaraz hitz egiten. Adin horretatik behera, eta batez ere 35 urtetik behera, erdaldun elebakarren jaitsiera oso handia izan da (16 eta 24 urteko gazteen artean %29,5 dira).

Hortaz, 1996an antzeman ziren aldaketa-zantzuak errealitate bihurtu dira hamar urte beranduago. Gazteenen euskalduntzea agerikoa da eta erdaldun elebakarren jaitsiera orokorra. Gazteenen artean (16-24 urte), gainera, elebidunak erdaldun elebakarrak baino gehiago dira dagoeneko.

**4. taula.** Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. Araba, 2006 (%)

Adin-taldeak	16 urte edo gehiagoko biztanleria		
	Elebidunak	Elebidun hartzaileak	Erdaldun elebakarrak
≥ 65	4,9	4,4	90,7
50-64	5,2	15,0	79,8
35-49	11,3	21,5	67,2
25-34	21,5	33,8	44,7
16-24	42,5	27,9	29,5
<b>Guztira</b>	<b>14,2</b>	<b>20,0</b>	<b>65,8</b>

**Iturria:** IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

## BIZKAIA

16 eta 24 urte bitarteko bizkaitarren erdia (%49,2) elebiduna da. 25 eta 34 urtekoen artean elebidunak %29,4 dira eta 35 urtetik gorakoen artean %17 inguru. Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan bezala –ondoren ikusiko dugunaren arabera–, elebidunen hazkundea bereziki handia izan da gazteen artean: 1991an 16 eta 24 urte bitarteko gazte elebidunak %17,9 ziren eta 25 eta 34 urte bitartekoak %14,5. 50 urtetik gorako elebidunen ehunekoak behera egiten jarraitzen du. Erdaldun elebakarren multzorik handiena helduen artean dago, eta horiek adinean aurrera doazen neurrian handitu egiten dute erdaldun elebakarren ehunekoa zaharren artean.

Elebidun hartzaileen ehunekoak gora egiten du adina jaitsi ahala. Hortaz, elebidun hartzaileen proportziorik handiena (%31,1) 16 eta 24 urtekoen artean dago eta txikiena (%9,9) 65 urtetik gorakoen artean.

Erdaldun elebakarrak nagusi izaten jarraitzen dute 25 urtetik gorako adin-talde guztietan: %70etik gora 50 urte baino gehiago dituztenen artean, erdia baino gehiago (%57,4) 35 eta 49 urte bitartekoaren artean, eta erdia baino zertxobait gutxiago (%45,0) 25 eta 34 urteko gazteen artean. Gazteenen artean, aldiz, bostetik bat (%19,7) da erdaldun elebakarra.

5. taula. Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. Bizkaia, 2006 (%)

Adin-taldeak	16 urte edo gehiagoko biztanleria		
	Elebidunak	Elebidun hartzaileak	Erdaldun elebakarrak
≥ 65	18,0	9,9	72,0
50-64	14,6	12,6	72,8
35-49	19,1	23,5	57,4
25-34	29,4	25,7	45,0
16-24	49,2	31,1	19,7
<b>Guztira</b>	<b>23,0</b>	<b>19,4</b>	<b>57,7</b>

Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritzak, 2006.

## GIPUZKOA

Elebidunak nagusi dira 50 urte baino gutxiago duten gipuzkoarren artean. EAEn oro har eta gainerako lurraldeetan gertatzen den bezala, zenbat eta gazteago orduan eta handiagoa da elebidunen proportzioa. Izan ere, 35 eta 49 urtekoen artean elebidunak %43,3 badira, 16 eta 24 urtekoen artean %78,7 izatera iritsi dira. Elebidunen ehunekorik txikiena 50 eta 64 urteko gipuzkoarren artean dago (%39,0).

Elebidun hartzaileen ehunekoa EAeko batez bestekoa baino zertxobait txikiagoa da 35 urtetik beherakoen artean eta oso antzekoa gainerako adin-taldeetan.


Erdaldun elebakarren ehunekorik handienak 50 urtetik gorakoen artean daude (adin horretako gipuzkoarren erdia baino zertxobait gutxiago). 50 urtetik behera, aldiz, erdaldun elebakarren ehunekoak behera egiten du elebidunenak gora egiten duen ia neurri berean: herena pasatxo (%37,2) 35 eta 49 urtekoen artean, bostena (%19,4) 25 eta 34 urtekoen artean eta hamarrena baino gutxiago (%8,3) 16 eta 24 urteko gazteen artean.

**6. taula.** Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. Gipuzkoa, 2006 (%)

Adin-taldeak	16 urte edo gehiagoko biztanleria		
	Elebidunak	Elebidun hartzaileak	Erdaldun elebakarrak
≥ 65	45,2	9,1	45,8
50-64	39,0	13,4	47,7
35-49	43,3	19,6	37,2
25-34	57,8	22,8	19,4
16-24	78,7	13,0	8,3
<b>Guztira</b>	<b>49,1</b>	<b>15,9</b>	<b>35,0</b>

**Iturria:** IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritz, 2006.

6. irudia. Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera, lurraldeka. EAE, 2006 (%)



Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.



### 2.3. TALDEEN EZAUGARRIAK HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERA

Hizkuntza-gaitasunaren tipologia osatzen duten hiru taldeetako bakoitzaren (elebidunen, elebidun hartzaileen eta erdaldun elebakarren) ezaugarriak ikusiko ditugu jarraian.

Elebidunen ezaugarriak honakoak dira:

- EAEn jaio dira eta gurasoak bertakoak dituzte.
- Erdiak baino gehiagok euskara du lehen hizkuntza eta herenak baino gehiagok D ereduan egin ditu oinarrizko eta bigarren mailako ikasketak. Bostenak, gainera, eskolatik kanpo ikasi edo hobetu du euskara.
- Elebidunen erdiak baino gehiagok gurasoak, biak, elebidunak ditu. Halere, bada talde handi bat (laurdena baino gehiago) guraso erdaldunak dituena.
- Euskararekiko interes handia dute eta euskara sustatzearen alde daude.

Elebidun hartzaileen ezaugarriak, aldiz, beste hauek dira:

- Gehienek gaztelania dute lehen hizkuntza eta gaztelaniaz egin dituzte oinarrizko eta bigarren mailako ikasketak.
- Familia, lagunartea eta lan-giroa erdaldunak dituzte.
- Gune erdaldunetan bizi dira.
- Erdia euskara sustatzearen alde dago eta, oro har, ez dute euskararekiko interes berezirik.

Azkenik, erdaldun elebakarrak honelakoak dira:

- Herena baino gehiago EAetik kanpo jaiotakoa da.
- Ia denek gaztelania dute lehen hizkuntza edo euskara ez den besteren bat.
- Gune erdaldunetan bizi dira.
- Hamarretik bat euskara ikasten ahalegindu da eskolatik kanpo.
- Euskararekiko interes txikia dute, baina hamarretik lau euskara sustatzearen alde daude.
- Erdiak baino gehiagok 50 urte baino gehiago ditu.

## 2.4.HIZKUNTZA-GAITASUN ERLATIBOA



Elebidunak hiru multzotan banatu ditzakegu, euskaraz edo gaztelaniaz hitz egiteko daukaten erraztasun handiagoaren edo txikiagoaren arabera.

**Euskal elebidunak** euskaraz gaztelaniaz baino errazago moldatzen direnak dira. Elebidunen %31,8 dira eta EAEko 16 urtetik gorako biztanleen %9,6. Euskal elebidunen proportziorik handiena 65 urtetik gorakoen artean dago (%54,7), eta adinak behera egin ahala, behera egiten du proportzio horrek. Izan ere, 25 urtetik beherako gazte elebidunen artean euskaraz hobeto moldatzen direnak %21,6 dira. Halere, ehuneko horrek apurka-apurka gora egin du azken hamabost urteotan. Ia guztiek euskara izan dute lehen hizkuntza (%91k euskara bakarrik eta %8k euskara eta gaztelania). Gune euskaldunetan bizi dira: erdia baino gehiago hirugarrenean (euskaldunak %50-%80) eta ia herena laugarrenean (euskaldunak >%80). Lurraldeari dagokionez, erdia Gipuzkoan bizi da.

**Elebidun orekatuak**, aldiz, berdin moldatzen dira euskaraz eta gaztelaniaz. Elebidunen %28,5 dira eta EAEko 16 urtetik gorako biztanleen %8,6. Elebidun orekatuen proportziorik handiena 25 eta 50 urte bitarteko artean dago (hiru lagunetik bat). Erdia baino gehiago (%57) Gipuzkoan bizi dira eta herena pasatxo (%36) Bizkaian. Gehienek (%61ek) lehen hizkuntza euskara izan badute ere, lautik batek (%24k) lehen hizkuntza gaztelania izan dute eta %15ek euskara eta gaztelania.


**Erdal elebidunak** hobeto moldatzen dira gaztelaniaz euskaraz baino. Elebidunen multzorik handiena (%39,7) eta EAEko biztanleen %12 dira. Erdal elebidunen proportzioa handiagoa da adinak behera egin ahala. Horrela, 16 eta 24 urte bitarteko gazte elebidunen erdia baino gehiagok (%55,7k) errazago hitz egiten du gaztelaniaz euskaraz baino. Erdal elebidunen erdia (%49) Bizkaian bizi da eta %40 Gipuzkoan. Lehen hizkuntzari dagokionez, gehienek (%63k) gaztelania izan dute lehen hizkuntza, laurdenak (%25ek) euskara eta %12k euskara eta gaztelania.

**Elebidunen ia herena hobeto moldatzen da euskaraz gaztelaniaz baino. Proportzio hori, baina, txikiagoa da gazteen artean (bostena)**



**7. irudia. Elebitasun-mota (elebidunak). EAE, 2006 (%)**


**Iturria:** IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

Emaitzak lurraldeka aztertuz gero, esan daiteke tendentziak oro har EAEkoen antzekoak direla hiru lurraldeetan. Halere, badira zenbait berezitasun. Gipuzkoan, adibidez, gehiago dira euskal elebidunak (%38,5) elebidun orekatuak (%31) edo erdal elebidunak (%30,5) baino. Gazteenen artean, gainera, erdal elebidunen multzo handiena izaten jarraitzen duen arren, euskal elebidun gipuzkoarren proportzioa EAEkoena baino hamar puntu handiagoa da. Araban, elebidun orekatuak %29,5 dira, hau da, Bizkaian (%25,1) baino gehiago eta ia Gipuzkoan beste (%31). Bestalde, 35 urtetik beherako arabar elebidunen artean, lautik hiru erdal elebidunak dira eta %1 euskal elebiduna. EAEko ezaugarrietara gehien hurbiltzen direnak Bizkaiko elebidunak dira. Dena den, esan behar da euskal elebidunen eta orekatuen ehunekoak oro har EAEkoak baino zertxobait txikiagoak direla eta, horren ondorioz, erdal elebidunenak zertxobait handiagoak.



**8. irudia.** Elebitasun-mota lurraldeka (*elebidunak*). EAE, 2006 (%)



Oharra: zirkuluen tamaina lurralde bakoitzeko elebidunen kopuruaren arabera da.

**Iturria:** IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaur-laritz, 2006.

**7. taula.** Elebitasun-mota lurraldearen arabera (*elebidunak*). EAE, 2006 (%)

Elebitasun-mota	16 urte edo gehiagoko biztanleria			
	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Euskal elebidunak	31,8	4,7	27,5	38,5
Elebidun orekatuak	28,5	29,5	25,1	31,0
Erdal elebidunak	39,7	65,9	47,3	30,5

**Iturria:** IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaur-laritz, 2006.

### 3. Hizkuntzaren transmisioa


#### 3.1. LEHEN HIZKUNTZA LURRALDEAREN ARABERA

Lehen hizkuntza gaztelania dutenak nagusi dira EAEko lurralde eta adin-talde guztietan. Baina 16 eta 24 urtekoen artean gero eta gehiago dira lehen hizkuntza euskara dutenak, batez ere gaztelaniarekin batera

Lehen hizkuntzari buruz ari garenean, umeak 3 urte bete arte gurasoengandik edo umearekin bizi diren senitartekoengandik jasotako hizkuntzari edo hizkuntzei buruz dihardugu. Halere, 3 urte baino gutxiago duten umeen eskolatzetasak kontuan hartuta, argi dago gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dela eskola hizkuntzaren transmisioan ere. Nolanahi ere, kontuan hartu behar da inkesta soziolinguistikoaren unibertsoa 16 urtetik gorakoek osatzen dutela, eta horiek 3 urte edo gutxiago zutenean aurre-eskolan zegoen ume-kopurua oraingoa baino askoz txikiagoa zela. Hortaz, fenomeno berri horrek ez du hauengan eraginik izan.

EAEko lau biztanletik hiruk (%76,2k) gaztelania dute lehen hizkuntza. Euskara dutenak %18,7 dira eta biak dituztenak %5,1.

9. irudia. Lehen hizkuntza. EAE, 2006 (%)




Lehen hizkuntza gaztelania dutenak hiru lurraldeetan nagusi badira ere, aldea dago lurralde batean eta bestean jasotako ehunekoetan. Arabako biztanle gehien-go zabal batek (%93,6k) gaztelania du lehen hizkuntza. Euskara dutenak %3,6 dira eta euskara eta gaztelania dituztenak %2,9. Bizkaian, aldiz, lehen hizkuntza gaztelania dutenak %83,8 dira, euskara %12,4 eta biak %3,8. Azkenik, Gipuzkoa da lehen hizkuntza gaztelania dutenen ehunekorik txikiena duena (%55,9) eta, alde handiarekin, lehen hizkuntza euskara (%35,8) eta euskara eta gaztelania (%8,2) dituztenen ehunekorik handiena duena.

8. taula. Lehen hizkuntza lurraldearen arabera. EAE, 2006 (%)

Lehen hizkuntza	16 urte edo gehiagoko biztanleria			
	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Euskara	18,7	3,6	12,4	35,8
Euskara eta gaztelania	5,1	2,9	3,8	8,2
Gaztelania	76,2	93,6	83,8	55,9

Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

10. irudia. Lehen hizkuntza lurraldearen arabera. EAE, 2006 (%)



Oharra: zirkuluen tamaina lurralde bakoitzeko biztanleriaren arabera da.


Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

### 3.2. LEHEN HIZKUNTZA, ADINAREN ARABERA

Lehen hizkuntza euskara dutenen proportziorik handiena 65 urtetik gorako helduen artean dago oraindik (%26,1). Ehuneko horrek behera egiten du adinarekin batera. Baina gazteen artean (16-24 urtekoen artean) joera-aldaketa dago, eta hazi egin da bai euskara (%16) bai euskara eta gaztelania (%9,7) dutenen ehunekoak. Joera-aldaketa hori 1996an antzeman zen lehendabizi, 2001ean ere gertatu zen eta 2006an berretsi egin da.

Baina gertakari horrekin batera, alderantzizkoa ere gertatzen ari da zaharren artean. Gazteen artean, esan bezala, gero eta gehiago dira lehen hizkuntza euskara edo euskara eta erdara dutenak. Gazte horiek heldutasunera heldu ahala, gora egingo du lehen hizkuntza euskara zein euskara eta erdara duten helduen proportzioa. Baina kontuan hartuta helduena dela lehen hizkuntza gaztelania dutenen ehunekorik handiena duen multzoa, horiek zahartu ahala behera egingo du lehen hizkuntza euskara duten zaharren proportzioak.

11. irudia. Lehen hizkuntza adinaren arabera. EAE, 2006 (%)




Joera horiek guztiak hiru lurraldeetan ematen dira, baina, ezagutzarekin gertatzen den bezalaxe, alde handiak daude bateko eta besteko ehunekoak aztertuz gero.

Araban, adibidez, %10etik beherakoa da euskara –bakarrik eta gaztelaniarekin batera– dutenen ehunekoa adin-talde guztietan. Hau da, 10 arabarretik 9k erdara jaso dute etxean.

Bizkaian, oso alde txikia dago zaharren eta gazteen artean, lehen hizkuntza euskara bakarrik eta gaztelaniarekin batera dutenen proportzioei begiratuz gero (%22 eta %20,9 hurrenez hurren). Halere, euskara bakarrik dutenak kontuan hartuz gero, zaharren aldeko diferentzia handia da oraindik (%18,7 eta %11,7 hurrenez hurren).

Gipuzkoan, lehen hizkuntza euskara dutenak (%47,2) eta gaztelania dutenak (%47,9) pare-parean daude 65 urtetik gorakoen artean. Bestalde, 35 urtetik gorakoen artean lehen hizkuntza euskara dutenak herena baino gehiago dira, eta 35 urtetik beherakoen artean jaitsiera agerikoa den arren (25 eta 34 urtekoen artean %27,5), handia da lehen hizkuntza euskara eta erdara dutenen ehunekoa (25 eta 34 urtekoen artean %15,4). Gazteen artean (16 eta 24 urte bitartekoak) %30,1ek euskara eta %12,7k euskara eta gaztelania dituzte lehen hizkuntza dagoeneko.

12. irudia. Lehen hizkuntza adinaren arabera lurraldeka. EAE, 2006 (%)





### 3.3. LEHEN HIZKUNTZA, HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERA

EAEko 16 urtetik gorako elebidunen erdiak baino gehiagok (%56,3k) euskara izan du lehen hizkuntza, %11,8k euskara eta gaztelania eta ia herenak (%31,9k) gaztelania. Azken horiek euskaldun berriak dira eta eskolan edo euskaltegian ikasi dute euskara. Azpimarratzekoa da elebidunen artean, eta bereziki elebidun gazteen artean, multzo hori hartzen ari den pisua. Izan ere 24 urtetik beherako elebidunen erdia baino gehiago (%56,2) euskaldun berria da.

### 3.4. FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA

Familia bidezko transmisioaz dihardugunean, ume batek gurasoengandik jasotzen duen hizkuntzari edo hizkuntzei buruz ari gara. Inkesta soziolinguistikoaren kasuan, unibertso osoa kontuan hartuz gero, gurasoengandik seme-alabenganakoko transmisioa azken 100 bat urteotan nolakoa izan den ezagutzeko aukera dugu.

EAEko 16 urtetik gorako biztanle guztiak kontuan hartuz gero, gurasoak, biak, euskaldunak direnean, seme-alaben %84,9k euskara jaso du haiengandik, %5,7k euskara eta gaztelania eta %9,4 gaztelania bakarrik. Euskalduna gurasoetako bat baino ez denean, euskara jasotzenen ehunekoa txikia da (%4,5) eta euskara eta gaztelania jasotzenena %34,9. Hortaz, gehienek (seme-alaben %60,6k) gaztelania jaso du gurasoengandik.

9. taula. Lehen hizkuntza gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera. EAE, 2006 (%)

	Guraso euskaldunak		
	Biak	Bietako bat	Ez bata, ez bestea
Seme-alaben lehen hizkuntza			
Euskara	84,9	4,5	
Euskara eta gaztelania	5,7	34,9	0,7
Gaztelania	9,4	60,6	99,3

Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

**13. irudia.** Lehen hizkuntza gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera.  
EAE, 2006 (%)



Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.


Emaizta horiek, baina, ez digute gaur egun familia bidez euskara nola transmititzen den erakusten, XX. mende ia osoa oro har hartuta nolakoa izan den baizik.

EAE n gaur egun euskara nola transmititzen den ezagutzeko, 2 eta 25 urte bitarteko seme-alabak dituzten inkestatuak hartu ditugun kontuan, eta horiek hiru adin-multzotan banatu ditugu: 2-9 urte, 10-15 urte eta 16-24 urte.

Bikotekideen hizkuntza-gaitasunak erabat baldintzatzen du seme-alabei transmititzen zaien hizkuntza. Izan ere, 2 eta 25 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoak elebidunak direnean seme-alaben %99k euskara jasotzen du etxean. Horietako gehienek (10etik bederatzik baino gehiagok) euskara bakarrik jaso dute eta gainerakoek euskara gaztelaniarekin batera.

Bikotekideetako batek euskaraz ez dakienean, aldiz, seme-alaben bostenak baino gutxiagok jaso du euskara bakarrik. Halere, bikote misto horietako seme-alaben artean, euskara eta gaztelania jaso dutenen ehunekoa handia da (seme-alaben erdiak 10 eta 24 urtekoen artean eta hirutik bik 2 eta 9 urtekoen artean)

Emaizak adinaren arabera aztertuz gero, azken 25 urte hauetan gertatu diren joerak ezagutuko ditugu. Guraso biek euskaraz dakitenean, lehen hizkuntza euskara jaso duten seme-alaben ehunekoa %94,7 da 16 eta 24 urtekoen artean, %97,8koa da 10 eta 15 urtekoen artean eta %90,8koa 2 eta 9 urtekoen artean.




Aldiz, bikote euskaldunetan euskara eta gaztelania jaso dutenen bilakaera honakoa da: %5,2koa 16 eta 24 urtekoen artean, %2koa 10 eta 15 urtekoen artean eta %8,1koa 2 eta 9 urtekoen artean.


Hortaz, esan daiteke bikote euskaldun ia guztiek euskara transmititzen dietela seme-alabei, eta gero eta gehiago direla hizkuntza biak (euskara eta gaztelania) transmititzen duten bikote euskaldunak.

Gertakari hori bikotekideen hizkuntza-gaitasunarekin dago lotuta. Izan ere, guztiak elebidunak diren arren, azken 25 urteotako hizkuntzaren berreskuratze-prozesuaren ondorioz, bikotekide euskaldun berriak gero eta gehiago dira gurasoen eta gurasogaien artean, eta horiek seme-alabei euskara transmititzen badiete ere, gero eta gehiago dira gaztelaniarekin batera transmititzen dutenak.

**14. irudia.** 2-24 urte bitarteko seme-alaben lehen hizkuntza, adin-taldeka, gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera. EAE, 2006 (%)



Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.



### 3.5. HIZKUNTZA-BILAKAERA: EUSKARAREN IRABAZIAK ETA GALERAK


Lehen hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelania izan duten gehienek euskara gorde dute eta elebidunak dira gaur egun. Halere, badira lehen hizkuntza euskara izan arren, gaur egun elebidunak ez diren 59.973 lagun, hau da, euskara guztiz edo partez galdu dutenak. Galera horien ia bi heren (%63,2) galera partziala izan da, hau da, pertsona horiek euskaraz ondo hitz egin ez arren, ondo ulertzeko gai dira. Gainerako %36,8ak erabat galdu du euskara.

Euskararen irabaziak (euskaldun berriak) galerak halako hiru dira EAEn. Irabazien hazkundera eta galeren ia desagertzea gazteen artean antzematen da bereziki

Baina, aldi berean, lehen hizkuntza gaztelania izan arren, euskara ikasi eta gaur egun elebidun diren 178.036 pertsona daude, hauek euskararen irabazi osoak dira.

Badira beste 300.000 lagun lehen hizkuntza gaztelania izan arren, gaur egun euskaraz ondo ulertzeko gaitasuna dutenak; hauek irabazi partzialak dira.


15. irudia. Euskararen galerak eta irabaziak. EAE, 2006 (%)



Euskara irabazi dutenen proportzioa, euskaldun berriena alegia, oso antzekoa da hiru lurraldeetan: %10,2 Araban, %9,1 Bizkaian eta %10,3 Gipuzkoan.

Adinaren arabera, aldiz, alde esanguratsuak daude. Euskara irabazi dutenen ehunekoa txikia da 50 urtetik gorakoen artean (%1,9 batez beste). Baina 50 urte baino gutxiago dituztenen artean, euskaldun berrien ehunekoa bikoiztu egin da adin-talde batetik aurrera (35 eta 49 urtekoen artean %8,3, 25 eta 34 urtekoen artean %16,6 eta 16 eta 24 urtekoen artean %32,3).

16. irudia. Euskararen galerak eta irabaziak adinaren arabera. EAE, 2006 (%)



Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

Euskara **irabazi** dutenen ezaugarri nagusiak honakoak dira:

- Gehienak gazteak dira. Hirutik bik (%68k) 35 urte baino gutxiago dute. Halere, euskara irabazi dutenen laurdena (%24) 35 eta 49 urte bitarteko multzoan dago.
- Erdiak (%48k) B edo D ereduan egin ditu oinarrizko ikasketak, eta ia beste horrenbestek (%42k) eskolaz kanpo ikasi edo hobetu du euskara.
- Gehienak (%78) errazago moldatzen dira gaztelaniaz euskaraz baino.

Euskara **galdu** dutenak, aldiz, honako ezaugarriak dituzte:

- la hiru laurdenak (%72k) 50 urte baino gehiago ditu.
- la erdiak (%47k) euskara eta gaztelania izan ditu lehen hizkuntza.
- la inork ez ditu oinarrizko ikasketak euskaraz egin (%1ek D ereduan eta %4k B ereduan) eta hirutik bi (%64) ez da inoiz eskolaz kanpo euskara ikasten ahalegindu.

Euskaldun zaharrek lehen hizkuntza euskara izan dute eta gaur egun elebidunak dira. Erdaldun zaharrek, aitzitik, lehen hizkuntza erdara izan dute eta erdaldun elebakarrak izaten jarraitzen dute.



Bi multzo horiek oso bestelakoak izan arren, antzeko bilakaera erakutsi dute adinaren arabera. Izan ere, 50 urtetik gorakoek eta beherakoek arteko bereizketa argia da bietan.

Euskaldun zaharren eta erdaldun zaharren ehunekorik handienak 50 urtetik gorakoek artean daude (%17tik gora dira euskaldun zaharrak eta %60tik gora erdaldun zaharrak)

50 urtetik behera erdaldun zaharren proportzioa asko jaisten da. Gainera, zenbat eta gazteago, orduan eta txikiagoa erdaldun zaharren ehunekoa (25 eta 34 urtekoek artean %36,5, eta 16 eta 24 urtekoek artean %17,6).

Euskaldun zaharren proportzioak ere behera egiten du 50 urte baino gutxiago dituztenek artean (35 eta 49 urtekoek artean %14,9 eta 25 eta 34 urtekoek artean %13,6). Baina 25 urte baino gutxiago dituzten gazteen artean joera-aldaketa gertatu da eta euskaldun zaharren proportzioa gora egiten hasi da (%16).

Halere, euskaldun berriein batera, adinak behera egin ahala hazkunde handia izan duen multzoa jatorrizko elebidunena izan da. Jatorrizko elebidunek euskara eta gaztelania izan dute lehen hizkuntza eta gaur egun ondo hitz egiten dute euskaraz. 35 urte baino gehiago dituztenek artean jatorrizko elebidunen proportzioa %3 baino txikiagoa da. 35 urtetik behera, aldiz, ehunekoa bikoiztu (25 eta 34 urtekoek artean %7,2) eta hirukoiztu ere (16 eta 24 urtekoek artean %9,2) egin da.



**17. irudia.** Hizkuntza-bilakaeraren indizea adinaren arabera. EAE, 2006 (%)


## 4. Euskararen erabilera

### 4.1. EUSKARAREN ERABILERAREN TIPOLOGIA

Eremu jakin batzuetan (etxean, familiako kideekin, lagunekin, dendariekin, lanean, eremu formal publikoetan eta pribatuetan) banan-banan euskararen erabilera nolakoa den jasotzen du inkesta soziolinguistikoak. Beraz, eremu horietako bakoitzean zenbat euskara erabiltzen den eta azken urteotako bilakaera nolakoa izan den jakin badakigu. Baina euskarak gizartean oro har duen erabileraz jabetzeko, 2001ean indize bat eratu zuen Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak: indize horri euskararen erabileraren tipologia izena jarri zitzaion.


Euskararen erabilera neurtzeko tipologiak honako eremu hauek ditu kontuan: etxea, lagunartea eta eremu formala. Eremu formalak lau azpi-eremu hartzen ditu bere baitan: osasun- eta udal-zerbitzuak esparru publikoan, eta auzoko dendak eta finantza entitateak (bankuak eta kutzak) esparru pribatuan.



Erabileraren tipologia inkesta soziolinguistikoak aztergai duen unibertso osoari, hau da, 16 urtetik gorako biztanleriari aplikatu zaio, 1.850.500 laguni hain zuzen.

Erabileraren tipologiaren arabera, EAeko biztanleen %18,6k euskara gaztelania beste (%6,1) edo gehiago (%12,5) erabiltzen du eguneroko jardunean, %11k gaztelania erabiltzen du nagusiki eta %70,4k ez du euskararik erabiltzen.

18. irudia. Euskararen erabilera. EAE, 2006 (%)




Azken 15 urteotako bilakaera aztertuz gero, euskararen erabilerak gora egin du apurka-apurka. 1991n, EAeko biztanleen %15,3 ziren euskara gaztelania beste (%5,3) edo gehiago (%10,0) erabiltzen zutenak. 10 urte beranduago, 2001ean, %17,2 ziren euskara gaztelania beste (%7,1) edo gehiago (%10,1) erabiltzen zutenak.

Aldi berean, oraindik ere alde handiz multzorik handiena bada ere, gaztelania hutsean mintzatzen direnen beherakada etengabea da (%77,7 1991n, %73,6 2001ean eta, esan bezala %70,4 2006an).



19. irudia. Euskararen erabileraren bilakaera. EAE, 1991-2006 (%)




Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

Erabilerari buruzko emaitzetan alde handiak daude lurralde batetik bestera. Izan ere, gaztelania beste edo gehiago erabiltzen dutenak %3,3 dira Araban, %12,5 Bizkaian eta biztanleen herena baino gehiago (%35,6) Gipuzkoan. Horiekin batera, euskara gaztelania baino gutxiago erabiltzen dutenena talde esanguratsua da hiru lurraldeetan: %7,3 Araban, %9,9 Bizkaian eta %14,4 Gipuzkoan.

Emaitza horien arabera, gaztelania hutsean mintzatzen direnen ehunekoan ere alde handiak daude lurralde batetik bestera. Araban, adibidez, gaztelania hutsean hitz egiten dutenak hamarretik ia bederatzira (%89,3) dira, %77,6 Bizkaian eta biztanleen erdia (%49,9) Gipuzkoan.

EAEko 16 urte edo gehiagoko biztanleak kontuan hartuta, 1991tik 2006ra euskararen erabilerak gora egin du hiru lurraldeetan. Igoera hori euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzen dutenen artean ez ezik, euskara gaztelania baino gutxiago erabiltzen dutenen artean ere gertatu da. Hortaz, azken 15 urteotan behera egin du (batez beste 7 puntu) gaztelaniaz bakarrik mintzatzen diren biztanleen ehunekoak.


20. irudia. Euskararen erabilera lurraldearen arabera. EAE, 2006 (%)



Euskararen erabilerrari buruzko datuak gune soziolinguistikoaren arabera aztertuz gero, aldeak lurraldeka baino nabarmen handiagoak direla konturatuko gara. Euskaldunak %20 baino gutxiago diren guneetan, 1. gune soziolinguistikoan alegia, %2,5ek baino ez du euskaraz gaztelaniaz beste edo gehiago hitz egiten. Badago, halere, talde handi bat (%7,6) gaztelania baino gutxiago bada ere, euskara ere erabiltzen duena. Lehenengo gune soziolinguistikoan gehienak (%89,8) gaztelania hutsean mintzatzen dira.

2. gune soziolinguistikoan (euskaldunak %20 eta %50 bitartean) ere gaztelania da gehien erabiltzen den hizkuntza: hiru lagunetik bik (%67,7k). Euskaraz gaztelaniaz beste edo gehiago hitz egiten dutenak %14,9 dira, eta gaztelania baino gutxiago bada ere, euskara erabiltzen dutenak %17,5.

3. gune soziolinguistikoan (euskaldunak %50 eta %80 bitartean), bizilagunen herenak baino gehiagok (%36,1ek) euskara erabiltzen du nagusiki, laurdenak




(%26,6k) euskara gaztelania beste edo gutxiago, eta beste heren batek (%37,2k) ez du euskara erabiltzen. Hortaz, hirugarren guneko biztanleen erdiak (%50ak) euskara gaztelania beste (%13,9) edo gehiago (%36,1) erabiltzen du.

4. gune soziolinguistikoa (euskaldunak >%80 baino gehiago) lau lagunetik hiruk (%75,3k) euskara erabiltzen du nagusiki, %9,2k euskara gaztelania beste eta %5,3k euskaraz egiten du, baina gaztelania baino gutxiago. Azkenik, laugarren guneko hamarrena (%10,3) gaztelania hutsean mintzatzen da.


Gune soziolinguistikoaren arabera emaitzei benetako neurria hartzeko, lagun-garria da gune bakoitzeko biztanleek EAEko biztanleria osoarekiko duten pisuaz jabetzea. Izan ere, 1. gunean EAEko biztanleen erdia (%51) bizi da (Araba ia osoa, Bilbo eta ezkeraldea eta Bizkaiko mendebaldea), 2. gunean EAEko biztanleen laurdena (%25), 3. gunean bostena (%19) eta laugarrenean %5.

### 21. irudia. Euskararen erabilera gune soziolinguistikoaren arabera. EAE, 2006 (%)



Oharra: zirkuluen tamaina gune bakoitzeko biztanleriaren arabera da.

Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.




Azken 15 urteotan euskararen erabilera zertxobait handiagoa da 1. eta 2. gune soziolinguistikoetan, gora egin du argi eta garbi 3. gune soziolinguistikoan (5 puntu euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzen dutenen artean) eta txikiagoa da 4. gune soziolinguistikoan (3 puntu). Halere, zehaztu behar da azken urteotan joera-aldaketa dagoela eta gaur egungo emaitzak 2001ekoak baino hobeak direla.

Hizkuntza berreskuratzeko prozesuan lan-mundua duen garrantzia ezin ahaztuta, euskarak lan-munduan duen presentziak euskararen erabileraren indizeari nola eragiten dion jakin nahi izan dugu. Horretarako, euskararen erabileraren tipologia laneko erabilerarekin osatu dugu.

Baina erabileraren tipologia osatu hori ezin zaio unibertso osoari aplikatu, lan egiten dutenei baizik. Hortaz, 16 urtetik gorako landunei buruz ari gara orainoan: 914.000 lagun, unibertso osoaren %49,4.

Datuei begiratzuz gero, laneko erabileraren eragina argia da indizean. Oro har, euskaraz gaztelaniaz beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoa oso antzekoa bada ere (%18,6 lehenengo tipologian eta %19 bigarrean), lanean ari direnen artean gutxiago dira euskara gaztelania baino gehiago erabiltzen dutenak (%10,6 vs %12,5) eta gehiago, aldiz, euskara gaztelania beste hitz egiten dutenak (%8,4 vs %6,1). Aldi berean, nahikotxo gehiago dira gaztelania baino gutxiago bada ere, euskara erabiltzen dutenak (%14,1 vs %11) eta gutxiago gaztelania hutsean mintzatzen direnak (%67 vs %70).

22. irudia. Euskararen erabilera (lanean). EAE, 2006 (%)



Beraz, laburbilduz esan daiteke lan egiten dutenen artean gutxiago direla, alde batetik, nagusiki euskaraz hitz egiten dutenak eta, bestetik, euskararik erabiltzen ez dutenak, eta gehiago euskaraz gaztelaniaz beste edo gutxiago mintzatzen direnak. Joera hori, oro har, lurralde, guneta, aurrerago ikusiko dugunez, adin-talde guztietan ematen da.

1991tik 2006ra bitartean, euskararen erabilera gora egin du euskara gaztelaniaz beste edo gehiago erabiltzen dutenen artean (5 puntu), baita euskara gaztelaniaz baino gutxiago erabiltzen dutenen artean ere (7 puntu). Igoera hori EAEko hiru lurraldeetan gertatu da.


#### 4.2. EUSKARAREN ERABILERAREN TIPOLOGIA, ADINAREN ARABERA

**Gazteak eta zaharrak dira eguneroko jardunean euskara gehien erabiltzen dutenak**

Adin-talde guztietan erabat nagusi da oraindik gaztelaniaren erabilera (batez beste %70). Halere, 35 urtetik beherako gazteen artean eta, bereziki, 25 urtetik beherakoen artean, gaztelaniaren erabilera (%64,8 eta %56,9, hurrenez hurren) behera egiten ari da argi eta garbi. Azken horien artean, gainera, euskara gaztelaniaz baino gehiago hitz egiten dutenen mesedean (%13,5).

Euskara gaztelaniaz beste (%10) edo gehiago (%13,5) erabiltzen dutenen ehuneko handiena 16 eta 24 urte bitarteko gazteek dute (%23,5). Ondoren, 65 urtetik gorako zaharrak daude (%20,7). Esan behar da, halere, zaharren artean gazteen artean baino gehiago direla euskaraz gaztelaniaz baino gehiago mintzatzen direnak, hau da, nagusiki euskara erabiltzen dutenak (%15,7 vs %13,5), baina aldea konpentsatu egiten dela hizkuntza biak neurri bertsuan erabiltzen dituztenekin.

35 urtetik behera, biztanleen zati handi batek (%17,4k) euskara erabiltzen du, baina gaztelaniaz baino gutxiago. Multzo hori handituz doa adinak behera egin ahala: 16 eta 25 urte bitarteko gazteen artean bostena inguru (%19,7) dira.

**23. irudia.** Euskararen erabilera adinaren arabera. EAE, 2006 (%)

Azken 15 urteotako bilakaera aztertuz gero, 65 urtetik gorako lagunen artean euskara gutxiago erabiltzen da gaur egun 1991n baino. Izan ere, adin horretako lau lagunetik batek (%25,2) euskara gertatzen dena beste (%7,4) edo gehiago (%17,8) erabiltzen zuen 1991n. Gaur egun, aldiz, euskara gertatzen dena beste (%5) edo gehiago (%15,7) bostetik batek (%20,7) erabiltzen du. Gertakari hori ez da harritzekoa. Izan ere, helduen multzoa, hau da, betidanik eraldunena izan dena zahartzen doan neurrian, eralduntzen ari da orain gutxira arte euskaldunen proportziorik handiena izan duen taldea, zaharrena hain zuzen.


50 eta 64 urtekoen artean, euskara erabiltzen dutenen ehunekoa oso antzekoa da gaur egun (%16) eta duela 15 urte (%16,5). Baina 50 urte baino gutxiago dutenen artean, euskara gehiago erabiltzen da gaur egun 1991n baino. Aldea, gainera, handiagoa da adinak behera egin ahala: 35 eta 49 urtekoen artean %16,9 vs %13,2, 34 eta 25 urtekoen artean %19,2 vs %14, eta 16 eta 24 urtekoen artean %23,5 vs %12,1.

Beraz, azken 15 urteotako bilakaeraren azterketatik bi ondorio atera daitezke:

- Batetik, gaur egun 1991n baino gehiago erabiltzen dela euskara oro har. 65 urtetik gorakoek izan ezik, gainerako guztiek gehiago erabiltzen dute euskara, eta zenbat eta gazteago orduan eta gehiago.
- Bestetik, joera-aldaketa argia gertatu dela euskararen erabileran. Duela 15 urte zaharrak ziren gehien erabiltzen zutenak, eta adinak behera egin

ahala txikiagoa zen euskara erabiltzen zutenen proportzioa. Gaur egun, berriz, zaharren artean euskara erabiltzen dutenen ehunekoa, gainerako adin-taldekoarenarekin konparatuz gero, handia izaten jarraitzen badu ere, 65 urte baino gutxiago dituztenen artean adinak behera egin ahala, hazi egin da euskara erabiltzen dutenen proportzioa.

**24. irudia.** Euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera adinaren arabera. EAE, 1991-2006 (%)




Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

Euskararen erabilerari buruz azaldu berri diren tendentziak errepikatu egiten dira oro har hiru lurraldeetan, bakoitzak bere erabilera-mailaren arabera jakina. Hiruretan 16 eta 24 urte bitarteko gazteak dira euskara gehien erabiltzen dutenak. Halere, nagusiki euskara erabiltzen dutenengan erreparatzen badugu, Bizkaian eta Gipuzkoan 65 urtetik gorakoak dira erabilera-ehunekorik handiena dutenak. Euskara gaztelania beste erabiltzen dutenak, baina, zaharren bikoitza dira gazteen artean.

Erdara hutsean jarduten dutenen ehunekoak behera egin du adinak behera egin ahala. Joera hori hiru lurraldeetan antzematen da. Adin-talde guztietan gaztelania hutsean mintzatzen direnen ehunekorik handiena Arabak du (%85etik gora 25 urtetik gorakoaren artean eta %77,4 gazteen artean). Bizkaiko 25 urtetik gora-

koen %75ek edo gehiagok gaztelania hutsean hitz egiten dute eta 25 urtetik beherakoen %65,1ek. Gipuzkoa da ehunekorik txikiena duena, batez ere 25 urtetik beherakoen artean (%33,1). Gainerako adin-taldeetan, erdia baino gehiago dira gaztelania hutsean jarduten dutenak 35 urtetik gorakoaren artean eta %39,3 dira 25 eta 34 urtekoen artean.

25. irudia. Euskararen erabilera adinaren arabera, lurraldeka. EAE, 2006 (%)





### 4.3. EUSKARAREN ERABILERA ELEBIDUNEN ARTEAN

Orain arte aztertutako emaitzen arabera esan dezakegu azken 15 urteotan, oro har, hau da, gizarte osoa kontuan hartuta, euskararen erabilerak aurrera egin duela neurri batean ala bestean: gero eta lagun gehiagok erabiltzen du euskara EAEn.


Erabileraren hazkunde hori, gainera, ez da eremu edo jarduera jakin batean edo batzuetan bakarrik gertatzen ari, gizarte-bizitza osoan baizik. Egia da, halere, euskara erabiltzeko baldintza egokiak behar direla, eta horiek oraindik EAeko esparru eta gunex gutxitan ematen direla.

Gero eta lagun gehiagok daki euskaraz eta, horren arabera, esan bezala, gero eta gehiagok erabiltzen du euskara. Baina, gaur egun elebidunen artean euskara erabiltzen dutenen proportzioa lehen erabiltzen zutenena baino handiagoa ala txikiagoa da? Galdera horri erantzuten eta zergatiak argitzen ahaleginduko gara jarraian.

Hasteko, unibertsoa mugatuko dugu. EAeko 16 urtetik gorako elebidunak 557.600 dira, unibertso osoaren %30,1. Horietako %31,8 euskal elebidunak dira, %28,4 elebidun orekatuak eta %39,7 erdal elebidunak. Adinari dagokionez, elebidunen %43,4 gazteak dira (35 urte baino gutxiago dituzte), %38,9 helduak dira (35 eta 64 urte) eta %17,7 zaharrak ( $\geq 65$  urte). Eta lehen hizkuntzari dagokionez, erdia baino gehiago (%56,5) euskaldun zaharrak dira, %11,6 jatorrizko elebidunak eta %31,9 euskaldun berriak. Beraz, hiru elebidunetatik bik etxean jaso dute euskara eta ia herenak eskolan edo euskaltegian ikasi du euskara.

Elebidunen %61,2k euskara gaztelania beste (%19,6) edo gehiago (%41,6) erabiltzen du, %24,1ek euskara erabiltzen du, baina gaztelania baino gutxiago, eta %14,7k ez du euskararik erabiltzen.

**26. irudia.** Elebidunen euskararen erabilera. EAE, 2006 (%)




Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

Euskara gehien erabiltzen dutenak euskal elebidunak dira. Horietako %84,4k erabiltzen dute nagusiki eguneroko bizimoduan eta %13,6k gaztelania beste.

Elebidun orekatuen artean euskara gaztelania baino gehiago erabiltzen dutenak erdia baino gutxiago dira (%41,6), baina handia da euskaraz gaztelaniaz beste hitz egiten dutenen proportzioa (%30,1).


Azkenik, erdal elebidunak dira euskara gutxien erabiltzen dutenak. Izan ere, %7,4k erabiltzen dute euskara gaztelania baino gehiago eta %16,8k euskara gaztelania beste. Erdal elebidun gehienek (%41ek) euskara erabiltzen dute eguneroko bizimoduan, baina gaztelania baino gutxiago.

**27. irudia.** Elebidunen euskararen erabilera elebitasun-motaren arabera. EAE, 2006 (%)




Oharra: zirkuluen tamaina talde bakoitzeko kopuruaren arabera da.

Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.



EAEko elebidunen artean nagusiki euskara gehien erabiltzen dutenak 65 urtetik gorakoak dira (%62,8). Adin horretatik behera euskara nagusiki erabiltzen dutenen proportzioak behera egiten du nabarmen: 25 eta 34 urtekoen artean %32,9 eta 16 eta 24 urtekoen artean %23,5.

**28. irudia.** Elebidunen euskararen erabilera adinaren arabera. EAE, 2006 (%)




**Iturria:** IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

**10. taula.** Elebidunen euskararen erabilera adinaren arabera. EAE, 2006 (%)

Euskararen erabilera	Adin-taldeak				
	>=65	50-64	35-49	25-34	16-24
Euskara gaztelania baino gehiago	62,8	52,0	43,0	32,9	23,5
Euskara gaztelania beste	19,4	21,6	21,5	18,4	17,3
Euskara gaztelania baino gutxiago	14,1	17,4	23,9	30,2	31,3
Gaztelania bakarrik	3,7	9,0	11,6	18,5	28,0


**Iturria:** IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

Azken 15 urteotako bilakaeran gorabehera txikiak izan dira. 1991ko datuei begiratuz gero, euskara beti edo ia beti erabiltzen zuten elebidunen ehunekoa gaur egungo berbera zen (%41,6), baina handiagoa zen euskara gaztelania beste erabiltzen zutenena (%19,6 vs%21,8).



Adinaren arabera, aldiz, gaur egun euskara gaztelania baino gehiago erabiltzen dutenen proportzioa 1991n baino txikiagoa da 25 eta 50 urtekoen artean (%37,9 vs %42,1), eta handiagoa 50 urtetik gorakoen artean (%57,8 vs %51,2) zein 16 eta 24 urtekoen artean (%23,5 vs %22,8).

**29. irudia.** Euskara gaztelania baino gehiago erabiltzen duten elebidunen bilakaera adinaren arabera. EAE, 1991-2006 (%)



Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

Euskara gaztelania beste erabiltzen duten elebidunen proportzioa, aldiz, 1991n baino txikiagoa da oro har, baina bereziki 35 urtetik beherakoen artean.

Euskal elebidunen artean euskara gehiago erabiltzen da gaur egun duela hamabost urte baino. Elebidun orekatuen artean, aldiz, apenas igo da erabilera (jaitsi egin da euskara gaztelania beste erabiltzen dutenen ehunekoa eta igo euskara gaztelania baino gehiago erabiltzen dutenena). Erdal elebidunen artean euskaren erabilerak behera egin du. Beherakada hori, halere, bere testuinguruan kokatu behar da: erdal elebidunen artean gero eta gehiago dira hiri-gune erdaldunetan bizi diren euskaldun berri gazteak, eta horietako gehienei erraztasunaz gain, harreman sare euskalduna falta zaie euskara normaltasunez erabili ahal izateko.

#### 4.4. EUSKARAREN ERABILERAN ERAGITEN DUTEN FAKTOREAK

**Harreman-sareko euskaldunen dentsitatea eta erraztasuna dira euskararen erabileran eragiten duten faktore nagusiak**

Erabilerari buruz egin ditugun azterketek behin eta berriro erakusten digute erabileran eragiten duten faktore nagusiak bi direla:

- hiztunaren harreman-sareko euskaldunen dentsitatea, eta
- hiztunak hizkuntza batean eta bestean jarduteko duen erraztasuna.

Bi faktore horiek erabilera-eremu nagusietan zenbateraino eragiten duten zehatz-mehatz jakiteko, korrelazioak aztertuko ditugu jarraian. Korrelazioak bi aldagairen arteko harremana zehazten du, eta 0 eta 1 arteko zenbaki baten bidez adierazten da.

Euskararen erabileraren eta harreman-sareko dentsitatearen arteko korrelazioa 0,76 da etxeko erabileran, 0,69 lagunartekoan eta 0,88 lanekoan. Korrelazioak oso handiak dira erabilera-eremu guztietan, eta harreman-sareko euskaldunen dentsitatea da faktore nagusia, batez ere laneko erabileran.

Harreman-sarearen eraginaz jabetzeko, emaitzak gune soziolinguistikoaren arabera aztertuko ditugu. Lehenengo gune soziolinguistikoan euskaldunak %20 baino gutxiago dira batez beste. Gune horretan euskara gaztelania beste edo gehiago hitz egiten dutenak %2,5 dira. Bigarrenean (%20-%50) erabilerak nabarmen egiten du gora (%14,9). Baina, hirugarren gunean (%50-%80) antzematen da benetako jauzia, izan ere gune horretako biztanleen erdia %50,0 euskaraz gaztelaniaz beste edo gehiago mintzatzen da. Laugarren gunean (>%80) jauzia erabatekoa da: euskaldunak %80tik gora direnean, lau lagunetik hiruk (%75,3k) euskaraz gaztelaniaz baino gehiago hitz egiten du eguneroko jardunean eta hamarretik batek (%9,1ek) euskaraz gaztelaniaz beste.


Bestalde, euskararen erabileraren eta euskaraz hitz egiteko erraztasunaren arteko korrelazioa 0,67 da etxeko erabileran, 0,65 lagunartekoan eta 0,33 lanekoan. Hortaz, esan daiteke euskaraz errazago hitz egiten duen elebidunak, hau da euskal elebidunak, nagusiki euskara erabiltzen duela etxean eta lagunartean, baina gutxiago lankideekin. Elebidun orekatuak, aldiz, hizkuntza biak neurri bertsuan erabiltzen ditu hiru eremu horietan, baina gehiago euskara. Azkenik, erdal elebidunak gehienbat gaztelania erabiltzen du eremu guztietan.

Beste faktore batzuek, adinak edo euskararekiko jarrerak adibidez, eragina dute euskararen erabileran, baina harreman-sareak eta erraztasunak baino askoz txikiagoa. Izan ere, euskararen erabileraren eta jarreraren arteko korrelazioa 0,29 da etxeko erabileran, 0,28 lagunartekoan eta 0,18 lanekoan, eta euskararen erabileraren eta adinaren arteko korrelazioa 0,31 da etxeko erabileran, 0,24 lagunartekoan eta 0,08 lanekoan. Gainera, harreman-sarearen eta erraztasunaren baldintzak bertsuak direnean, euskararen erabileran ia ez dago aldaketarik adinaren edo jarreraren eraginez.

Hortaz, euskara erabiltzeko baldintzak egokiak direnean, elebidunek euskara erabiltzen dute eguneroko jardunean, baina baldintza horiek betetzen ez direnean, euskararen erabilerak behera egiten du nabarmen.

30. irudia. Euskararen erabilera harreman-sareko elebidunen dentsitatearen arabera. EAE, 2006


Hitz egiten dute...



Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

## 31. irudia. Euskararen erabilera gune soziolinguistikoaren arabera. EAE, 2006

## Hitz egiten dute...



Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritzza, 2006.

## 5. Euskararen erabilera eremuka

Euskararen erabilera aztertzeko kontuan hartu diren eremuak honakoak dira:

- familia (bikotekidea, seme-alabak, neba-arrebak eta gurasoak)
- gertuko komunitatea (lagunak, auzokideak, lankideak, dendak)
- eremu formalak (bankua edo kutxa, anbulatorioa, udal-zerbitzuak)

## 5.1. EUSKARAREN ERABILERA ETXEAN

EAEko 16 urtetik gorako biztanleen %14k beti edo nagusiki euskara erabiltzen dute **etxean** eta beste %4k euskara gaztelania beste. Bada beste hiztun multzo bat (%8) euskara erabili erabiltzen duena, baina gaztelania baino gutxiago. Hortaz, EAEko 16 urtetik gorako biztanleen %74k gaztelania baino ez du erabiltzen etxean. Kontuan hartu behar da horietako gehienak erdaldun elebakarrak direla.

**Etxean seme-alabekin eta neba-arrebeekin erabiltzen da gehien euskara**

Aipatu berri diren emaitzak 16 urte edo gehiagoko biztanleria osoarekiko baino elebidunekiko aztertuz gero, elebidunen %45ek beti edo nagusiki euskara erabiltzen dute **etxean** eta beste %12k euskara gaztelania beste. Bada beste hiztun multzo bat (%13) euskara erabili erabiltzen duena, baina gaztelania baino gutxiago. Elebidunen %31k beti gaztelania erabiltzen du etxean.

Hiztunaren harreman-sare euskaldunaren dentsitateak eta erraztasunak berebiziko garrantzia dute euskararen erabileran eta bereziki etxekoan.

**Etxean** denek edo ia denek euskara dakitenean, EAEko 16 urtetik gorako biztanleen %76k nagusiki euskara erabiltzen du bertan eta %12k euskara gaztelania beste. Baina etxean euskaraz dakitenean kopurua erdira jaisten denean, inork ez du nagusiki euskaraz hitz egiten eta %1 baino ez da euskara gaztelania beste hitz egiten duena.

Gune soziolinguistikoaren arabera ere, gorabehera handiak daude euskararen **etxeko erabileran**. Laugarren gunean (euskaldunak  $\geq$ %80), esaterako, %74k euskara erabiltzen du nagusiki etxean eta %8k euskara gaztelania beste. Euskaldunak %50 baino gutxiago diren guneetan, aldiz, etxean euskaraz nagusiki hitz egiten dutenak %10 edo gutxiago dira eta euskara gaztelania beste erabiltzen dutenak %5 edo gutxiago.

Euskal elebidunen %87k nagusiki euskara erabiltzen du **etxean** eta %6k euskara gaztelania beste. Elebidunaren erraztasunak behera egiten duenean, euskararen erabilerak ere behera egiten du. Izan ere, euskara nagusiki erabiltzen dute elebidun orekatuen %44k eta erdal elebidunen %12k. Bi multzo horietan handia da etxean euskara gaztelania beste erabiltzen dutenen proportzioa (%20 eta %10 hurrenez hurren). Erdal elebidunen erdia baino gehiago (%58) gaztelania hutsean mintzatu ohi da etxean.



EAEko 16 urtetik gorako elebidunen ia erdiak (%48k) nagusiki euskaraz egiten du **bikotekidearekin** eta %9k gaztelania beste erabiltzen du. **Seme-alabekin** euskara erabiltzen dutenen proportzioa handiagoa da (%74k erabiltzen du euskara nagusiki eta %11k gaztelania beste). **Neba-arrebekin** euskara erabiltzen dutenak %55 dira eta euskara gaztelania beste erabiltzen dutenak %9. Gurasoekiko erabilerari dagokionez, euskaraz beti edo ia beti %47k hitz egiten dute **amarekin** eta %44k **aitarekin**; beste %5ek euskara gaztelania beste erabiltzen dute batarekin zein bestearekin.

Etxeko erabilerari dagokionez, adinaren araberrako azterketa egiteko orduan, alde handia dago EAEko 16 urtetik gorako unibertso osoa kontuan hartu ala elebidunak hartu. Unibertso osoa kontuan hartuz gero, esan dezakegu 65 urtetik gorakoen eta 25 urtetik beherakoen artean hitz egiten dela gehien euskara etxean (%19k erabiltzen dute euskara gaztelania beste edo gehiago batzuen zein bestean artean).

Baina elebidunekiko erabilera jorratuz gero, 65 urtetik gorako elebidunak dira etxean euskara gehien erabiltzen dutenak (%72k euskara gaztelania beste edo gehiago), eta adinak behera egin ahala behera egiten du euskararen erabilerak. Izan ere, 16 eta 24 urte bitarteko gazte elebidunen artean, etxean euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzen dutenak %31 dira.

Etxeko erabileran, adinaren araberrako datuetan antzematen diren joerak azaltzeko orduan, kontuan hartu behar da adin desberdinetako kideak bizi direla elkarrekin, eta bikotekideen eta neba-arreben arteko erabilerak baino ez direla belaunaldi bereko edo adin bertsuko kideen artekoa. Bestetik, kontuan hartuta 25 urtetik beherako elebidunen erdia baino gehiago euskaldun berriak direla, nekez izango dute aukerarik etxean, gurasoekin behintzat, euskaraz jarduteko, horietako gehienak erdaldun elebakarrak baitira.

11. taula. Euskararen erabilera etxean. EAE, 2006 (%)

Euskararen erabilera	Adin-taldeak				
	>=65	50-64	35-49	25-34	16-24
Euskara beti edo gaztelania baino gehiago	16,9	11,8	12,9	14,2	14,4
Euskara gaztelania beste	1,5	4,1	6,2	4,8	3,7
Gaztelania beti edo euskara baino gehiago	81,5	84,1	80,9	81,0	81,9


Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

12. taula. Elebidunen euskararen erabilera etxean. EAE, 2006 (%)

Euskararen erabilera	Adin-taldeak				
	>=65	50-64	35-49	25-34	16-24
Euskara beti edo gaztelania baino gehiago	66,0	55,0	49,0	38,0	25,0
Euskara gaztelania beste	6,0	16,0	17,0	11,0	6,0
Gaztelania beti edo euskara baino gehiago	28,0	29,0	33,0	50,0	68,0


Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

32. irudia. Euskararen erabilera etxean. EAE, 2006 (%)



Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

33. irudia. Elebidunen euskararen erabilera etxean. EAE, 2006 (%)



Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

## 5.2. EUSKARAREN ERABILERA GERTUKO KOMUNITATEAN

EAEko 16 urte edo gehiagoko biztanleetatik euskara beti edo ia beti erabiltzen dute %15ek **lankideekin**, %14k **lagunekin** eta %13k **auzokideekin** zein **dendariekin**. Halaber, euskara gaztelania beste erabiltzen dute %7k lankideekin eta lagunekin eta %6 auzokideekin eta dendariekin.

Aipatu berri diren emaitzak 16 urte edo gehiagoko biztanleria osoarekiko baino elebidunekiko aztertuz gero, elebidunen %46k beti edo nagusiki euskara erabiltzen dute **lagunekin** eta beste %18k euskara gaztelania beste.

Sarearen eragina handia da lagunarteko euskararen erabileran ere, baina ez etxean bezain handia. Izan ere, EAEko 16 urte edo gehiagoko biztanleak kontuan hartuta, **lagunartean** denek edo ia denek euskara dakitenean %54k beti edo ia beti erabiltzen dute euskara eta %7k euskara gaztelania beste. Baina euskaraz dakitenak denak edo ia denak izan beharrean, erdiak baino gehiago direnean, multzo handi batek euskara erabiltzen du (%28k beti edo ia beti eta %9k euskara


gaztelania beste). Elebidunekiko emaitzek joera bertsua erakusten dute: lagunartean denek edo ia denek euskara dakitenean, beti edo ia beti euskara erabiltzen dutenak %74 dira eta euskara gaztelania beste erabiltzen dutenak %9.


Erraztasuna, aldiz, etxeko erabileran bezain garrantzitsua da **lagunarteko erabileran**. Euskal elebidunen artean %85ek beti edo ia beti erabiltzen dute euskara lagunekin, orekatuen artean, aldiz, %50ek eta erdal elebidunen artean %13k. Elebidun orekatu eta erdal elebidun askok (%26k eta %20k hurrenez hurren) euskara gaztelania beste erabiltzen dute lagunekin.

EAEko 16 urtetik gorako elebidunen %41ek euskara erabiltzen du beti edo ia beti **auzokideekin** eta %18k euskara gaztelania beste. Sarearen eragina oso handia da auzokideekin hitz egiteko orduan egiten den hizkuntza-aukeran. Izan ere, auzokide denek edo ia denek euskara dakitenean, elebidunen %92k beti edo ia beti euskara erabiltzen dute, baina dakitenak denak edo ia denak baino, erdia baino gehiago direnean, euskara beti edo ia beti erabiltzen dutenen ehunekoa hamaika puntu jaisten da (%71).

Eguneroko erosketak egiten ditugun **dendetan** EAEko 16 urtetik gorako biztanleen %13k beti edo ia beti euskara erabiltzen dute eta %6k euskara gaztelania beste. Elebidunen kasuan, aldiz, eguneroko erosketak egiten ditugun dendetan %44k beti edo ia beti euskara erabiltzen dute eta %17k euskara gaztelania beste.

34. irudia. Euskararen erabilera gertuko komunitatean. EAE, 2006 (%)




**35. irudia.** Elebidunen euskararen erabilera gertuko komunitatean. EAE, 2006 (%)


Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.


### 5.3. EUSKARAREN ERABILERA EREMU FORMALLEAN

EAEko 16 urtetik gorako biztanleen %18k nagusiki euskara erabiltzen du udal-zerbitzuetan eta %4k euskara gaztelania beste. Udal-zerbitzuetan euskara gehien erabiltzen dutenak gazteak dira: 16 eta 24 urtekoen artean laurdenak (%25ek) erabiltzen du nagusiki euskara eta 25 eta 34 urtekoen artean %19k. Helduen artean, euskararen erabilera batez bestekoaren azpitik dago, eta 65 urtetik gorakoen artean batez bestekoan (%18an).

Harreman-sareko euskaldunen dentsitateak, gainerako erabilera-eremuetan bezala, garrantzi handia du udal-zerbitzuetan euskara erabiltzeko orduan. Izan ere, 4. gune soziolinguistikoa, hau da, euskaldunak %80tik gora diren udalerrietako herritarren %84k erabiltzen du nagusiki euskara udal-zerbitzuetan, baina euskaldunen dentsitatea %80 baino txikiagoa denean, asko jaisten da udal-bulegoetan nagusiki euskara erabiltzen dutenen ehunekoa, eta gehienez ere %49ra iristen da (euskaldunen dentsitatea %50 eta %80 bitartekoa denean).

Bankuetan eta kutxetan nagusiki euskara erabiltzen duten 16 urtetik gorako herritarrek %17 dira, eta euskara gaztelania beste erabiltzen dutenak %4. Udal-zerbitzuetan bezalaxe, gazteen artean euskara erabiltzen dutenak gainerako adin-taldeetan baino zertxobait gehiago dira (%23 16 eta 24 urtekoen artean)

Anbulatorioan eta osasun-zerbitzuetan 16 urtetik gorako biztanleen %12k erabiltzen du euskara nagusiki eta %5ek euskara gaztelania beste. Eremu horretan




euskara erabiltzen dutenak aurreko bietan baino gutxiago dira oro har. Aldea esanguratsua da bai gune soziolinguistikoaren arabera bai adinaren arabera: 4. gune soziolinguistikoan bizi diren herritarren %58k erabiltzen du nagusiki euskara, eta 16 eta 24 urtekoen %16k.


Euskara gutxien Estatuko Administrazioaren menpeko erakundeetan (Gizarte Segurantzán, INEMen, NAN ateratzeko bulegoetan...) erabiltzen da. Egia da, halere, urterik urte gora egiten ari dela euskara erabiltzen dutenen ehunekoa.

Euskara nagusiki erabiltzen dutenak 16 urtetik gorako herritarren %6 dira eta euskara gaztelania beste %3.

**36. irudia.** Euskararen erabilera eremu formalean. EAE, 2006 (%)



**37. irudia.** Elebidunen euskararen erabilera eremu formalean. EAE, 2006 (%)




## 6. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrerak

EAEko 16 urtetik gorako biztanleen ia bi heren (%64,7) euskararen erabilera sustatzearen alde dago. Aldeko jarrera handiagoa da elebidunen artean (%89,3) euskararik ez dakitenen artean baino (%50,8)

Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera eza-gutzeko, EAEko 16 urte edo gehiagoko biztanleek hainbat esparrutan euskara sustatzearen alde edo kontra erakutsi duten iritziaren araberako tipologia eratu du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak.

EAEko 16 urtetik gortako biztanleen %64,7 euskararen erabilera sustatzearen alde daude, %24 ez alde ez aurka eta %11,2 aurka daude.

38. irudia. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrerak. EAE, 2006 (%)



Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritz, 2006.


Euskara sustatzearen aldeko jarrera handiagoa da Gipuzkoan (%76,3), Bizkaian (%62,5) eta Araban (%47,2) baino.

**13. taula.** Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrerak lurraldeka. EAE, 2006 (%)

Jarrerak	16 urte edo gehiagoko biztanleria			
	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Aldekoa edo oso aldekoa	<b>64,7</b>	47,2	62,5	76,3
Ez alde, ez aurka	<b>24,0</b>	30,4	25,8	18,2
Aurkakoa edo oso aurkakoa	<b>11,2</b>	22,3	11,7	5,5

**Iturria:** IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.


**39. irudia.** Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrerak lurraldeka. EAE, 2006 (%)



Oharra: zirkuluen tamaina lurralde bakoitzeko biztanleriaren arabera da.

**Iturria:** IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.





Azken 15 urteotan izan da gorabeherarik euskararekiko jarrerari buruzko emaitzetan. Aurkako jarrera adierazi dutenen ehunekoa, esaterako, bi puntu eskaseko aldea dago orain arte egin diren lau inkesta soziolinguistikoen artean. Gorabeherak handiagoak dira alde eta ez alde ez aurka dauden artean, eta ziu-rrerik gure gizarteak bizi izan dituen une, batzuetan, latzagoekin eta, beste batzuetan, gozagoekin dute zerikusia. Euskararen aldeko ehunekorik txikiena 1996koa izan zen (%52) eta handiena 2006koa (%64,7).

Euskararekiko jarrerak lotura handia du hizkuntza-gaitasunarekin. Izan ere, euskararen erabilera sustatzearen alde elebidunen %89,3 daude, elebidun hartzaileen %63,7 eta erdaldun elebakarren %50,8.

Elebidunen artean 10etik bat ez dago ez alde ez aurka eta %1 aurka dago. Elebidun hartzaileen eta erdaldun elebakarren artean, herena baino gutxiago dira ez aldeko ez kontrako jarrera adierazten dutenak (%26,3 eta %31,6 hurrenez hurren). Azkenik, aurka daudenak %10 dira elebidun hartzaileen artean eta %17,6 erdaldun elebakarren artean.

Adinari dagokionez, 65 urtetik gorakoekin artean daude gehienbat euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrera erakusten dutenak (%71,4). Gainerako adin-taldeetan alde daudenak bi heren baino zertxobait gutxiago dira. Ez alde ez kontra dauden proportzioa oso antzekoa da adin-talde guztietan (laurdena baino zertxobait gutxiago). Hortaz, aurka daudenak %6,5 dira zaharrenean artean eta %12 eta %15 inguru gainerako adin-talde guztietan.

EAEko 16 urtetik gorako biztanle gehienei ezinbestekoa irizten zaie hurrek euskara ikastea (%82ri) eta Administrazioan sartzeko euskaraz jakitea (%75i).

Hurrek euskara ikasteari dagokionez, ia ez dago alderik elebitasun-motaren arabera. Adinaren arabera, aldiz, nahiz eta alde dauden ehunekoa handia izan adin-talde guztietan, zenbat eta gazteagoa izan orduan eta txikiagoa da alde dauden ehunekoa.

Administrazioan sartzeko euskara jakin behar izateari dagokionez, kontrako jokabidea ageri da. Hau da, adinaren arabera dauden aldeak oso txikiak dira, baina elebitasun-motaren arabera, alde daude ia elebidun guztiak (%94), lau elebidun hartzailetik hiru (%73) eta erdaldun elebakarren bi heren (%65).

Bestalde, EAEko 16 urtetik gorako biztanleen erdia (%54) hedabideetan euskararen erabilera sustatzearen alde dago. Iritzi honen aurrean, elebitasun-motak eragin handia du. Izan ere, elebidunen artean alde daudenak %80 dira, baina erdaldun elebakarren artean %39. Adinari dagokionez, aldekoagoak dira gazteak helduak eta zaharrak baino.


Euskarari buruz dauden aurreiritzi batzuek gure gizartean zenbateraino dauden erroturik ezagutu nahian, inkestatuei iritzia eskatu zaie. Laburbilduz, emaitzak honakoak dira:

**EAEko biztanle gehienek uste dute gizartean bi hizkuntza izateak ez duela arazorik sortzen**

- EAEko 16 urtetik gorako biztanleen artean nagusi dira (%44) euskarak inoiz gaztelaniak duen indarra izango duela uste dutenak. Egia da, halere, badela biztanleriaren zati handi bat (%33) kontrakoa uste duena, hau da, euskarak ez duela inoiz gaztelaniak duen indarra izango.
- Hizkuntzaren aberastasunari dagokionez, biztanleen erdiak baino gehiagok (%52k) uste du euskara gaztelania bezain aberatsa dela, eta gutxi dira (%15) kontrakoa uste dutenak.
- Gizartean bi hizkuntza egoteak ez du arazorik sortzen biztanleen %77rentzat eta arazo iturri izan daiteke %19rentzat.
- Azkenik, biztanle gehienek (%84k) uste dute ez dela txarra gaztelania ondo menperatu ez arren, haur txikiei eskolan euskara irakastea.

Euskarari buruzko iritzietan ez dago alde esanguratsurik lurraldearen edo elebitasun-motaren arabera. Alderik nabarmenenak adinaren arabekoak dira. Oro har, 35 urtetik beherakoen iritzia zaharragoena baino baikorragoa da euskararen aberastasunari, gizartean arazoen iturri ez izateari edo umeak murgiltze programetan sartzeko komenentziari dagokionez, baina ezkorragoa inoiz gaztelaniak duen indarra izateko aukerari dagokionez.

Euskarari buruzko bestelako iritzi batzuekin jarraituz, EAEko 16 urtetik gorako biztanleen %63k seme-alabek D ereduari ikas dezaten nahi dute eta %30ek B ereduari. Lurraldearen arabera, Bizkaian eta Gipuzkoan argia da D ereduaren alde egiten dutenen nagusitasuna (%66 eta %68 hurrenez hurren). Araban, aldiz, pare-parean daude D eta B ereduaren alde egiten dutenak (%45na).


**40. irudia.** Seme-alaben ikastereduei buruzko iritziak. EAE, 2006 (%)


Elebitasun-motaren arabera ere aldeak nabariak dira: elebidunen %88k D ereduaren alde egiten du eta %11k B ereduaren alde, elebidun hartzaileen artean ehunekoak %66 eta %30 dira hurrenez hurren, eta erdaldun elebatarren artean %48 eta %42.


Bestalde, 16 urtetik gorako biztanleen %84k etorkizunean euskaraz eta gaztelaniaz hitz egin beharko litzatekeela uste dute eta %13k euskara hutsean. Elebidunen artean euskaraz eta gaztelaniaz hitz egin beharko litzatekeela uste dutenen eta euskara hutsean hitz egin beharko litzatekeela uste dutenen arteko aldea txikiagoa bada ere (%73 eta %26 hurrenez hurren), argi eta garbi egiten dute bi hizkuntzen alde.





## 7. Ondorioak





- Euskal gizarteak bi ezaugarri esanguratsu ditu: batetik, gero eta zaharra-  
goa da eta, bestetik, atzerritik datozen etorkinen hazkundera handia izan da  
azken urteotan. EAeko biztanleen laurdenak 60urte baino gehiago ditu eta  
20 urtetik beherakoak %17 baino ez dira. Etorkinei dagokienez, berriz,  
EAeko biztanleen %5 dira gaur egun.
- 16 urte edo gehiagoko biztanleen %30,1 elebiduna da, %18,3 elebidun har-  
tzailea eta %51,5 erdaldun elebakarra. EAeko elebidunak etengabe ari dira  
gora egiten. Gaur egun, 557.600 elebidun daude, 1991n baino 138.400  
gehiago.
- Elebidunen ehunekorik handiena gazteen artean dago gaur egun: 16 eta  
24 urteko gazteen %57,5 elebiduna da, hau da, 1991ko ehunekoaren  
bikoitza. Halere, gazteen pisua biztanleria osoarekiko txikia denez, elebi-  
dunen hazkundera ez du oraindik behar besteko isla biztanleria osoko  
emaitzetan.
- Hamar elebidunetik zazpi euskaldun zaharrak dira, hau da, etxean jaso  
dute euskara. Baina adinak behera egin ahala gero eta handiagoa da eus-  
kaldun berrien ehunekoak. Izan ere, 16 eta 24 urtekoen artean hiru elebidu-  
netik batek etxetik kanpo ikasi du euskara (eskolan gehienbat).
- Euskararen irabaziak (euskaldun berriak) galerak halako hiru dira EAEn.  
Irabazien hazkundera eta galeren ia desagertzea gazteen artean antzema-  
ten da bereziki.
- Lehen hizkuntzak lotura zuzena du hizkuntza batean lortzen den errazta-  
sunarekin. Gaur egun, elebidunen ia herena hobeto moldatzen da euska-  
raz gaztelaniaz baino, baina proportzio hori bostena baino ez da gazteen  
artean.
- Gaur egun, aita eta ama elebidunak direnean, euskararen transmisioa ziur-  
tatuta dago ia %100ean. 25 urtetik beherako seme-alabak dituzten bikoteak  
aztertuz gero, gurasoak elebidunak direnean seme-alaben %99k euskara  
jasotzen dute etxean, horietako gehienek gainera (10etik bederatzik baino  
gehiagok) euskara bakarrik. Bikote mistoetan, hiru seme-alabetatik bik  
baino gehiagok jasotzen dute euskara etxean, gehienek gaztelaniarekin  
batera.

- Erabilerari dagokionez, euskararen presentzia, apurka-apurka, gero eta handiagoa da gure gizartean. Hazkunde hori, oro har, erabilera-eremu guztietan gertatzen ari da eta bereziki erabilera-eremu formaletan. 1991n, EAEko biztanleen %15,3 ziren euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzen zutenak. 15 urte beranduago, 2006an %18,6 dira. Euskararen erabilerak adin-talde guztietan egin du gora, 65 urte baino gehiago dituztenen artean izan ezik, eta bereziki adierazgarria izan da gazteen artean.
- Halere, elebidunak bakarrik kontuan hartuz gero, euskararen erabilerak ia ez du aldaketarik izan azken 15 urteotan (1991n, euskara gaztelania beste edo gehiago elebidunen %61,2k erabiltzen zuten eta 2006an %63,4k erabiltzen dute). Gorabeherak, beraz, oso txikiak izan dira, batez ere gazteen artean.
- Horren zergatia erabileran eragiten duten faktore nagusietan (erraztasunean eta harreman-sarean) bilatu behar da. Elebidunen artean, bereziki elebidun gazteen artean, gero eta gehiago dira etxetik kanpo euskara ikasi dutenak (16 eta 24 urte arteko gazteen %32,3). Horietako gehienak erdal elebidunak dira, hau da, erraztasun handiagoa dute gaztelaniaz euskaraz baino. Gainera, hirigune erdaldunetan bizi dira eta familia-giroa zein gertuko komunitatea oso erdaldunak dituzte gehienetan. Hortaz, eremu formaletan zein informaletan aukera gutxi dute normaltasunez euskaraz aritzeko.
- Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarreretan gorabeherak izan dira azken 15 urteotan. Gaur egun, biztanleen ia bi heren (%64,7) dago euskararen erabilera sustatzearen alde, 1991n baino ia 10 puntu gehiago. Biztanle gehienei ezinbestekoa irizten zaie hurrek euskara ikastea (%82ri) eta Administrazioan sartzeko euskaraz jakitea (%75i). Halaber, %77k uste dute bi hizkuntza izateak ez duela arazorik sortzen.



**I P A R R A L D E A**  
IV. Inkesta Soziolinguistikoa





Max BRISSON  
Euskararen Erakunde  
Publikoko presidentea



## IV. Inkesta Soziolinguistikoaren emaitzak Iparraldean: egoera larria baina itxaropenerako keinu batzuk

“Euskararen aldeko politika publiko baten zehaztea eta obratzea”.

**H**auxe da Euskararen Erakunde Publikoari eman eginkizuna, Interes Publikoko Elkargo gisa sortzen delarik 2004ko abenduan, bere baitan elkartzen dituela Frantses Estatuak, Akitania Eskualdeko Kontseilua, Pirineo-Atlantikoetako Departamendua, euskal kultura sustengatzen duen herrien arteko Sindikatua eta Euskal Herriko Hautetsien Kontseilua.

Egitura juridiko horren sortzea ezinbestekoa zen ekimen publiko eraginkorrek aurrera eramateko. Geroztik, erakundeak hizkuntza-politika proiektu bat finkatu du heldu diren urteentzat euskararen bultzatzeko eta garatzeko arloan, botere publikoen ekintzak arautuko dituen eta helburu nagusi baten inguruan: “Oinarrizko helburua: hiztun osoak, eta lehentasuna: haur eta gazteak”.

Hizkuntza-politika proiektu horren finkatzeko eta gauzatzeko, Euskararen Erakunde Publikoak partaidetza estu eta azkarra eratu nahi izan du Euskal Autonomia Erkidegoarekin (EAE).



Euskadin lehenagotik hasi izana, bildutako esperientzia, sortutako tresnen aniztasuna eta profesionaltasuna,... baliozko ereduak dira EEP-rentzat, Iparraldeari egokitua zaion euskararen aldeko hizkuntza-politika bat finkatzen laguntzeko.

Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoa horren erakusgarri da. Horrelako tresnak ezinbestekoak dira egoera soziolinguistiko bat zehazki ezagutzeko, daramaten politiken emaitzak ebaluatzeko eta gizartearen eragile guziekin azterketa hori partekatzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoak 1991, 1996 eta 2001 urteetan antolatutako hiru inkestek jadanik aztertzen zuten Iparraldearen egoera.

2006ko inkesta elkarrekin antolatzea urrats garrantzitsua da: Euskal Kultur Erakundearekin lehenago finkatutako partaidetzari segida emanez, lehen aldiko, mugaz bi aldeetako botere publikoek ekintza komun bat elkarrekin gauzatu dute. EAE-k lan honen obragintza bere gain hartu du, Euskal Herri osorako. Iparraldeari dagokionez, EEP-k, lagina finkatzeko ardura INSEE erakundeari eman dio eta, inkesta egiteko aukeratua izan den entrepresarako (SIADeco), finkatutako kargu-txostena errespetatu (galdetzaileak, egoitza, materiala...) ahal izateko lan-baldintzak segurtatuak zirela zaindu du.


Bestalde, EEP-k ekarpen bat egin du, inkestaren beste urrats batzuetan: txostenen idazketa eta itzulpenak, emaitzen zabalkuntza...

2006ko Inkesta Soziolinguistikokoaren emaitzek, aurreko hiru inkestek jadanik agerian utzi zituzten joera nagusiak berresten dituzte: elebidunen beherakadak jarraitzen du, bai kopuruaren aldetik, bai eta ere ehunekoaren aldetik. Datozen urteetan, badaude bi datu demografiko nagusi eragina izango dutenak, beherakada horrek jarraituko duela pentsatzeko:

- Iparraldeko jendetzak azkarki hazten jarraitzen du, Iparraldera bizitzera etortzen den kanpoko jendearen ondorioz.
- Elebidunen herena 65 urtetik gorakoa da.

Laugarren inkesta honek frogatzen du joera-aldaketa bat posible dela.

Aurreko inkestak erakusten zuen beherakada gelditu egiten zela adin-tarte gazteenetan. 2006an, itxaropen hori gauzatzen da, eta hainbat adierazle berriz goiti doaz lehen aldiko: hizkuntza-gaitasunaren ehunekoa gora egiten hasi da, baita erabilerarena ere, transmisioa hobetu egin da, hiztunen irabaziak galerak baino handiagoak dira ... Joera-aldaketa hori bereziki azpimarratzekoa da Lapurdiko eskualdetan (kostaldean eta Lapurdi barnealdean; eskualde jendetsuenak). Gainera, joera berri hau euskararen aldeko jarrera baikor batzuetan oinarritzen da: euskararen irakaskuntzako arloan, euskararen presentzia garatzeko hedabideetan edo zerbitzu publikoetan.






Inkestako emaitzak jakin aitzin, EEP-k, haur eta gazteak hizkuntza-politika proiektuaren lehentasun nagusi bezala oinarritzat hartzea erabaki zuen.

Emaitzek argiki erakusten dute urrats eta hautu horiek egokiak direla, eta euskararen egoera Iparraldean larria dela baina beherakada ez dela ezinbestekoa.

Emaitza horiek gureganatu behar ditugu eta horietan oinarritu behar gara, gure indarrak azkartzeko, euskararen berpizte-prozesu honetan parte hartzen dutenen motibazioa eta ekintzak sendotzeko eta, euskararen beharrezko garapena eta bakoitzaren hautu librea errespetatzen dituen orekak gizarte osoarekin finkatzeko.

Gure EAEko partaideak bihotz-bihotzetik eskertu nahi ditut IV. Inkesta Soziolinguistiko hau antolatzeagatik, lan honetan parte hartzeko hautua EEP-k hartu zuelarik. Esperientzia honek 2011. urtean egingo den bosgarren inkesta antolatzeko gogoia ematen digu, baina are gehiago, gogoia eman behar digu, 2011ko emaitzek eta ondoko urtekoek, sortutako itzaropena errealitatea bilakatu dela erakuts dezatela.





## 1. Hizkuntza-gaitasuna

### 1.1. BIZTANLERIA HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERA



Iparraldean 16 urte edo gehiagoko 230.200 pertsona bizi dira 2006ko datuen arabera. Horietatik 51.800 lagun (%22,5) elebidunak dira, hau da, ondo moldatzen dira euskaraz eta frantsesez. Era berean, 19.800 elebidun hartzaileak (%8,6) dira, nahiz eta euskaraz ondo mintzatu ez, ondo ulertzeko gai dira. Gainerako guztiak, hau da, 158.600 pertsona (%68,9) erdaldun elebakarrak dira, hau da, ez dakite euskaraz.

Iparraldeko biztanleen %22,5 da elebiduna, %8,6 elebidun hartzailea eta %68,9 erdaldun elebakarra

1. taula. 16 urte edo gehiagoko biztanleria eskualdearen eta adinaren arabera. Iparraldea, 2006

Adin-taldeak	16 urte edo gehiagoko biztanleria			
	Iparraldea	BAM	Lapurdi Barnealdea	Nafarroa Beherea eta Zuberoa
≥ 65	<b>59.600</b>	27.800	21.800	10.000
50-64	<b>51.500</b>	21.600	22.900	7.000
35-49	<b>59.000</b>	25.100	26.100	7.800
25-34	<b>31.000</b>	14.700	12.100	4.200
16-24	<b>29.100</b>	11.700	13.600	3.800
<b>Guztira</b>	<b>230.200</b>	<b>100.900</b>	<b>96.500</b>	<b>32.800</b>

Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.


**1. irudia. Hizkuntza-gaitasuna. Iparraldea, 2006 (%)**



Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritz, 2006.

Azken hamar urte hauetan, Iparraldean 16 urte edo gehiagoko biztanleria hazi egin da (18.000 biztanle baino gehiago). Era berean, elebidunen kopurua gutxitu egin da eta horren ondorioz, baita ehunekoa ere. 1996ko inkestaren arabera, %26,4 elebidunak ziren; 2006an %22,5era jaitsi dira.

**2. taula. Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera. Iparraldea, 1996-2006 (%)**

Hizkuntza-gaitasuna	16 urte edo gehiagoko biztanleriaren elebidunen ehunekoa		
	1996	2001	2006
Elebidunak	26,4	24,8	22,5
Elebidun hartzaileak	9,3	11,7	8,6
Erdaldun elebakarrak	64,2	63,5	68,9
<b>Guztira</b>	<b>212.400</b>	<b>221.600</b>	<b>230.200</b>


Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritz, 2006.



Datuak eskualdeen arabera aztertuz gero, ikus daiteke desberdintasun handiak daudela batetik bestera. Nafarroa Beherea eta Zuberoa dira elebidunen ehunekorik handiena dutenak, %55,5 baitira elebidunak, 18.200 pertsona, alegia. Kopuruari erreparaturaz, Iparraldeko elebidun gehienak Lapurdi barnealdean bizi direla ondoriozta daiteke, 24.700 lagun baitira elebidunak, hau da, %25,6. Nahiz eta eskualderik populatuena izan, Lapurdiko BAM (Baiona-Angelu-Miarritze) eskualdea da Iparraldeko elebidunen ehunekorik zein kopururik txikiena duena. Izan ere, %8,8 dira elebidunak, 8.800 pertsona guztira.

Lehenago esan bezala, aurreko urteetako datuekin alderatuz, ikus daiteke Iparraldean 16 urte edo gehiagoko biztanleria gora egiten ari dela etengabe, batez ere, Lapurdin, bai barnealdean eta baita BAMen ere. Ez da gauza bera gertatzen ari elebidunen ehunekoarekin. Horrela, aurreko urteetako joerari jarraituz, BAMen, Lapurdi Barnealdean, Nafarroa Beherean eta Zuberoan oro har elebidunen ehunekoak behera egiten jarraitzen du.

2. irudia. Hizkuntza-gaitasuna eskualdearen arabera. Iparralde, 2006 (%)



Oharra: zirkuluen tamaina eskualde bakoitzeko biztanleriaren arabera da.

Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

3. taula. Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera eskualdearen arabera. Iparralde, 1996-2006 (%)

	16 urte edo gehiagoko biztanleria			
	Hizkuntza-gaitasuna	1996	2001	2006
<b>BAM</b>	<i>Elebidunak</i>	9,1	8,8	8,8
	<i>Elebidun hartzaileak</i>	3,9	8,3	5,4
	<i>Erdaldun elebakarrak</i>	87,0	82,9	85,8
<b>Lapurdi Barnealdea</b>	<i>Elebidunak</i>	31,0	28,5	25,6
	<i>Elebidun hartzaileak</i>	13,9	14,5	11,3
	<i>Erdaldun elebakarrak</i>	55,0	57,1	63,1
<b>Nafarroa Beherea eta Zuberoa</b>	<i>Elebidunak</i>	64,0	60,9	55,5
	<i>Elebidun hartzaileak</i>	12,3	15,1	10,7
	<i>Erdaldun elebakarrak</i>	23,7	24,0	33,8


Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

## 1.2. HIZKUNTZA-GAITASUNA, ADINAREN ARABERA

**Elebidunen ehuneko orokorrak behera egin arren, gora egiten hasi da 16-24 urtekoen artean**

Elebidunen ehunekorik handiena 65 urte edo gehiagokoan artean dago, eta adinean behera egin ahala, elebidunen ehunekoa behera doa etengabe, gazteenen adin tartera iritsi arte, multzo horretan joera aldatu egiten baita. Azpimarratzekoa da 16-24 urte arteko elebidunen ehunekoa 25-34 urte artekoena baino ia bost puntuz handiagoa dela.

Arestian esan bezala, elebidunen beherakada ez da berdin gertatzen adin-talde guztietan. Gainera gazteenen artean jaitsi ordeztu da, aurreko adin multzoarekin alderatuz. Elebidun gutxi 25-34 urtekoen artean dago (%11,6) eta gehien aldiz 65 urte edo gehiagokoan artean (%32,4). Dena dela daturik azpima-

**3. irudia.** Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. Iparraldea, 2006 (%)


Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

rragarriena, 16 eta 24 urtekoen artean elebidunen ehunekoa da, %16,1koa baita. Horrek esan nahi du gazteen aldetik azken urteotako beheranzko joera apurtu egin dela eta goranzko bideari ekin zaiola.

Elebidun hartzaileen ehunekorik handiena 16-50 urte artekoen artean dago, eta %10 ingurukoa da. Halaber, 50 urte baino gehiago dituztenen artean elebidun hartzaileen ehunekoa jaitsi egiten da. Esate baterako, %5,9koa da elebidun hartzaileen ehunekoa 50-64 urtekoen artean, eta %8,1koa 65 urte edo gehiagokoan artean.

Erdaldun elebarrak dagokienez, ehunekorik handiena 25-35 urte artekoen artean dago (%77,9) eta txikiena, aldiz, 65 urte edo gehiago dituztenen artean (%59,5). Azpimarratzekoa da aurreko adin taldearekin alderatuz, 16-24 urtekoen arteko erdaldun elebarraren proportzioak behera egiten duela ia lau puntuz, %74,2koa baita.






**4. taula.** Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. Iparraldea, 2006 (%)

Adin-taldeak	16 urte edo gehiagoko biztanleria		
	Elebidunak	Elebidun hartzaileak	Erdaldun elebakarrak
≥ 65	32,4	8,1	59,5
50-64	26,8	5,9	67,4
35-49	17,5	10,1	72,4
25-34	11,6	10,4	77,9
16-24	16,1	9,6	74,2
<b>Iparraldea</b>	<b>22,5</b>	<b>8,6</b>	<b>68,9</b>

Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

**4. irudia.** Elebidunen bilakaera adinaren arabera. Iparraldea, 1996-2006 (%)




Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

Aurreko hiru inkestetan, elebidunen ehunekoa beheraka zihoan etengabe. Dena dela, 2001eko inkestan beherakada moteltzen hasita zegoen. 2006ko inkestan, lehen aldiz, adin-tarteen arteko beherakada eten egin da eta elebidunen ehunekoak eta kopuruak gora egin dute 16-24 urte arteko gazteen artean.

Aipatu ditugun datu horiek badute desberdintasunik eremuen arabera. BAM eta Lapurdi barnealdeko datuak oro har bat datozen bitartean, Nafarroa Beherean eta Zuberoan ez, euskara beherantz baitoa oraindik gazteenen artean. Ikus ditzagun banan-banan.

**5. irudia.** Hizkuntza-gaitasuna eskualdearen eta adinaren arabera. Iparraldea, 2006 (%)



Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jauriaritza, 2006.

## BAM

Elebidunak %12 inguru dira 50 urte edo gehiagokoen artean. 50 urtetik behera, aldiz, ehuneko gutxi egiten da adinak behera egin ahala: 49 eta 35 urtekoen artean %6,6koa da, 34 eta 25 urtekoen artean, berriz, %2,8koa baino ez da. Dena dela, 24 eta 16 urtekoen artean %6,5ekoa denez, beheranzko joera eten egin da eta berriro gorantz doa. Azken bi adin multzoen arteko datuak konparatuz, elebidunen ehunekoak eta baita kopuruak ere hazkunde nabarmena izan dutela esan daiteke.

Bestalde, elebidun hartzaileen ehuneko elebidunena baino handiagoa da 16-34 urtekoen artean BAMen, batez ere 16-24 urtekoen artean. Adin multzo horretan portzentajea %8koa denez, elebidun hartzaileen ehunekorik altuena du. Aipagarria da 35 urtetik gorako ehuneko ez dela %6ra ere iristen, Iparraldeko gainerrako eskualdeetan ez bezala.

Erdaldun elebakarrak asko dira adin talde guztietan (%80tik gora), baina gehien 25-34 urte artekoetan (%91).

Hortaz, 16 eta 24 urte bitarteko datuak ikusita, aurreikus daiteke gero eta gazte elebidun eta elebidun hartzaile gehiago izango dela BAMen, nahiz eta gutxiengo txikia diren oraindik.


5. taula. Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. BAM, 2006 (%)

Adin-taldeak	16 urte edo gehiagoko biztanleria		
	Elebidunak	Elebidun hartzaileak	Erdaldun elebakarrak
≥ 65	11,8	5,8	82,4
50-64	12,7	3,5	83,8
35-49	6,6	4,8	88,6
25-34	2,8	6,2	91,0
16-24	6,5	8,0	85,5
<b>BAM</b>	<b>8,8</b>	<b>5,4</b>	<b>85,8</b>

Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

Aurreko inkestetan agertzen ziren joekin alderatuz, ikus daiteke 2001eko inkestan agertzen zen joera aldaketarekin bat datorrela eta azkartu egin dela gazteen artean.

6. irudia. Elebidunen bilakaera adinaren arabera. BAM, 1996-2006 (%)



## LAPURDI BARNEALDEA

Iparralde osoan bezala, Lapurdi barnealdean ere elebidunen ehunekorik handiena 65 urte edo gehiagokoen artean dago, eta ia %40koa da (%39,1). Adinean behera egin ahala nabarmen jaisten doa ehunekoa eta elebidun gutxien 25 eta 34 urtekoen artean dago, %14,6 hain zuzen ere. Dena dela, BAMen bezala, ehunekoa igo egiten da berriro, nahiko nabarmen gainera, 16 eta 24 urtekoen artean, eta adin tarte horretan elebidunak %20,6 dira, eta 25-34 zein 35-49 urtekoen arteko ehunekoak gainditzen ditu.

Elebidun hartzaileak %10 pasatxo dira adin talde guztietan, 50-64 urtekoen artean izan ezik (%8,2). Ehunekorik handiena 35-49 urte bitartekoaren artean dago (%13,8).

65 urte edo gehiagokoen artean baino ez dira erdaldun elebakarrak erdia baino gutxiago. Gainerako taldeetan %60 baino gehiago dira erdaldun elebakarrak eta 25 eta 34 urte bitartekoaren artean %72,5 dira. BAMen bezala, Lapurdi barnealdeko erdaldun elebakarren ehunekorik handiena adin multzo honetan dago, gazteagoen artean ia hiru puntuz jaisten da erdaldun elebakarren proportzioa.


**6. taula.** Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. Lapurdi barnealdea, 2006 (%)

Adin-taldeak	16 urte edo gehiagoko biztanleria		
	Elebidunak	Elebidun hartzaileak	Erdaldun elebakarrak
≥ 65	39,1	11,3	49,6
50-64	29,8	8,2	62,0
35-49	18,3	13,8	67,9
25-34	14,6	12,9	72,5
16-24	20,6	10,1	69,3
<b>Lapurdi barnealdea</b>	<b>25,6</b>	<b>11,3</b>	<b>63,1</b>

**Iturria:** IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritz, 2006.

Aurreko inkestetan agertzen ziren joerekin alderatuz, ikus daiteke 2001eko inkestan agertzen zen joera aldaketarekin bat egin eta azkartu egin dela gazteen artean.

7. irudia. Elebidunen bilakaera adinaren arabera. Lapurdi barnealdea, 1996-2006 (%)



Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

## NAFARROA BEHEREA ETA ZUBEROA

Nafarroa Beherean eta Zuberoan ere elebidunen ehunekoak behera egiten du nabarmen adinean jaitsi ahala, baina Lapurdin ez bezala, badirudi oraindik ez dela amaitu eta gazteen artean ere jaisten jarraitzen du, motelago bada ere. Elebidunen ehunekoan alde handiak daude nagusienetik gazteenetara, %75ekoa baita 65 urte edo gehiagoko elebidunen ehunekoa eta %30ekoa soilik 16 eta 24 urte dituztenena.

Adinean behera egin ahala, elebidun hartzaileak ugaritu egiten dira. Esate baterako %14,4 elebidun hartzaile dago 35 eta 49 urteko adin multzoan eta %18,1 hurrengo adin-taldean (25-34 urte). Bestalde, adinean aurrera egin ahala nabarmen jaisten da elebidun hartzaileen proportzioa, eta 50-64 urtekoen %5,2koa baino ez da.

Erdaldun elebakarren ehunekorik handiena gazteen artean dago. 16 eta 24 urte bitarteko gazteen %57 erdaldun elebakarrak dira. 65 urte edo gehiago dituztenen artean, aldiz, oso gutxi dira erdaldun elebakarrak, %17,3 baino ez. Adinean behera egin ahala, erdaldun elebakarren ehunekoak gora egiten du etengabe.


**7. taula.** Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. Nafarroa Beherea eta Zuberoa, 2006 (%)

Adin-taldeak	16 urte edo gehiagoko biztanleria		
	Elebidunak	Elebidun hartzaileak	Erdaldun elebakarrak
≥ 65	75,1	7,6	17,3
50-64	60,1	5,2	34,7
35-49	50,1	14,4	35,5
25-34	34,2	18,1	47,7
16-24	30,0	13,0	57,0
<b>Nafarroa Beherea eta Zuberoa</b>	<b>55,5</b>	<b>10,7</b>	<b>33,8</b>

**Iturria:** IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritz, 2006.

Aurreko inkestetan agertzen ziren joerekin alderatuz, ikus daiteke elebidunen ehunekoak behera egiten jarraitzen duela adina jaitsi ahala Nafarroa Beherean eta Zuberoan.

**8. irudia.** Elebidunen bilakaera adinaren arabera. Nafarroa Beherea eta Zuberoa, 1996-2006 (%)



Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

Inkestan ikusten denez, elebidunen ehunekoak arin eta etengabe egin du behera adinarekin batera Iparraldean oro har, 16 eta 24 urte bitarteko gazteetara iritsi arte. Dena dela, beherakada horiek ez dira berdin gertatu Lapurdin eta Nafarroa Beherean eta Zuberoan. Izan ere, BAMen zein Lapurdi barnealdean elebidunen ehunekoa igotzen ari da gazteenen artean, baina Nafarroa Beherean eta Zuberoan, moteldu egin bada ere, beherakadak aurrera darrai.



### 1.3. TALDEEN EZAUGARRIAK HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERA

Hizkuntza-gaitasunaren tipologia osatzen duten hiru taldeetako bakoitzaren (elebidunen, elebidun hartzaileen eta erdaldun elebakarren) ezaugarriak ikusiko ditugu jarraian.

Elebidunen ezaugarriak honakoak dira:

- Iparraldean jaio dira, gurasoak bertakoak dituzte eta euskara izan da euren lehen hizkuntza.
- Gehienen familia eta lagunartea euskaldunak dira ia osorik, baina ez lan-giroa.
- %70 inguru 6.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan bizi dira.
- Erdia baino gehiago 50 urtetik gorakoak dira, eta elebidun guztietatik herena 65 urte edo gehiagokoak.
- Edadetuak izanik, euren ikasketa-maila batez bestekoaren azpitik dago.
- Euskararekiko interes handia dute eta euskara sustatzearen alde daude.

Elebidun hartzaileen ezaugarriak, aldiz, beste hauek dira:

- Iparraldean jaioak dira, erdia baino gehiago Lapurdi barnealdean eta ia erdiek euskara izan dute lehen hizkuntza.
- Euskaldunagoa dute lagunartea familia eta lan-giroa baino.
- %40 euskara ikasten ari dira edo ikasten ibilitakoak dira.
- Gehienek euskararekiko interesa dute eta euskara sustatzearen alde daude.

Azkenik, erdaldun elebakarrak honelakoak dira:

- Hiru laurden etorkinak edo etorkinen seme-alabak dira eta frantsesa izan dute lehen hizkuntza.
- Familia, lagunarte eta lan-giro erdalduna dute.
- Erdia baino gehiago BAMen bizi dira.
- Gehienek badute euskarari buruzko interesik. Bestalde, erdiek ez dute euskara sustatzearen ez aurkako ez aldeko jarrerarik, laurden bat sustatzearen alde daude eta gainerako laurdena, berriz, aurka.

#### 1.4. HIZKUNTZA-GAITASUN ERLATIBOA



Elebidunak hiru multzotan banatu ditzakegu, euskaraz edo frantsesez hitz egiteko daukaten erraztasun handiagoaren edo txikiagoaren arabera.

**Euskal elebidunak** errazago moldatzen dira euskaraz frantsesez baino. Elebidunen %24,7 eta Iparraldeko biztanleen %5,5 dira. Euskal elebidunen ehunekorik handiena 65 urte edo gehiagokoen artean dago (%39,7), eta adinak behera egin ahala, behera egiten du ehuneko horrek. 25 urtetik beherako gazte elebidunen artean euskaraz hobeto moldatzen direnak %12,8 dira. Ehuneko horrek apurka-apurka behera egin du azken hamar urteotan, 1996an euskal elebidunen ehunekoa %32,2koa baitzen. Bestalde, ia guztien lehen hizkuntza euskara izan da eta gun euskaldunetan eta biztanle gutxiko udalerrietan bizi dira, nagusiki Nafarroa Beherean eta Zuberoan.

**Elebidunen erdia berdin moldatzen da euskaraz eta frantsesez. Laurdena, aldiz, hobeto moldatzen da frantsesez euskaraz baino, eta beste laurdena, alderantziz**

**Elebidun orekatuak**, aldiz, berdin moldatzen dira euskaraz eta frantsesez. Elebidunen multzorik handiena dira, hau da, %50,8, Iparraldeko biztanleen %11,4 gutzira. Elebidun orekatuen proportziorik handiena 25 eta 64 urte bitartekoen artean dago, elebidunen erdia baino gehiago hain zuzen ere. Elebidun orekatu gehienak Nafarroa Beherean eta Zuberoan eta Lapurdi Barnealdean bizi dira. Ia guztien lehen hizkuntza euskara izan da.

**Erdal elebidunak** hobeto moldatzen dira frantsesez euskaraz baino. Elebidunen %24,6 eta Iparraldeko biztanleen %5,5 dira. Erdal elebidunen ehunekoa handiagoa da adinak behera egin ahala. Horrela, 16 eta 24 urteko gazte elebidunen %42,2k errazago hitz egiten du frantsesez euskaraz baino. Erdal elebidun gehienak Lapurdin bizi dira, BAMen zein barnealdean. Lehen hizkuntzari dagokionez, gehienek euskara izan dute lehen hizkuntza eta gutxi batzuek frantsesa.


**9. irudia.** Elebitasun-mota (*elebidunak*). Iparraldea, 2006 (%)



**Iturria:** IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

Emaitzak eskualdeka aztertuz gero, esan daiteke badagoela alderik batetik bestera.


BAMen %44,8 elebidun orekatuak dira. Frantsesez errazago moldatzen diren elebidunak, ordea, %38,1 dira. Gutxiengoa dira euskaraz frantsesez baino hobeto moldatzen direnak, hau da, %17,1.

Lapurdi barnealdean elebidun orekatuen proportzioa da handiena, %50,8koa baita. Bestalde, %26,9 frantsesez euskaraz baino hobeto moldatzen dira eta gutxiengoa dira euskaraz errazago moldatzen direnak, %22,3 baitira.

Nafarroa Beherean eta Zuberoan, Lapurdi barnealdean bezala, elebidun orekatuen ehunekoa ere handiena izan arren (%53,7), euskaraz frantsesez baino hobeto moldatzen direnak %31,5 dira. Beste bi eskualdeetan ez bezala, erdal elebidunak gutxiengoa dira, %14,8 baitira.



**10. irudia.** Elebitasun-mota (*elebidunak*) eskualdearen arabera. Iparraldea, 2006 (%)



Oharra: zirkuluen tamaina eskualde bakoitzeko elebidunen kopuruaren arabera da.

**Iturria:** IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

**8. taula.** Elebitasun-mota (*elebidunak*) eskualdearen arabera. Iparraldea, 2006 (%)

Elebitasun-mota	16 urte edo gehiagoko biztanleria			
	Iparraldea	BAM	Lapurdi Barnealdea	Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Euskal elebidunak	24,7	17,1	22,3	31,5
Elebidun orekatuak	50,8	44,8	50,8	53,7
Erdal elebidunak	24,6	38,1	26,9	14,8

**Iturria:** IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

## 2. Hizkuntzaren transmisioa

### 2.1. LEHEN HIZKUNTZA ESKUALDEAREN ARABERA


Lehen hizkuntza frantsesa dutenak nagusi dira BAMen eta Lapurdi barnealdean. Nafarroa Beherean eta Zuberoan, aldiz, euskara da bi herenen lehen hizkuntza

Lehen hizkuntzari buruz ari garenean, umeak hiru urte bete arte gurasoengandik edo umearekin bizi diren senitartekoengandik jasotako hizkuntzari edo hizkuntzei buruz dihardugu.

Iparraldeko biztanleen lehen hizkuntzaren arabera honako hiru talde hauek bereiz daitezke:

- %21,6ren (49.800 pertsona) lehen hizkuntza euskara da.
- %6,1en (14.000 pertsona) lehen hizkuntza euskara eta frantsesa dira.
- %72,3ren (166.400 pertsona) lehen hizkuntza frantsesa da.

11. irudia. Lehen hizkuntza. Iparraldea, 2006 (%)




Lehen hizkuntza frantsesa dutenak nagusi dira BAMen eta Lapurdi barnealdean, baina Nafarroa Beherean eta Zuberoan, ordea, bi herenak euskara izan du lehen hizkuntza.

BAMeko biztanle gehienek lehen hizkuntza frantsesa da (%88,5) eta gutxiengo txiki batena euskara (%8,8) edo euskara eta frantsesa (%2,6).

Lapurdi barnealdean frantsesa da biztanleen %68,3en lehen hizkuntza; euskara, berriz, %23,3ren lehen hizkuntza, eta euskara eta frantsesa %8,4rena.


Nafarroa Beherean eta Zuberoan, ordea, alderantziz gertatzen da, biztanle gehienek lehen hizkuntza euskara (%56,2) edo euskara eta frantsesa (%9,9) baitira. Frantsesa da gutxiengoaren lehen hizkuntza (%34).

12. irudia. Lehen hizkuntza eskualdearen arabera. Iparralde, 2006 (%)



Oharra: zirkuluen tamaina eskualde bakoitzeko biztanleriaren arabera da.

Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.


**9. taula.** Lehen hizkuntza eskualdearen arabera. Iparraldea, 2006 (%)


Lehen hizkuntza	16 urte edo gehiagoko biztanleria			
	Iparraldea	BAM	Lapurdi Barnealdea	Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Euskara	<b>21,6</b>	8,8	23,3	56,2
Euskara eta frantsesa	<b>6,1</b>	2,6	8,4	9,9
Frantsesa	<b>72,3</b>	88,5	68,3	34,0


**Iturria:** IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaur-laritz, 2006.

## 2.2. LEHEN HIZKUNTZA, ADINAREN ARABERA

**Lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekoa murriztuz doa, adinean behera egin ahala**

Lehen hizkuntza euskara edo euskara eta frantsesa dutenen ehunekorik handiena 65 urte edo gehiagoko helduen artean dago (%37,5) eta ehuneko horrek behera egiten du etengabe, adinean behera egin ahala. Hortaz, gazteenen (24 urtetik beherakoen artean) lehen hizkuntza euskara edo euskara eta frantsesa dutenen ehunekoa %14,1ekoa da. Joera aldaketa bat suma daiteke gazteenen artean, hau da, gehiago dira euskara eta frantsesa batera (%7,7) jasotzen dutenak euskara soilik (%6,4) jasotzen dutenak baino. Bestalde, frantsesa lehen hizkuntza izan dutenen ehunekoa gora egiten ari da etengabe. Izan ere, 65 urte edo gehiagoko artean frantsesa %62,5en lehen hizkuntza bada ere, 16 eta 24 urte artekoen %85,9 da.



**13. irudia.** Lehen hizkuntza adinaren arabera. Iparraldea, 2006 (%)

Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.


Lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekoa Iparraldean hiru eskualdeetan ari da atzeraka. Joera horiek guztiak hiru eskualdeetan gertatzen badira ere, alde handiak daude bateko eta besteko ehunekoen artean.

BAMen 16 eta 34 urte bitartekoen artean euskara lehen hizkuntza bakar moduan jaso dutenak oso gutxi dira, %2 inguru. Biak batera jaso dituztenak ere oso gutxi, %3,4 baitira 16 eta 24 urte bitartekoen artean. 50 urtetik 64 urtera artekoek dute ehunekorik handiena, %14,5 hain zuzen ere.


Lapurdi barnealdean euskara –bakarrik eta frantsesarekin batera– izan da 65 urte edo gehiagoko %46,4ren lehen hizkuntza, baina ehuneko hori nabarmen eta etengabe jaitsiz doa, eta %15,8koa da 16 eta 24 urte bitarteko gazteen artean.

Nafarroa Beherean eta Zuberoan lehen hizkuntza euskara soilik eta frantsesarekin batera izan dutenen beherakada are gogorragoa da. Izan ere, 65 urte edo gehiagokoen %82,5 dira eta 16-24 urte bitartekoen artean, ordea, %36,6.





14. irudia. Lehen hizkuntza eskualdearen eta adinaren arabera. Iparralde, 2006 (%)



Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

### 2.3. FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA

Familia bidezko transmisioaz dihardugunean, ume batek gurasoengandik jaso duen hizkuntzari edo hizkuntzei buruz ari gara. Inkesta soziolinguistikoaren kasuan, unibertso osoa kontuan hartuz gero, gurasoengandik seme-alabenganako transmisioa azken 100 urteotan nolakoa izan den ezagutzeko aukera dugu.

Iparraldeko 16 urtetik gorako biztanle guztiak kontuan hartuz, guraso biak euskaldunak izanik, %69k euskara soilik transmititu diete seme-alabei, %11,5ek euskara eta frantsesa eta %19,5ek frantsesa baino ez. Euskalduna gurasoetako bat baino ez izanik, euskara jaso dutenen ehunekoa txikia da (%1,5) eta euskara eta frantsesa jaso dutenena %18,1. Gehienek (%80,5) ez dute euskara transmititu.

**Badago galerarik euskararen transmisioan guraso biak euskaldunak direlarik, baina galera are handiagoa da euskalduna bietako bat baizik ez denean**


**10. taula.** Lehen hizkuntza gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera. Iparraldea, 2006 (%)

	Guraso euskaldunak		
	Biak	Bietako bat	Ez bata, ez bestea
Seme-alaben lehen hizkuntza			
Euskara	69,0	1,5	
Euskara eta frantsesa	11,5	18,0	
Frantsesa	19,5	80,5	100,0

**Iturria:** IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

Eraitza horiek, baina, ez digute gaur egun familia bidez euskara nola transmititzen den erakusten, XX. mende ia osoa oro har hartuta nolakoa izan den baizik.


Iparraldean azken hamar urteotan nola transmititu den ezagutzeko, 2 eta 9 urte bitarteko seme-alabak dituzten inkestatuak hartuko ditugu kontuan.



Bikotekideen hizkuntza-gaitasunak erabat baldintzatzen du seme-alabei transmititzen zaien lehen hizkuntza. Gurasoak elebidunak direnean, seme-alaben %79,2k euskara jaso dute etxean. Horietako gehienek (%60) euskara soilik jaso dute eta gainerakoek (%19,2) euskara frantsesarekin batera. Bestalde, %20,9k frantsesa soilik jaso dute.

Gurasoetako batek euskaraz ez dakienean, aldiz, erdiak baino gehiagok (%55,6) frantsesa soilik transmititu diete seme-alabei, %39,8k euskara eta frantsesa eta %4,6k euskara soilik.

**15. irudia.** 2-9 urte bitarteko seme-alaben lehen hizkuntza gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera. Iparraldea, 2006 (%)



Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

## 2.4. HIZKUNTZA-BILAKAERA: EUSKARAREN IRABAZIAK ETA GALERAK


Lehen hizkuntza euskara edo euskara eta frantsesa izan duten gehienek euskara gorde arren (%75), badira lehen hizkuntza euskara izan arren, gaur egun elebidunak ez diren 16.000 (%24,9) lagun, hau da, euskara guztiz edo partez galdu dutenak. Galera horien erdia baino gehiago (9.100 pertsona) galera partziala izan da, hau da, pertsona horiek euskaraz ondo hitz egin ez arren, ondo ulertzeko gai dira. Gainerako 6.900 pertsonak erabat galdu dute euskara.

Baina, aldi berean, lehen hizkuntza frantsesa izan arren, euskara ikasi eta gaur egun elebidun diren 3.900 pertsona daude.

Badira beste 10.700 lagun lehen hizkuntza frantsesa izan arren, gaur egun euskaraz ondo ulertzeko gaitasuna dutenak, hau da, partzialki euskaldun berriak dira.

**Euskararen galerak irabaziak baino askoz handiagoak izan arren oraindik, proportzioan orain dela hamar urte baino txikiagoak dira. Gazteen artean gehiago dira irabaziak galerak baino**

16. irudia. Euskararen galerak eta irabaziak. Iparralde, 2006 (%)



Ikusten denez, galerak irabaziaz halako hiru dira oraindik, baina lehen hizkuntza euskara izan dutenak euskara galtzen jarraitu arren, gero eta gehiago dira lehen hizkuntza frantsesa izanik, euskara ikasten dutenak eta gaur egun elebidun direnak.


Galerak eta irabaziaz Iparraldeko hiru eskualdeetan izan arren, proportzioak ez dira berdinak.

BAMen 2.000 pertsonak galdu dute euskara erabat eta 1.500ek partzialki. Ikasi dutenak 800 dira eta ikasten aritutakoak edo ari direnak, aldiz, 3.900. Ikusten denez, askoz gehiago dira galdu dutenak ikasi dutenak baino, ia hiru aldiz gehiago.

Lapurdi barnealdean 3.300 pertsona dira guztiz erdaldunduak eta 5.300 partzialki. Dena dela, euskaldun berrien kopurua ere BAMekoa baino altuagoa da, 2.700 hain zuzen, eta partzialki euskaldun berriena ere bai (5.600 pertsona). Horrekin ikusten da Lapurdi barnealdeko galeren eta irabazien arteko aldea gainerako eskualdeetako baino askoz txikiagoa dela euskaldun berriei esker.

Nafarroa Beherean eta Zuberoan 1.600 lagun erdaldundu dira erabat, eta 2.300 partzialki. Euskaldun berriak, aldiz, 400 dira eta partzialki euskaldun berriak 1.300. Ikusten denez, askoz gehiago dira erdaldundu direnak euskaldundu direnak baino, galerak irabaziaz baino lau aldiz handiagoak dira.

17. irudia. Hizkuntza-bilakaeraren indizea eskualdearen arabera. Iparraldea, 2006 (%)




Oharra: zirkuluen tamaina eskualde bakoitzeko biztanleriaren arabera da.

Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

Adinaren arabera ere alde esanguratsuak daude. Euskara irabazi dutenen ehunekoa txikia da 25 urtetik gorakoan artean. Esate baterako 25 eta 34 urte dituztenen artean %1,6 dira euskaldun berriak. Gazteenen artean, ordea, 16 eta 24 urte dituztenen artean hain zuzen, euskaldun berrien ehunekoa %4,5ekoa da, hau da, ia hiru aldiz handiagoa, 1.300 pertsona hain zuzen. Era berean, asko dira irabazi partzialak, gazteenen artean, partzialki euskaldun berriak dira, %8,5 hain zuzen.

18. irudia. Euskararen galera eta irabaziak adinaren arabera. Iparraldea, 2006 (%)



Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

Euskara **irabazi** dutenen ezaugarri nagusiak honakoak dira:

- Gehienak oso gazteak dira. Euskaldun berrien %34k 16 eta 24 urte bitartean dituzte. Euskaldun berri gutxien 25-34 eta 65 urte edo gehiagokoan artean daude.
- Eskualde geografikoari dagokionez, gehienak (%70) Lapurdi barnealdean bizi dira.
- Askok, hau da, %24k euskaraz egin dituzte lehen mailako ikasketak frantsesa ikasgai duela eta %67k frantsesez. Eskolaz kanpo euskara ikasi edo hobetu dutenak %52 dira.
- Gehienak (%76) errazago moldatzen dira frantsesez euskaraz baino.

Euskara **galdu** dutenek, aldiz, honako ezaugarri hauek dituzte:

- Galera handiena (%35) 35 eta 49 urte artekoen artean dago eta txikiena (%5), berriz, 16tik 24 urterako artean.
- %48k euskara izan dute lehen hizkuntza eta %52k, ordea, euskara eta frantsesa.
- Inork ez ditu oinarrizko ikasketak euskaraz egin, baina %30 aritu da eskolaz kanpo euskaraz ikasten edo hobetzen.


Euskaldun zaharrek lehen hizkuntza euskara izan dute eta gaur egun elebidunak dira. Erdaldun zaharrek, aitzitik, lehen hizkuntza erdara izan dute eta erdaldun elebakarrak izaten jarraitzen dute.

Bi multzo horien bilakaera oso bestelakoa da adinaren arabera. Euskaldun zaharren ehunekorik handiena 65 urte edo gehiagokoen artean dago (%29,9) eta murriztuz doa nabarmen adinean behera egin ahala eta 16-24 urte artekoen artean %5,6koa besterik ez da.

Erdaldun zaharrekin, ordea, alderantziz gertatzen da. Adinean gora egin ahala, ehunekoa murriztuz doa etengabe 25 urtetik gorakoen artean. Salbuespen bakarra gazteenen artean dugu. Izan ere, 16 eta 24 urte dituztenen arteko erdaldun zaharren proportzioa aurreko adin multzoarena baino apur bat txikiagoa da, %74,6tik %72,9ra jaisten da. Horrek hemendik aurrera euskaldun zaharren proportzioa murriztu eta euskaldun berriena handitu egingo dela adieraz lezake.

Baina, euskaldun berrienarekin batera, hazkunde handia izan duen multzoa jatorrizko elebidunena da. Jatorrizko elebidunek euskara eta frantsesa izan dute lehen hizkuntza eta gaur egun ondo hitz egiten dute euskaraz. 25 urte baino gehiago dituztenen artean jatorrizko elebidunen proportzioa %2 ingurukoa bada ere, 25 urtetik behera ehunekoa hirukoiztu (16 eta 24 urtekoen artean %6) egin da eta adin tarte horretan euskaldun zaharrak baino gehiago dira.

19. irudia. Hizkuntza-bilakaeraren indizea adinaren arabera. Iparralde, 2006 (%)





### 3. Euskararen erabilera


#### 3.1. EUSKARAREN ERABILERAREN TIPOLOGIA

Eremu batzuetan (etxean, familiako kideekin, lagunekin, dendariekin, lanean, eremu formal publikoetan eta pribatuetan) euskararen erabilera nolakoa den jasotzen du inkesta soziolinguistikoak. Beraz, eremu horietako bakoitzean zenbat euskara erabiltzen den badakigu. Baina euskarak gizartean oro har duen erabileraz jabetzeko, 2001ean indize bat eratu zuen Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza: indize horri euskararen erabileraren tipologia izena jarri zitzaion.

Euskararen erabilera neurtzeko tipologiak honako eremu hauek ditu kontuan: etxea, lagunartea eta eremu formala. Eremu formalak lau azpi-eremu hartzen ditu bere baitan: osasun- eta udal-zerbitzuak, esparru publikoan, eta auzoko dendak eta finantza entitateak (bankuak eta kutxak), esparru pribatuan.

Erabileraren tipologia inkesta soziolinguistikoak aztergai duen unibertso osoari, hau da, 16 urte edo gehiagoko biztanleriari aplikatu zaio, 230.200 laguni hain zuzen.

20. irudia. Euskararen erabilera. Iparraldea, 2006 (%)




Erabileraren tipologiaren arabera, Iparraldeko biztanleen %10,3k euskara frantsesa beste (%6,7) edo gehiago (%3,6) erabiltzen du eguneroko jardunean, %12,3k frantsesa erabiltzen du nagusiki eta %77,4k ez du euskararik erabiltzen.

Alde handiak daude eskualde batetik bestera erabilerari buruzko emaitzetan. Izan ere, euskara frantsesa beste edo gehiago erabiltzen dutenak %1,6 dira BAMen, %10,7 Lapurdi barnealdean eta %35,5 Nafarroa Beherean eta Zuberoan.

Horiekin batera, euskara frantsesa baino gutxiago erabiltzen dutenena ere talde esanguratsua da hiru eskualdeetan: %5,7 BAMen, %16,1 Lapurdi barnealdean eta %21,9 Nafarroa Beherean eta Zuberoan.

Aurreko emaitzen arabera, ikus daiteke frantses hutsean mintzatzen direnen ehunekoan ere alde handiak daudela eskualde batetik bestera. BAMen, adibidez, frantses hutsean hitz egiten dutenak %92,7 dira, %73,2 Lapurdi barnealdean eta %42,6 Nafarroa Beherean eta Zuberoan, hau da, biztanleen erdia baino gutxiago.

21. irudia. Euskararen erabilera eskualdearen arabera. Iparralde, 2006 (%)



Oharra: zirkuluen tamaina eskualde bakoitzeko biztanleriaren arabera da.

Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

Euskararen erabilerari buruzko datuak gune soziolinguistikoaren arabera aztertuz gero, aldeak eskualdeka baino nabarmen handiagoak direla konturatuko gara.


Euskaldunak %20 baino gutxiago diren guneetan, lehen gune soziolinguistikoan hain zuzen, %1,4k soilik egiten du euskaraz frantsesez beste edo gehiago. Bestalde, %5,8k euskaraz frantsesez baino gutxiago egiten du. Azkenik, gune soziolinguistiko honetan, %92,8, hamarretik bederatzik baino gehiago hain zuzen, frantses hutsean mintzatzen dira.

Bigarren gune soziolinguistikoan (euskaldunak %20 eta %50 bitartean) euskaraz frantsesez beste edo gehiago egiten dutenak %9,3 dira, eta euskaraz frantsesez baino gutxiago %14,2. Bigarren gune honetan ere frantsesa da gehien erabiltzen den hizkuntza: lau lagunetik hiruk (%76,5).

Hirugarren gune soziolinguistikoan (euskaldunak %50 eta %80 bitartean), bizilagunen %11,8k euskara erabiltzen du nagusiki eta %17,6k euskara frantsesa bezainbat. Heren batek, %31,2k hain zuzen, euskara frantsesa baino gutxiago erabiltzen du. Azkenik, %39,3k ez du euskararik erabiltzen. Hortaz, hirugarren guneko biztanleen %60k euskara erabiltzen du neurri batean edo bestean.

Laugarren gune soziolinguistikoan (euskaldunak >%80) biztanleen %30,5ek euskara erabiltzen du nagusiki, %27,5ek euskara frantsesa beste, eta %24,2k euskaraz egin arren, frantsesa baino gutxiago erabiltzen du. Azkenik, laugarren guneko %17,9 frantses hutsean mintzatzen da.

Gune soziolinguistikoaren araberako emaitzei benetako neurria hartzeko, lagungarria da gune bakoitzeko biztanleek Iparraldeko biztanleria osoarekiko duten pisuaz jabetzea. Izan ere, lehen gunean Iparraldeko biztanleen %48,8 (ia biztanleen erdia) bizi da, bigarren gunean %35,5 (biztanleen herena baino gehiago), hirugarren gunean %10 eta laugarrenean %5,6.

**22. irudia.** Euskararen erabilera gune soziolinguistikoaren arabera. Iparraldea, 2006 (%)

Oharra: zirkuluen tamaina gune bakoitzeko biztanleriaren arabera da.

**Iturria:** IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.


Azken 10 urteotako bilakaera aztertuz gero, azpimarratzekoa da behera egin duela ia hiru puntuz euskaraz frantsesez beste edo gehiago egiten dutenen ehunekoak.

Duela hamar urte, 1996an alegia, Iparraldeko biztanleen %13k euskara frantsesa beste (%7,6) edo gehiago (%5,4) erabiltzen zuten. Orain, aldiz, %10,3k erabiltzen dute euskara frantsesa beste (%6,7) edo gehiago (%3,6).

Bestalde, alde handiz, multzorik handiena frantses hutsean mintzatzen direnek osatzen dute orain ere, eta ia ez da aldaketarik izan ehunekoan.

Hona hemen datuak zehatzago: %76,9 ziren 1996an eta %77,4 dira orain. Datu horien arabera, ikus daiteke ez dela ia aldatu frantsesez soilik egiten dutenen ehunekoak.

23. irudia. Euskararen erabileraren bilakaera. Iparraldea, 1996-2006 (%)



Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritz, 2006.

Horrezaz gain, euskarak lan-munduan duen presentziak euskararen erabileraren indizeari nola eragiten dion jakin nahi izan dugu. Horretarako, euskararen erabileraren tipologia laneko erabilerarekin osatu dugu.

Baina erabileraren tipologia osatu hori ezin zaio unibertso osoari aplikatu, lan egiten dutenei baizik. Hortaz, 16 urte edo gehiagoko landunei buruz ari gara oraingoan: 112.600 lagun, unibertso osoaren %48,9.

Datuei begiraturaz gero, ikus daiteke laneko erabileraren eragina argia dela indizean. Izan ere, hizkuntzaren erabilera lanean aztertzen denean, euskararen erabilerak behera egiten du Iparraldean. Lanean ari direnen artean erabilpena txikiagoa da euskara frantsesa baino gehiago erabiltzen dutenen artean (%1,7 vs %3,6), euskara frantsesa beste hitz egiten dutenen artean (%5,4 vs %6,7) eta baita euskara frantsesa baino gutxiago erabiltzen dutenen artean ere (%11,2 vs %12,3). Horren ondorioz, gehiago dira frantses hutsean mintzatzen direnak (%81,7 vs %77,4).

Joera hori, oro har, eskualde, guneta eta, adin-talde guztietan ematen da.


### 3.2. EUSKARAREN ERABILERAREN TIPOLOGIA ADINAREN ARABERA

Euskara frantsesa beste (%10,2) edo gehiago (%8,3) erabiltzen dutenen ehunekorik handiena 65 urte edo gehiagokoek dute, %18,5 baitira. Ondoren, adinean behera egin ahala, erabilerak ere behera egiten du gazteenen adin tartera iritsi arte. 16 eta 24 urte arteko gazteek aurreko adin multzokoek baino apur bat erabilerera hobea dute.


Azpimarratzekoa da, bestalde, adin tarte guztietan, 25 eta 34 urtekoen artean izan ezik, %12tik gora direla euskara erabili arren, frantsesa gehiago erabiltzen dutenak. Era berean, 16 eta 24 urte arteko gazteen ia %13k euskara frantsesa baino gutxiago erabiltzen du.

**Adin-talde guztietan erabat nagusi da frantsesaren erabilera (%77,4 batez beste). Dena dela, adinduenak dira eguneroko jardunean euskara gehien erabiltzen dutenak**

24. irudia. Euskararen erabilera adinaren arabera. Iparraldea, 2006 (%)



Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.




Euskararen erabilerari buruz azaldu berri diren tendentziak ez dira berdinak hiru eskualdeetan. Nagusiki euskara edo euskara frantsesa beste erabiltzen dutenengan erreparatzen badugu, Lapurdi barnealdean eta Nafarroa Beherean eta Zuberoan 65 urte edo gehiagokoak dira erabilera-ehunekorik handiena dutenak.

Erdara hutsean mintzatzen direnen ehunekoak gora egiten du adinak behera egin ahala, 16-24 urte artekoen artera iritsi arte. BAMen eta Lapurdi barnealdean antzematen da joera aldaketa. Adin-talde guztietan frantses hutsean mintzatzen direnen ehunekorik handiena BAMek du (%94,6 batez beste). Lapurdi barnealdean frantses hutsean hitz egiten dute %81,4k 25-34 urte artekoen artean, eta %76,6k, aldiz, 16-24 urte artekoen artean.

Nafarroa Beherea eta Zuberoa frantses hutsean mintzatzen diren ehunekorik txikiena dutenak (%42,6) izan arren, ez da joera aldaketarik egon. Hortaz, frantses hutsean mintzatzen direnen ehunekoak gora egiten du adinean behera egin ahala, baita 16-24 urte artekoen artean ere (%69 inguru).

**25. irudia.** Euskararen erabilera eskualdearen eta adinaren arabera. Iparraldea, 2006 (%)



Azken 10 urteotako bilakaera aztertuz gero, ikus daiteke euskara gutxiago erabiltzen dela gaur egun 1996an baino, 50 urtetik aurrerakoan artean batik bat.

Horrela, duela 10 urte, 50 eta 64 urte arteko %20,2k euskara frantsesa beste edo gehiago erabiltzen zuen. Gaur egun, aldiz, %12,1ek erabiltzen du euskara frantsesa beste edo gehiago.

65 urte edo gehiagokoen artean ere antzeko beherakada izan da. Euskara frantsesa beste edo gehiago erabiltzen zuten %25,3k 1996an eta %18,5ek egun.


Bestalde, euskararen erabilera egonkortu egin da 50 urtetik beherakoan artean azken hamar urteotan. Aldeak txikiak dira orain dela hamar urteko inkesta eta oraingoa kontuan hartzen baditugu, 25 eta 49 urte artekoan artean.

16 eta 24 urtekoan artean, ordea, aldaketa txiki bat izan da. Izan ere, oraingo inkestaren arabera, 16 eta 24 urte arteko gazteek (%16,9) orain dela hamar urtekoek (%14,3) baino gehiago erabiltzen dute euskara neurri batean edo bestean.


Beraz, azken 10 urteotako bilakaeraren azterketetatik bi ondorio atera daitezke:

- Batetik, gaur egun 1996an baino gutxiago erabiltzen dela euskara batez ere 50 urtetik gorakoan artean. Dena dela, joera-aldaketa gertatu da adin horretatik beherakoan artean, erabilera egonkortu egin baita.
- Bestetik, duela 10 urte zaharrenak ziren gehien erabiltzen zutenak, eta 50 urtetik beherakoan artean nabarmen jaisten zen euskara erabiltzen zutenen proportzioa eta jaitsierak ez zuen etenik. Gaur egun, gazteenetan, hau da, 16 eta 24 urte artekoetan, eta 25-34 urte artekoan euskararen erabilpena oso antzekoa da. Beraz, esan daiteke joera hori eten egin dela.





**26. irudia.** Euskara frantsesa beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera adinaren arabera. Iparraldea, 1996-2006 (%)



Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

### 3.3. EUSKARAREN ERABILERA ELEBIDUNEN ARTEAN


**Elebidunen erdiak baino gehiagok euskara frantsesa baino gutxiago erabiltzen du (%41) edo frantsesa soilik (%13,7)**

Orain arte, erabilera gizarte osoa kontuan hartuta aztertu dugu. Jarraian euskararen erabilerari buruzko azterketa elebidunak bakarrik kontuan hartuta egingo dugu.


Iparraldean 16 urte edo gehiagoko elebidunak 51.800 dira, unibertso osoaren %22,5. Horietako %25 euskal elebidunak dira, %51 elebidun orekatuak eta %25 erdal elebidunak. Adinari dagokionez, elebidunen %37 edadetuak dira ( $\geq 65$  urte), %47 helduak dira (35 eta 64

urte) eta %17 gazteak (35 urte baino gutxiago dituzte). Eta lehen hizkuntzari dagokionez, gehienak (%81) euskaldun zaharrak dira, %11 jatorrizko elebidunak eta %8 euskaldun berriak.

Elebidunen %45,3k euskara frantsesa beste (%29,5) edo gehiago (%15,8) erabiltzen dute. Elebidunen %41ek euskara frantsesa baino gutxiago erabiltzen dute, eta %13,7k ez dute euskararik erabiltzen.



27. irudia. Elebidunen euskararen erabilera. Iparraldea, 2006 (%)




Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.


Euskara gehien erabiltzen dutenak euskal elebidunak dira. Horietako %39,4k euskara erabiltzen dute nagusiki eguneroko bizimoduan eta %35,4k frantsesa beste erabiltzen dute euskara.

Elebidun orekatuen artean euskara frantsesa baino gehiago erabiltzen dutenak %11 dira, eta %37,1 euskaraz frantsesez beste hitz egiten dutenak. %42,7k, aldiz, euskara frantsesa baino gutxiago erabiltzen dute. Azkenik, %9,2k ez dute euskararik erabiltzen.

Azkenik, erdal elebidunak dira euskara gutxien erabiltzen dutenak. Izan ere, %2,1ek euskara frantsesa baino gehiago erabiltzen dute eta %7,7k euskara frantsesa beste. Erdal elebidun gehienek (%54,3) frantsesa baino gutxiago erabiltzen dute euskara eguneroko bizimoduan. Erdal elebidunen %35,8k ez du euskararik erabiltzen.




**28. irudia.** Elebidunen euskararen erabilera elebitasun-motaren arabera. Iparraldea, 2006 (%)




Adinari dagokionez, 65 urte edo gehiagoko elebidunen erdiak baino gehiagok (%56,8) euskara frantsesa beste edo gehiago erabiltzen du. Adinean behera egin ahala, ordea, euskara frantsesa beste edo gehiago egiten dutenak gutxituz doaz eta gehituz euskara frantsesa baino gutxiago erabiltzen dutenak edo euskararik erabiltzen ez dutenak.

**29. irudia.** Elebidunen euskararen erabilera adinaren arabera. Iparraldea, 2006 (%)



Elebidunek euskararen erabileran izan duten bilakaerari erreparatuz, ikus daiteke azken 15 urteotan ez dela aldaketa handirik izan. 1991 eta 2006ko datuak alderatuz, hamabost urte horietan euskararen erabilera mantendu egin da adin-tarte guztietan oro har, familian, lagunartean, eremu formaletan (bankua, udala, osasun zerbitzuak ) eta lanean. Dena dela, gazteenen artean (16-24 eta 25-34 urte) orain duela hamabost urte baino zertxobait gehiago dira euskaraz frantsesez baino gehiago egiten dutenak.

**30. irudia.** Euskara frantsesa baino gehiago erabiltzen duten elebidunen bilakaera adinaren arabera. Iparraldea, 1991-2006 (%)



**Iturria:** IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

### 3.4. EUSKARAREN ERABILERAN ERAGITEN DUTEN FAKTOREAK

**Harreman-sareko euskaldunen dentsitatea eta erraztasuna dira euskararen erabileran eragiten duten faktore nagusiak**

Erabilerari buruz egin ditugun azterketek behin eta berriro erakusten digute erabileran eragiten duten faktore nagusiak bi direla:

- hiztunaren harreman-sareko euskaldunen dentsitatea, eta
- hiztunak hizkuntza batean eta bestean jarduteko duen erraztasuna.

Bi faktore horiek erabilera-eremu nagusietan zenbateraino eragiten duten zehatz-mehatz jakiteko, korrelazioak aztertuko ditugu jarraian. Korrelazioak bi aldagairen arteko harremana zehazten du, eta 0 eta 1 arteko zenbaki baten bidez adierazten da.

Euskararen erabileraren eta harreman-sareko dentsitatearen arteko korrelazioa 0,74 da etxeko erabileran, 0,73 lagunartekoan eta 0,84 lanekoan. Korrelazioak oso handiak dira erabilera-eremu guztietan, eta harreman-sareko euskaldunen dentsitatea da faktore nagusia, batez ere laneko erabileran.

Harreman-sarearen eraginaz jabetzeko, emaitzak arestian ere aipaturiko gune soziolinguistikoaren arabera aztertuko ditugu. Lehenengo gune soziolinguistikoan (euskaldunak %20 baino gutxiago dira) euskara frantsesa beste edo gehiago hitz egiten dutenak %1,4 dira. Bigarrenean (%20-%50) erabilerak pixka bat gora egiten du, %9,3 alegia. Hirugarren gunean (%50-%80) igoera handiagoa antzematen da. Izan ere, gune horretako biztanleen %39,4 euskaraz frantsesez beste edo gehiago mintzatzen da. Laugarren gunean (>%80), ordea, erdiak baino gehiagok, %58k hain zuzen, euskaraz frantsesez beste edo gehiago egiten dute eguneroko jardunean.


Ehuneko horiek ikusita, esan daiteke zenbat eta gune euskaldunagoa izan, euskarak are eta erabilera handiagoa izan arren, Iparraldean ez dela erabateko jauzirik gertatzen euskararen erabileran, eta frantsesak ere erabilera handia duela gune euskaldunenetan.

Bestalde, euskararen erabileraren eta euskaraz hitz egiteko erraztasunaren arteko korrelazioa 0,53 da etxeko erabileran, 0,47 lagunartekoan eta 0,23 lanean. Hortaz, esan daiteke euskaraz errazago hitz egiten duten elebidunek, hau da eus-


kal elebidunek, nagusiki euskara erabiltzen dutela etxean eta lagunartean, baina gutxiago lanean. Elebidun orekatuak, aldiz, hizkuntza biak neurri bertsuan erabiltzen ditu hiru eremu horietan. Azkenik, erdal elebidunak gehienbat frantsesa erabiltzen du eremu guztietan.

Beste faktore batzuek, adinak (0,21eko korrelazioa) edo euskararekiko jarrerak (0,11ko korrelazioa) adibidez, eragina dute euskararen erabileran, baina harreman-sareak eta erraztasunak baino askoz txikiagoa. Gainera, harreman-sarearen eta erraztasunaren baldintzak bertsuak direnean, euskararen erabileran ia ez dago aldaketarik adinaren edo jarreraren eraginez.

**31. irudia.** Euskararen erabilera harreman-sareko elebidunen dentsitatearen arabera. Iparraldea, 2006




Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritz, 2006.



**32. irudia.** Euskararen erabilera elebidunen tipologiaren arabera. Iparraldea, 2006

Hitz egiten dute...



Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritz, 2006.

## 4. Euskararen erabilera eremuka

### 4.1. EUSKARAREN ERABILERA ETXEAN

16 urte edo gehiagoko biztanle guztiak kontuan hartzen baldin baditugu, %9k beti edo nagusiki euskaraz egiten dute eta %4k euskaraz frantsesez bezainbeste.

Elebidunen artean %37k beti edo nagusiki euskaraz egiten dute etxean eta %15ek euskaraz frantsesez beste.

**Elebidunek etxean euskara gehiago erabiltzen dute gurasoekin, neba-arrebeekin, bikotekidearekin eta seme-alabekin baino**

**33. irudia.** Elebidunen euskararen erabilera etxean. Iparraldea, 2006 (%)



Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

Etxean bikotekidearekin %57k beti edo nagusiki euskaraz egiten dute elebidunek, bikotekideak euskaraz dakienean. %22k, ordea, nagusiki edo beti frantsesez egiten dute bikotekidearekin, nahiz eta bikotea euskalduna izan.



Seme-alabei dagokienez, guztiek edo ia guztiek euskaraz dakitenean, %55ek beti edo nagusiki euskaraz egiten dute. %13k frantsesa edo frantsesa gehiago erabiltzen dute seme-alabekin.

Iparraldeko elebidunen %62k beti edo nagusiki euskaraz egiten dute amarekin eta %67k aitarekin.

Etxean euskara gehien amarekin eta aitarekin erabiltzen dute batez ere 35 urtetik aurrerakoek. Zenbat eta urte gehiago izan, orduan eta erabilera handiagoa dute. Esate baterako, 50 eta 64 urte artekoen artean %77k beti edo nagusiki euskaraz egiten dute amarekin eta %85ek aitarekin.

Neba-arrebei dagokienez, elebidunen %51k erabiltzen dute beti edo nagusiki euskara.

Familiako gainerako ahaideekin gurasoekin eta neba-arrebekin baino gutxiago erabiltzen dute euskara, %32k hain zuzen.

Eskualde geografikoari dagokionez, Nafarroa Beherean eta Zuberoan erabiltzen dute gehien. Izan ere, ia erdiek (%49) beti edo nagusiki euskaraz egiten dute. Gutxien BAMen erabiltzen dute (%18). Lapurdi barnealdean, ordea, %35ek esaten dute beti euskaraz edo nagusiki euskaraz egiten dutela etxean.

Gune soziolinguistikoari dagokionez, 4. guneko erdiek baino gehiagok (%54) beti edo nagusiki euskaraz egiten dute. Baina zenbat eta gune erdaldunagoan bizi, erabilerak etxean nabarmen egiten du behera. Lehenengo gunean, aldiz, %18 dira euskaraz beti edo nagusiki egiten dutenak.

Adinari dagokionez, erabilera handiena 65 urte edo gehiagokoek dute %58k beti edo nagusiki euskaraz egiten baitute etxean. Gainerako adin-tarteetan txikiagoa da erabilera, esate baterako, %31koa da 50 eta 64 urte artekoen artean, %28koa 35etik 49ra artekoen artean eta %26koa 16 eta 34urte artekoen artean.

**11. taula.** Elebidunen euskararen erabilera etxean adinaren arabera. Iparraldea, 2006 (%)

Euskararen erabilera	Adin-taldeak			
	>=65	50-64	35-49	16-34
(la) Beti euskara	49	25	15	20
Euskara frantsesa baino gehiago	9	6	13	6
Euskara frantsesa beste	15	12	18	18
Euskara frantsesa baino gutxiago	5	19	31	32
(la) Beti frantsesa	22	39	24	25

*Iturria:* IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

Kontuan izan behar da euskararen erabilera etxean nabarmen igotzen dela euskaraz etxean denek edo ia denek dakitenean eta, alderantziz, izugarri jaitsi erdiek edo erdiek baino gutxiagok dakitenean. Horren arabera, denek edo ia denek dakitenean %52k beti edo nagusiki euskaraz egiten dute.


Familian beti euskaraz edo euskaraz gehiago egiten dutenen %77 euskal elebidunak dira. Oso gutxi dira, aldiz, beti euskara (%3) edo euskara gehiago (%2) erabiltzen duten erdal elebidunak.

Lehen hizkuntza euskara izan dutenen %43k erabiltzen dute beti euskara edo nagusiki etxean. %42k, ordea, frantsesa gehiago edo beti frantsesa erabiltzen dute etxean.

#### 4.2. EUSKARAREN ERABILERA GERTUKO KOMUNITATEAN

Gertuko komunitatearen barruan sartzen dira lagunak, auzokideak, lankideak eta dendetako saltzaileak. Erabilera eremu horietatik euskara gehien lagunaren artean erabiltzen da eta gutxien dendetan. Etxean bezala, gertuko komunitatea osatzen duten eremuetan erabilera handiena 65 urte edo gehiagokoek dute, lan-eremuan izan ezik, adin tarte horretako ia guztiak jubilatuta baitaude.

**Lagunekin elebidunen %41ek beti edo nagusiki euskaraz egiten dute**

**34. irudia.** Elebidunen euskararen erabilera gertuko komunitatean. Iparraldea, 2006 (%)

Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

Datuak zehazte aldera, 16 urte edo gehiagoko biztanle guztiak kontuan hartuz, lagunekin %10ek beti edo nagusiki euskaraz egiten dute eta %8k euskaraz frantsesez bezainbeste.

Auzokideekin, %7k beti edo nagusiki euskaraz egiten dute, eta %6k euskaraz frantsesez bezainbeste.

Lankideekin jaitsi egiten da erabilera. %5ek beti edo nagusiki euskaraz egiten dute, eta %6k euskaraz frantsesez bezainbeste.

Dendetan are txikiagoa da erabilera, %3k egiten dute beti edo nagusiki euskaraz eta %4k euskaraz frantsesez bezainbeste.

Elebidunen artean, lagunekin %41ek beti edo nagusiki euskara erabiltzen dute eta %28k euskaraz frantsesez bezainbeste. Gainera, lagunetatik denek edo ia denek euskaraz dakitenean %80k beti edo nagusiki euskaraz egiten dute elkarren artean. Erdiek baino gehiagok dakitenean ere %52k beti edo nagusiki euskaraz egiten dute.

Auzokideekin elebidunen %30ek egiten dute beti edo nagusiki euskaraz eta %20k euskaraz frantsesez bezainbeste. Lankideekin, aldiz, %29k egiten dute beti edo nagusiki euskaraz eta %23k euskaraz frantsesez beste.


Azkenik, dendetan proportzioa erdira jaisten da, elebidunen %14k erabiltzen baitute beti edo nagusiki euskara eta %18k euskara frantsesa bezainbeste.

### 4.3. EUSKARAREN ERABILERA EREMU FORMALEAN

Eremurik formalenak banku edo kutxak, osasun zerbitzuak, udaletxeko zerbitzuak eta administrazio publikoa osatzen dituzte. Eremu horietatik euskara gehien udaletxeko zerbitzuetan eta banku edo kutxetan erabiltzen dute elebidunek Iparraldean. Osasun zerbitzuetan eta administrazio publikoan oso erabilpen txikia du euskarak.


Eremurik formalenen artean udaletxeko zerbitzuetan erabiltzen da euskara gehien, elebidunen %22k euskara erabiltzen baitute beti edo nagusiki

35. irudia. Elebidunen euskararen erabilera eremu formalean. Iparraldea, 2006 (%)



16 urte edo gehiagoko biztanle guztiak kontuan hartuz, udal zerbitzuetan %5ek erabiltzen dute euskara beti edo nagusiki eta %5ek, era berean, euskara frantsesa bezainbeste. Banku eta Kutxetan %3k erabiltzen dute euskara beti edo nagusiki eta %3k, halaber, euskara frantsesa beste.

Osasun zerbitzuetan erabilera txikiagoa du euskarak. %2k erabiltzen dute euskara beti edo nagusiki eta %2k, halaber, euskara frantsesa beste. Administrazio publikoari dagokionez, %1ek soilik aitortzen du euskaraz frantsesetz beste egiten duela.



Elebidunen unibertsoa kontuan hartuz, udaletxeko zerbitzuetan %22k euskara erabiltzen dute beti edo nagusiki, eta %20k ere euskara frantsesa beste erabiltzen dute. Banku edo kutxetan elebidunen %14k erabiltzen dute euskara beti edo nagusiki, eta %12k euskara frantsesa beste.

Osasun zerbitzuetan elebidunen %7k erabiltzen dute euskara beti edo nagusiki eta %10ek frantsesa beste.

Azkenik, administrazio publikoan oso erabilera urria du euskarak, %2k erabiltzen baitu euskara beti edo nagusiki eta %3k frantsesa beste.

Eremurik formalenetan euskara gehien erabiltzen dutenen ezaugarriak dagokionez, gehienak Nafarroa Beherean eta Zuberoan bizi dira, euskal elebidunak dira eta 65 urte edo gehiago dituzte.

## 5. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrerak

**Iparraldeko biztanleek normaltasun osoz ikusten dute euskararen presentzia**


Iparraldeko 16 urte edo gehiagoko biztanleen %93k uste dute euskaraz eta frantsesez hitz egin beharko litzatekeela etorkizunean. %3k euskara hutsean egin beharko litzatekeela uste dute eta %3k, halaber, frantses hutsean.

Hizkuntzaren aberastasunari dagokionez, biztanleen erdiak baino gehiagok (%56) uste du euskara frantsesa bezain aberatsa dela, eta gutxi dira (%4) kontrakoa uste dutenak.

Gizartean bi hizkuntza egoteak ez du arazorik sortzen biztanleen gehiengo zabal batentzat, %82rentzat hain zuzen, eta arazo iturri izan daiteke %12rentzat.

Bestalde, frantsesa ongi menperatzen ez dutelarik, haur txikiei eskolan euskara irakastea ez dela ona adierazpenarekin ez datoz bat biztanleen %72.

Azkenik, biztanleen gehiengoak interesa erakusten du euskararekiko. Izan ere, biztanleen %83k euskararekiko interesa adierazten dute: %22k handia, %35ek nahiko eta %26k zertxobait. Gainera, Iparraldeko eskualde guztietako biztanleek adierazten dute euskararekiko interesa dutela.



**12. taula.** Euskararekiko interesa. Iparraldea, 2006 (%)


Interesa	Iparraldea	BAM	Lapuri barnealdea	Naf. Beherea eta Zuberoa
Asko	22	16	24	29
Nahiko	35	33	36	34
Zertxobait	26	27	25	25
Gutxi	9	11	8	7
Bat ere ez	7	11	5	3
Ed/Ee	1	2	1	2

**Iturria:** IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

Oro har biztanleen %41,2 euskararen erabilera sustatzearen alde (%31,5) edo oso alde (%9,7) daude. %41,1ek ez dute ez aldeko ez kontrako jarrerarik, %15,1ek aurkako jarrera dute eta %2,5ek oso aurkako.

**Iparraldeko biztanleen %41,2 euskararen erabilera sustatzearen alde daude eta %17,6 aurka**

**36. irudia.** Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrerak. Iparraldea, 2006 (%)



**Iturria:** IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

Hizkuntza-gaitasunari dagokionez, elebidunak dira aldekoenak, %74,7 euskararen erabilera sustatzearen aldeko edo oso aldekoak baitira. Elebidunen %22,5 ez daude ez alde ez aurka, eta %2,8 aurka daude.

Bestalde, elebidun hartzaile gehienak ere euskararen erabilera sustatzearen aldekoak dira (%58,2), %36,9 ez daude ez alde ez aurka eta %4,9 aurka daude.

Erdaldun elebakarretan euskara sustatzearen alde daudenen ehunekoa askoz txikiagoa da, %28,2koa hain zuzen ere. Dena dela, erdaldun elebakar gehienak ez daude ez alde ez aurka (%47,8) eta %24 aurka daude.

**13. taula.** Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera. Iparraldea, 2006 (%)


Jarrera	Elebidunak	Elebidun hartzaileak	Erdaldun elebakarrak
Oso aldekoa	26,2	13,6	3,9
Aldekoa	48,5	44,5	24,4
Ez alde ez aurka	22,5	36,9	47,8
Aurkakoa	2,3	4,9	20,6
Oso aurkakoa	0,5		3,4

**Iturria:** IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaur-larritza, 2006.

Eskualde geografikoari dagokionez, euskara bultzatzeko neurrien aldeko jarrera txikiagoa du BAMEk, nahiz eta gehiago izan alde daudenak (%31,4) aurka (%22,4) daudenak baino. Bestalde, %46,2k ez dute aldeko ez kontrako jarrerarik.

Nafarroa Beherean, Zuberoan eta Lapurdi barnealdean nagusi da aldeko jarrera. Lapurdi barnealdean %48,2 alde daude eta %15,5 aurka. Nafarroa Beherean eta Zuberoan, aldiz, %51,1 alde daude eta %8,9 aurka.

37. irudia. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera, eskualdearen arabera. Iparraldea, 2006 (%)




Euskararen erabilera sustatzearen aldeko neurriak hartzeari buruzko iritzia, ez da askorik aldatu azken hamar urteotan. %42,3 euskararen erabilera sustatzearen alde zeuden 1996an eta %41,2 daude alde 2006ko inkestaren arabera. Hortaz, hiritarren ia erdia alde zegoen orduan eta alde dago orain. Alde edo kontra ez daudenen ehunekoari dagokionez ere antzeko zerbait esan daiteke: %45 ziren 1996an eta %41,1 dira azken inkesta honen arabera. Azkenik kontra daudenen ehunekoak apur bat gora egin du duela hamar urteko inkestarekin konparatuz, baina ehunekorik txikiena zen eta izaten jarraitzen du. %12,7 ziren 1996an eta %17,6 daude euskara sustatzearen aurka 2006ko inkestaren arabera.

Euskararen erabilera sustatzeko neurri zehatzei dagokienez, hiritarrek irakaskuntzan, administrazioan eta hedabideetan euskara sustatzeko neurriak hartzeaz dituzten iritzia eta jarrerak aztertu dira.

Administrazioa euskalduntzearen aldeko jarrera ere nagusi da. Izan ere, %51k ontzat jotzen dute sartzeko euskara jakin behar izatea. Hala ere, %32k aurkako iritzia dute.






Bestalde, gauza bera gertatzen da hedabideetan euskararen erabilera sustatzeko neurriak hartzeari buruzko jarrerarekin ere. Kasu honetan %51k ontzat jotzen dute irriti eta telebistek saio gehiago izatea eta %17 daude aurka.

Oniritzirik handiena haurren euskalduntzeak dauka. %56k ontzat jotzen du ezinbestekoa dela haur guztiek euskara ikastea eta %23 aurka dago. Irakaskuntzari dagokionez, seme-alabek zein hizkuntzatan ikas dezaten nahi duten galdetu zaie inkestatuei.

**38. irudia.** Seme-alaben eskolatzeko-hizkuntzari buruzko iritziak. Iparraldea, 2006 (%)




**Iturria:** IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

**14. taula.** Seme-alaben eskolatzeko-hizkuntzari buruzko iritziak. Iparraldea, 2006 (%)

	Iparraldea	BAM	Lapurdi barnealdea	Naf. Beherea eta Zuberoa
Euskaraz, frantsesa ikasgai	12	10	14	15
Euskaraz eta frantsesez	36	28	40	49
Frantsesez, euskara ikasgai	24	28	20	22
Frantsesez	23	28	22	10
Ed/Ee	5	6	5	4

**Iturria:** IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.



Iparraldeko biztanleria osoa kontuan hartuz, oreka da irakaskuntza elebiduna (“euskaraz eta frantsesa ikasgai gisa” edo “euskaraz eta frantsesez”) aukeratzen dutenen eta frantsesa nagusiki erabiltzen duen irakaskuntza hautatzen dutenen artean: %48 irakaskuntza elebidunaren alde eta %47 frantsesa nagusiki erabiltzen duen irakaskuntzaren alde.

Eskualdearen arabera, badaude desberdintasunak. BAMEko %28k aukeratzen dute irakaskuntza elebiduna. Bestalde, %56k frantsesa nagusiki erabiltzen duen irakaskuntzaren alde egiten dute.

Lapurdi barnealdean, Nafarroa Beherean eta Zuberoan gehienek irakaskuntza elebiduna aukeratzen dute. Lapurdi barnealdean %54k irakaskuntza elebidunaren aldeko hautua egiten dute eta %42k frantsesa nagusiki erabiltzen duen irakaskuntza. Nafarroa Beherean eta Zuberoan, aldiz, %64k irakaskuntza elebiduna hautatzen dute eta %32k frantsesa nagusiki erabiltzen duen irakaskuntza.

Elebitasun-motaren arabera ere aldeak nabariak dira: elebidunen %34k seme-alabek euskaraz frantsesa ikasgai dutela ikas dezaten nahi dute eta %47k euskaraz eta frantsesez. Elebidun hartzailen artean ehunekoak %18 eta %50 dira hurrenez hurren, eta erdaldun elebazarren artean %4 eta %31.


Hizkuntza politika publikoei buruzko balorazioari dagokionez, ez dakite edo ez dute erantzuten (%37,8) edo berdin die (%11,9) ia erdiei. Dena dela, erantzunen artean gehiago dira (%27,9) hizkuntza politika publikoak desegokitzat jotzen dituztenak egokitzat (%22,4) jotzen dituztenak baino. Arrazoia galdetutakoan, gehiago dira gutxi (%25) egin dela diotenak asko edo gehiegi (%19,7) egin dela diotenak baino. Gehienek ez dute arrazoirik ematen edo ez dute erantzuten (%49,9).


## 6. Ondorioak

- **Elebidunen beherakada ez da oraindik eten** Ipar Euskal Herrian. 16 urte edo gehiagoko 51.800 elebidun daude egun, orain dela hamar urte baino 4.400 elebidun gutxiago, alegia. %22,5 dira elebidunak egun eta %26,4 ziren orain dela hamar urte.
- Badira hiru gertaera aurrerantzean ere euskararen beherakadan eragina izango dutenak. Lehenik eta behin, Iparraldera bizitzera datorren **kanpoko jendea** hazten ari da etengabe eta demografia adituen arabera, hazkundea jarraituko egingo du. Bigarrenik, **elebidunen gehiengoa (%64) 50 urtetik gorakoa** da. Azkenik, **eremurik euskaldunenean** (Nafarroa Beherean eta Zuberoan) gazteen artean euskarak **behera** egiten jarraitzen du, nahiz eta jaitsiera hori moteltzen ari den.
- Dena dela, **beherakada ez da geldieztina**. Izan ere, elebidunen ehunekoa gora egiten hasi da 16-24 urtekoen artean. Adin-tarte horretako elebidunen ehunekoa aurreko adin-tartekoena baino bost puntu handiagoa da (16-24 urte arteko %16,1 dira elebidunak eta 25-34 urte arteko %11,6). Joera-aldaketa hori bereziki azpimarratzekoa da Lapurdi barnealdean eta BAMen (Baiona, Angelu, Miarritze), hau da, eremurik jendetsuenetan.
- Era berean, aipagarria da adin guztiak kontuan hartuz **galerak oraindik irabaziak baino handiagoak izan arren**, 16-24 urte artekoen artean dagoela euskara irabazi dutenen kopururik handiena eta baita euskara galdu dutenen kopururik txikiena ere.
- Bestalde, **familia transmisioan guraso gazteak gehiago ari dira transmititzen** euskara lehen hizkuntza gisa seme-alaba nagusiagoak dituzten gurasoek baino, batez ere guraso mistoen kasuan (%44,4k euskara eta frantsesa edo euskara transmititzen diete 2-9 urte bitarteko seme-alabei). Inkesta honetan parte hartu duten adin guztietako gurasoak aintzat hartuz, bikote mistoetan handia da euskararik transmititu ez dutenen ehunekoa (%80,1).
- Horrezaz gain, gogoan izan behar da, **Iparraldeko hamar biztanletik zazpiren lehen hizkuntza (%72,3) frantsesa soilik dela**. 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren artean, euskara soilik jaso dutenak %21,6 dira eta euskara eta frantsesa jaso dituztenak %6,1. Lehen hizkuntza frantsesa jaso dutenak erabat nagusi dira BAMen (%88,5) eta Lapurdi barnealdean




(%68,3). Nafarroa Beherean eta Zuberoan, aldiz, gehiengoa dira euskara jaso dutenak, %66,1 hain zuzen.





- **Ezagutzak ez ezik erabilerak ere behera egin du Iparraldean.** 10 urtetan ia hiru puntuz egin du behera euskara frantsesa beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak (%13 zen 1996an eta %10,3 da egun)
- **Euskara sustatzeari buruzko jarrerak aldekoak dira Iparraldean.** Gehienak euskara sustatzeari alde edo oso alde daude (%41,2), eta gutxi dira, aldiz, aurka daudenak (%17,6). Gehienek ontzat jotzen dute haurrek euskara ikastea ezinbestekoa izatea (%56), irrati eta telebistetan euskarazko programa gehiago izatea (%51) eta Administrazio publikoan sartzeko euskara jakitea ezinbestekoa izatea (%51).
- Irakaskuntzari dagokionez, Iparraldeko biztanleen **%48k seme-alabek euskaraz ikas dezaten nahi du.** Ehuneko hori gaur egun euskaraz eskolatuak diren haurren ehunekoa baino altuagoa denez, badago oraindik euskaraz eskolatuak izan daitezkeen haurren kopuru bat gauzatzeko.
- Hori guztia kontuan harturik, aurreikus daiteke elebidunen **beherakadak jarraituko duela.** Dena dela, gazteenen artean agertzen hasi diren datu positiboek eta euskararen aldeko jarrera orokorrek pentsarazten dute beherakada hori **ez dela geldieztina.**





**N A F A R R O A**  
IV. Inkesta Soziolinguistikoa





## 1. Biztanleriaren ezaugarri nagusiak

2006ko biztanleriari buruzko datuen arabera, Nafarroan 601.874 pertsona bizi dira. Horietatik, 91.448 lagunek (%15,1) 16 urte baino gutxiago dituztenez, inkesta soziolinguistiko honek aztertzen duen unibertsoetik kanpo daude.

**Gero eta gizarte zaharragoa eta gero eta etorkin gehiago**

Baina, kontuan hartu behar da gaur egun gazte horien artean daudela elebidunen ehunekorik handienak (16 urtetik beherako gazteen ia laurdena elebidunak dira). Hortaz, unibertso osoarekiko pisu txikia badute ere, eragina dute Nafarroako emaitzetan.


Azken 15 urteotako bilakaera aztertuz gero, Nafarroako biztanleriak bi ezaugarri argi ditu:

- zahartze-prozesua, eta
- etorkinen hazkundera


Nafarroako biztanleria gero eta zaharragoa da. Oso bizitza-esperantza handia ez ezik jaiotza-tasak ere behera egin du nabarmen. Izan ere, 15 eta 25 urte bitarteko 84.127 gazte zeuden 1991n. Hamabost urte geroago, aldiz, adin-tarte horretako 67.047 gazte, hau da, 17.080 gutxiago (%21eko hazkunde negatiboa). Alderantziz gertatu da 65 urte edo gehiago dituztenekin, hazkunde handia izan baitute hamabost urteotan (%63ko hazkunde positiboa). 79.791 ziren 1991n eta 126.026 dira 2006an.

Azken 15 urteotako biztanleriaren jatorriari dagokionez, estatuz gaindiko etorkinek hazkunde handia izan dute. Nafarroan 8.965 atzerritar zeuden 1991n eta 62.782 daude 2006an, hau da, Nafarroako biztanleen %2 izatetik %10,4 izatera iritsi dira.






**1. irudia.** Biztanleriaren piramidea sexuaren, adinaren eta jaioterriaren arabera. Nafarroa, 1991



**2. irudia.** Biztanleriaren piramidea sexuaren, adinaren eta jaioterriaren arabera. Nafarroa, 2006



**1. taula.** 16 urte edo gehiagoko biztanleria lurraldearen eta adinaren arabera. Nafarroa, 2006

Adin-taldeak	16 urte edo gehiagoko biztanleria			
	Nafarroa	E. Euskalduna	E. Mistoa	E. Ez euskalduna
≥ 65	<b>104.700</b>	11.400	49.800	43.500
50-64	<b>102.900</b>	10.600	57.100	35.200
35-49	<b>141.300</b>	13.100	78.000	50.200
25-34	<b>101.500</b>	9.300	57.500	34.700
16-24	<b>58.500</b>	5.600	31.900	21.000
<b>Guztira</b>	<b>508.900</b>	<b>50.000</b>	<b>274.300</b>	<b>184.600</b>

*Iturria:* IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritz, 2006.

## 2. Hizkuntza-gaitasuna


### 2.1. BIZTANLERIA HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERA

2006ko datuen arabera 16 urte edo gehiagoko 508.900 pertsona bizi dira Nafarroan. Horietatik %11,1 (56.400 pertsona) elebidunak dira, hau da, ondo hitz egiten dute euskaraz eta gaztelaniaz. Badira, halaber, beste %7,6 (38.600 pertsona) euskaraz ondo mintzatzeko ez badira ere, ondo ulertzeko gai direnak. Horiek elebidun hartzaileak dira. Gainerako guztiak, hau da, %81,3 (413.900 pertsona) erdaldun elebakarrak dira, ez dakite euskaraz hitz egiten.

**Nafarroako biztanleen %11,1 da elebiduna, %7,6 elebidun hartzailea eta %81,3 erdaldun elebakarra**



## 3. irudia. Hizkuntza-gaitasuna. Nafarroa, 2006 (%)




Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

Eremu euskalduna da elebidunen ehunekorik eta kopururik handiena duena (%60,1 eta 30.000 pertsona, hurrenez hurren). Eremu mistoko elebidunak %8,3 dira, hau da 22.800 pertsona. Eremu ez euskaldunak du Nafarroako elebidunen ehunekorik eta kopururik txikiena (%1,9 eta 3.543 pertsona, hurrenez hurren).

Azaldu berri ditugun datuei benetako neurria hartzeko, garrantzitsua da eremu bakoitzeko biztanle-kopuruak Nafarroako biztanleria osoarekiko duen pisuaz jabetzea. Nafarroako biztanleen erdia baino zertxobait gehiago eremu mistoan bizi da, herena baino gehiago eremu ez euskaldunean eta hamarrena eremu euskaldunean.

## 4. irudia. Hizkuntza-gaitasuna eremuaren arabera. Nafarroa, 2006 (%)



Atzera begiraturaz gero, 1991n baino 16.200 elebidun gehiago daude 2006an. Izan ere, 1991n Nafarroako elebidunak %9,5 ziren, 1996an %9,6, 2001ean %10,3 eta, esan bezala, 2006an %11,1. Era berean, euskaraz ondo hitz egin ez arren, ondo ulertzeko gaitasuna dutenek, hau da, elebidun hartzaileek gora egin dute, biztanleen %4,6 izatetik %7,6 izatera iritsi baitira azken hamabost urteotan. Erdaldun elebakarren jaitziera, aldiz, argia izan da (%85,9tik %81,3ra).

Elebidunen igoera Nafarroako hiru eremu soziolinguistikoetan gertatu da. Halere, alde handiak daude batetik bestera. Eremu ez euskalduneko elebidunak %1,9 dira, baina duela hamabost urte %0,6 ziren. Eremu mistoan ere handia izan da elebidunen hazkundea (%5,2tik %8,3ra). Izan ere, 11.500 elebidun gehiago daude eta bikoiztu egin da kopurua. Eremu euskalduneko elebidunen ehunekoa bere horretan geratu da, %60an alegia.

2. taula. Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera, 1991-2006. Nafarroa (%)

	16 urte edo gehiagoko biztanleria			
	1991	1996	2001	2006
Elebidunak	9,5	9,6	10,3	11,1
Elebidun hartzailak	4,6	9,8	6,6	7,6
Erdaldun elebakarrak	85,9	80,6	83,1	81,3
<b>Guztira</b>	<b>420.700</b>	<b>437.200</b>	<b>468.700</b>	<b>508.900</b>

**Iturria:** IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritzak, 2006.

## 2.2 HIZKUNTZA-GAITASUNA, ADINAREN ARABERA

**Elebidunen ehunekorik handiena 35 urtetik beherako gazteen artean dago. Murtzo hori izan da, hain zuzen ere, azken urteotan bilakaerarik handiena izan duena**

Elebidunen hazkundea 35 urtetik beherako adin-talde guztietan gertatu da. Hazkunderik handiena gazteen artean izan da, Gaur egun, 16 eta 24 urtekoen artean elebidunak %19,1 dira eta 25 eta 34 urtekoen artean, aldiz, %12,5.


Elebidunen ehunekorik txikienak, aldiz, 35 urtetik gorako artean daude. Elebidunen ehunkoa Nafarroako batez bestekoaren azpitik dago adin-talde horietan guztietan (%9 eta %10 artean).

Azken 15 urteotako bilakaerari begiratu gero, elebidunen hazkundea gazteentatik ari da zabaltzen. Murtzori erdaldunena helduena da, baina urteak aurrera egin ahala, murtzo hori elebidunak irabazten ari da azpitik eta erdaldun elebakarrak galtzen zaharretan. Hau da, gazteak gero eta euskaldunagoak diren bitartean, zaharrenen murtzoan (duela 15 urtera arte elebidunen ehunekorik handiena zuen) erdaldun elebakarren ehunkoa hazi egin da.

Elebidun hartzaileen ehunekoa adin-talde guztietan hazi da 65 urte edo gehiagokoan artean izan ezik. Ehunekorik altuena gazteenen artean (%10,2) dago eta txikiena, ordea, 65 urte edo gehiagokoan artean (%2,8). Ikusten denez, alde nabarmena dago bi ehuneko horien artean.

Erdaldun elebakarrei dagokienez, zenbat eta gazteago orduan eta elebakar erdaldun gutxiago. Izan ere, 65 urte edo gehiagokoan artean %88,1 dira erdaldun elebakarrak eta ehunekoa jaisten doa adinean behera egin ahala. Horrela 16-24 urte bitartekoan artean erdaldun elebakarrak %70,6 dira, 25-34 urte bitartekoek baino hamar puntu gutxiago, %80,4 erdaldun elebakarrak baitira adin-talde honetan.

5. irudia. Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. Nafarroa, 2006 (%)



Hortaz, 2001ean antzeman ziren aldaketa-zantzuak errealitate bihurtu dira bost urte beranduago. Gazteenen euskalduntzea agerikoa da (16-24 urte). Gainera, elebidunen eta elebidun hartzaileen gorakadak erdaldun elebakarren jaitsiera handia ekarri du gazteenen artera.

**3. taula.** Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. Nafarroa, 2006 (%)

Adin-taldeak	16 urte edo gehiagoko biztanleria		
	Elebidunak	Elebidun hartzaiak	Erdaldun elebakarrak
≥ 65	9,1	2,8	88,1
50-64	9,0	8,1	82,9
35-49	9,7	10,0	80,3
25-34	12,5	7,1	80,4
16-24	19,1	10,2	70,6
<b>Guztira</b>	<b>11,1</b>	<b>7,6</b>	<b>81,3</b>

**Iturria:** IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

Elebidunen ehunekorik handiena gazteek dute hiru eremuetan. Dena dela, errealitateak oso desberdinak dira. Ikus ditzagun banan-banan.

## Eremu euskalduna

Eremu euskaldunean elebidunak %62,7 dira 65 urtetik gorakoan artean. Baina adinak behera egin ahala elebidunen ehunekoak ere behera egiten du (35 eta 49 urtekoen artean, %51,8). Dena den, 35 urtetik behera joera-aldaketa dago, eta elebidunen ehunekoak gora egiten du berriro ere. Igoera horren ondorioz, elebidunen ehunekorik handiena (%79,6) 16 eta 24 urte bitarteko gazteek dute gaur egun.

Eremu euskalduneko elebidun hartzaielen ehunekoa oso txikia da 16 eta 24 urte bitarteko gazteen artean (%2,1), gainerako bi eremuetan ez bezala. Elebidun hartzaielen gehienak 25-34 eta 35-49 urte bitartekoan artean daude (%17,6 eta %16 hurrenez hurren). 50 urte edo gehiago dituzten elebidun hartzaielen ehunekoa berriro jaisten da nabarmen. Izan ere, elebidun hartzaielen %7,9 50-64 urte bitartekoetan eta %7 65 urte edo gehiagokoetan.

Erdaldun elebakarrak herena edo zertxobait gehiago dira 35 urtetik gorakoan artean. 16-24 eta 25-34 urteko gazteen artean, aldiz, ehunekoak nabarmen egin du behera (%18,3 eta %21,6 dira hain zuzen).

**4. taula.** Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. Eremu euskalduna, 2006 (%)

Adin-taldeak	16 urte edo gehiagoko biztanleria		
	Elebidunak	Elebidun hartzaiak	Erdaldun elebakarrak
≥ 65	62,7	7,0	30,3
50-64	56,7	7,9	35,4
35-49	51,8	16,0	32,3
25-34	60,8	17,6	21,6
16-24	79,6	2,1	18,3
<b>Guztira</b>	<b>60,1</b>	<b>11,0</b>	<b>28,9</b>

**Iturria:** IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritz, 2006.

## Eremu mistoa

Eremu mistoan, elebidunak %5 inguru dira 50 urtetik gorakoen artean. 35 eta 49 urte bitartekoen artean portzentajeak %7,5era egiten du gora, %10,7ra 25 eta 34 urtekoen artean eta %18,1era gazteenen artean (16-24 urte).

Elebidun hartzaielen ehunekorik handiena 35 eta 49 urte bitartekoek (%14) eta 50-64 urte bitartekoek (%13,2) dute. Gainerako adin-taldeetan, elebidun hartzaiak nabarmen jaisten dira, %10 baino gutxiago baitira.

Eremu mistoan, beraz, erabat nagusi dira erdaldun elebakarrak adin-talde guztietan. Ehunekorik handiena 65 urtetik gorakoek badute ere, gainerako adin-taldeen hiru laurden baino gehiago dira. Dena dela, badago alderik gazteenetatik (%76,5 dira 16-24 urte bitartekoen artean) edadetuenetara (%93 dira 65 urte edo gehiagoko dituztenen artean)



**5. taula.** Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. Eremu mistoa, 2006 (%)

Adin-taldeak	16 urte edo gehiagoko biztanleria		
	Elebidunak	Elebidun hartzaileak	Erdaldun elebakarrak
≥ 65	4,2	2,8	93,0
50-64	5,1	13,2	81,7
35-49	7,5	14,0	78,4
25-34	10,7	9,7	79,6
16-24	18,1	5,4	76,5
<b>Guztira</b>	<b>8,3</b>	<b>9,9</b>	<b>81,8</b>

**Iturria:** IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritz, 2006.

## Eremu ez euskalduna

Eremu ez euskalduneko elebidunen ehunekorik handiena gazteenen artean dago (%5 inguru). Gainerako adin-taldeetan oso txikiak dira portzentajeak.

Elebidun hartzaileak ere oso gutxi dira adin-talde guztietan, gazteenen artean izan ezik (%20 inguru).

Beraz, eremu ez euskalduneko ia biztanle guztiak erdaldun elebakarrak dira: %95etik gora adin-talde guztietan gazteenen artean izan ezik. 16-24 urte bitartekoaren artean hiru laurdenak dira erdaldun elebakarrak.


**6. taula.** Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. Eremu ez euskalduna, 2006 (%)

Adin-taldeak	16 urte edo gehiagoko biztanleria		
	Elebidunak	Elebidun hartzaileak	Erdaldun elebakarrak
≥ 65	0,6	1,6	97,7
50-64	1,0	(*)	99,0
35-49	2,2	2,3	95,6
25-34	2,5	(*)	97,5
16-24	4,6	19,7	75,7
<b>Guztira</b>	<b>1,9</b>	<b>3,2</b>	<b>94,8</b>

(\*) ehunekoa 0,1 baino txikiagoa da.

**Iturria:** IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritz, 2006.

**6. irudia.** Hizkuntza-gaitasuna eremuaren eta adinaren arabera. Nafarroa, 2006 (%)



**Iturria:** IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritz, 2006.

### 2.3. TALDEEN EZAUGARRIAK HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERA

Hizkuntza-gaitasunaren tipologia osatzen duten hiru taldeetako bakoitzaren (elebidunen, elebidun hartzaileen eta erdaldun elebakarren) ezaugarriak ikusiko ditugu jarraian.

Elebidunen ezaugarriak honakoak dira:

- Eremu euskaldunean edo mistoan bizi dira eta gurasoak bertakoak dituzte.
- Erdiak baino gehiagok euskara dute lehen hizkuntza eta heren batek euskaraz egin ditu oinarrizko eta bigarren mailako ikasketak. Bostenak, gainera, eskolatik kanpo ikasi edo hobetu du euskara.
- Elebidunen erdiak baino gehiagok gurasoak, biak, elebidunak dituzte. Halere, bada talde handi bat (laurdena baino gehiago) guraso erdaldunak dituena.
- Euskararekiko interes handia dute eta euskara sustatzearen alde daude.

Elebidun hartzaileen ezaugarriak, aldiz, beste hauek dira:

- Gehienek gaztelania dute lehen hizkuntza eta gaztelaniaz egin dituzte oinarrizko eta bigarren mailako ikasketak.
- Oro har, familia, lagunartea eta lan-giroa erdaldunak dituzte, baina elebidun hartzaile gehienek seme-alabek euskaraz dakite.
- Gehienak eremu mistoan bizi dira.
- Euskararekiko interes handia dute eta euskara sustatzearen alde daude.

Azkenik, erdaldun elebakarrak honelakoak dira:


- Gehienak bertakoak diren arren, etorkinak ere gero eta gehiago dira, azken urteotan etorritakoak, hain zuzen ere.
- Ia denek gaztelania dute lehen hizkuntza edo euskara ez den besteren bat.
- Eremu mistoan eta ez euskaldunean bizi dira.
- Ehuneko hamabost euskara ikasten ahalegindu dira eskolatik kanpo.
- Euskararekiko interes txikia dute, baina lautik bat euskara sustatzearen alde dago.

## 2.4. HIZKUNTZA-GAITASUN ERLATIBOA

Elebidunak hiru multzotan banatu ditzakegu, euskaraz edo gaztelaniaz hitz egiteko daukaten erraztasun handiagoaren edo txikiagoaren arabera.

**Elebidunen ia herena hobeto moldatzen da euskaraz gaztelaniaz baino. Proporzio hori erdira jaisten da 25 urtetik beherako gazteen artean**

7. irudia. Elebitasun-mota (elebidunak). Nafarroa, 2006 (%)




**Euskal elebidunak** euskaraz gaztelaniaz baino errazago moldatzen direnak dira. Elebidunen %26,2 dira eta Nafarroako 16 urtetik gorako biztanleen %2,9. Euskal elebidunen ehunekorik handiena 65 urtetik gorakoen artean dago (%45,1), eta adinak behera egin ahala, behera egiten du ehuneko horrek. Izan ere, 16-24 urte arteko gazteen %15 dira euskaraz hobeto moldatzen direnak. Euskal elebidun ia guztiek euskara izan dute lehen hizkuntza (%92). Gehienak eremu euskaldunean bizi (%81) arren, hamarretik bat (%11) eremu mistoan bizi dira.

**Elebidun orekatuak**, aldiz, berdin moldatzen dira euskaraz eta gaztelaniaz. Elebidunen %29,6 dira eta Nafarroako 16 urtetik gorako biztanleen %3,3. Elebidun orekatuen ehunekorik handiena 25 eta 50 urte bitartekoen artean dago (erdia baino gehiago). Eremu euskaldunean (%55) bizi dira erdia baino gehiago, baina hamarretik ia lau (%39) eremu mistoan. Gehienek (%58) lehen hizkuntza euskara izan badute ere, lautik batek (%26) umetan gaztelania soilik jaso du etxean.

**Erdal elebidunak** hobeto moldatzen dira gaztelaniaz euskaraz baino. Elebidunen multzorik handiena (%44,2) eta Nafarroako biztanleen %4,9 dira. Erdal elebidunen proportzioa handiagoa da adinak behera egin ahala. Horrela, 16 eta 24 urte arteko gazte elebidunen erdiak baino gehiagok (%55,4) errazago hitz egiten dute gaztelaniaz euskaraz baino. Erdal elebidunen erdia baino gehiago (%58) eremu mistoan bizi dira eta %32 eremu euskaldunean. Lehen hizkuntzari dagokionez, gehienek (%58) gaztelania izan dute lehen hizkuntza eta laurdena pasatxok (%27) euskara.

8. irudia. Elebitasun-mota adinaren arabera (*elebidunak*). Nafarroa, 2006 (%)




1991 eta 2006 bitartean, hizkuntza-gaitasun erlatiboak izan dituen gorabeherak txikiak izan dira. Hala ere, esan daiteke euskal elebidunen ehunekoa txikiagoa dela eta zertxobait handiagoa erdal elebidunena eta orekatuena.

Nafarroa oro har harturik, gaitasun erlatiboaren arabera dauden hiru multzoak berdintsuak diren arren, eremuen artean alde handiak daude. Eremu euskaldunean euskaraz errazago elebidunen ia erdiak (%42,6) hitz egiten du. Ia herena (%30,8) berdin moldatzen da euskaraz zein erdaraz, eta gainerako laurden pasatxok (%26,7) erraztasun handiagoa du erdaraz.

Eremu mistoan, berriz, nagusi dira (%63,9) erdaraz hobeto moldatzen diren elebidunak. Elebidun orekatuak laurdena pasatxo (%28,7) dira eta euskal elebidunak %7,4.

Eremu ez euskaldunean, elebidunen portzentajea %1,9koa baino ez denez, lagina ez da nahikoa elebidunak gaitasun erlatiboaren arabera sailkatzeko. Nolanahi ere, esan dezakegu erdaraz hobeto moldatzen direnak nagusi direla.

9. irudia. Elebitasun-mota (elebidunak) eremuaren arabera. Nafarroa, 2006 (%)



7. taula. Elebitasun-mota lurraldearen arabera (*elebidunak*). Nafarroa, 2006 (%)

Elebitasun-mota	16 urte edo gehiagoko biztanleria			
	Nafarroa	Eremu euskalduna	Eremu Mistoa	Eremu ez euskalduna
Euskal elebidunak	26,2	42,6	7,4	8,3
Elebidun orekatuak	29,6	30,8	28,7	25,0
Erdal elebidunak	44,2	26,7	63,9	66,7

**Iturria:** IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

### 3. Hizkuntzaren transmisioa


#### 3.1. LEHEN HIZKUNTZA, EREMUAREN ARABERA

**Lehen hizkuntza gaztelania dutenak erabat nagusi dira Nafarroa osoan eremu euskaldunean izan ezik. Bertan lehen hizkuntza euskara dutenak erdia baino gehiago dira**

Lehen hizkuntzari buruz ari garenean, umeak 3 urte bete arte gurasoengandik edo umearekin bizi diren senitartekoengandik jasotako hizkuntzari edo hizkuntzei buruz dihardugu. Halere, 3 urte baino gutxiago duten umeen eskolatzetarako kontuan hartuta, argi dago gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dela eskola hizkuntzaren transmisioan ere. Nolanahi ere, kontuan hartu behar da inkesta soziolinguistikoa unibertsoa 16 urte edo gehiagokoek osatzen dutela, eta horiek 3 urte edo gutxiago zutenean haur-eskolan

zegoen ume-kopurua oraingoa baino askoz txikiagoa zela. Hortaz, fenomeno berri horrek ez du hauengan eraginik izan.

Nafarroako hamar biztanletik bederatzik (%90,4) gaztelania dute lehen hizkuntza. Euskara dutenak %6,4 dira eta biak dituztenak %3,2. Lehen hizkuntza gaztelania dutenak erabat nagusi dira eremu mistoan (%93,7) eta erdaldunean (%98,5). Eremu euskaldunean, berriz, ia erdiak (%47,9) euskara izan du lehen hizkuntza, %10,2k biak eta %42k erdara.

**10. irudia.** Lehen hizkuntza. Nafarroa, 2006 (%)

**Iturria:** IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.


**8. taula.** Lehen hizkuntza eremuaren arabera. Nafarroa, 2006 (%)

Lehen hizkuntza	16 urte edo gehiagoko biztanleria			
	Nafarroa	Ereму euskalduna	Ereму Misto	Ereму ez euskalduna
Euskara	6,4	47,9	2,8	0,7
Euskara eta gaztelania	3,2	10,2	3,5	0,9
Gaztelania	90,4	42,0	93,7	98,5

**Iturria:** IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.




11. irudia. Lehen hizkuntza eremuaren arabera. Nafarroa, 2006 (%)



### 3.2. LEHEN HIZKUNTZA, ADINAREN ARABERA

Lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekorik handiena 65 urte edo gehiagoko helduen artean dago (%8,5). Ehuneko horrek behera egiten du adinarekin batera. Baina gazteen artean (24 urtetik beherakoen artean) joera-aldaketa dago. 16-24 urte artekoen artean handiagoa da bai euskara (%5,8) bai euskara eta gaztelania (%4,3) dutenen ehunekoa 25-34 urte artekoen ehunekoa baino (%5ek euskara soilik eta %1,9k euskara eta gaztelania).

**12. irudia.** Lehen hizkuntza adinaren arabera. Nafarroa, 2006 (%)


Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

Eremuen araberrako azterketa eginez gero, nabarmena da euren arteko aldea.

Lehenago gertatu zaigun bezala, eremu ez euskaldunetan lagina ez da nahikoa euren lehen hizkuntza adinaren arabera sailkatzeko. Nolanahi ere, esan dezakegu adin-talde guztiak kontuan hartuta %98,5ek gaztelania dutela lehen hizkuntza.


Eremu mistoan ere lehen hizkuntza gaztelania dutenak erabat nagusi dira adin-talde guztietan, hamarretik bederatzik baino gehiagok gaztelania hutsa dute lehen hizkuntza, 65 urte edo gehiagokoek izan ezik (%86,8). Lehen hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelania jaso dutenen ehunekorik handiena, %13,2 hain zuzen, 65 urte edo gehiagokoaren artean dago, eta behera egiten du adinak behera egin ahala gazteenen artean iritsi arte. Azken adin-talde horretan %6,5 dira lehen hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelania dutenak.

Eremu euskalduneko egoera bestelakoa da. Lehen hizkuntza euskara edo biak dituztenak nagusi dira adin-talde guztietan. Horien artean, lehen hizkuntza euskara bakarrik duten ehunekoak behera egiten du adinak behera egin ahala (65 urtetik gorakoaren artean %64, 25 eta 34 urtekoaren artean, berriz, %41,1). Baina beherakada hori lehen hizkuntza biak dituzten gorakadarekin konpentsatu da. Izan ere, zaharrenen artean %10,1 dira eta gazteenen artean %18,8. Lehen hizkuntza erdara duten ehunekoak gora egiten du adinak behera egin ahala (65



urtetik gorakoen artean %33,2 eta 25 eta 34 urtekoen artean %47,6) gazteenetara iritsi arte. Gazteenen artean (16 eta 24 urte), behera egin du lehen hizkuntza gaztelania dutenen ehunekoak (%39,3) lehen hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelania dituztenen igoerari esker (%42 eta %18,8 hurrenez hurren).


**13. irudia.** Lehen hizkuntza eremuaren eta adinaren arabera. Nafarroa, 2006 (%)



### 3.3 LEHEN HIZKUNTZA, HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERA

Nafarroako 16 urte edo gehiagoko elebidunen erdiak baino gehiagok (%53,1) euskara izan dute lehen hizkuntza, %13,1ek euskara eta gaztelania eta herenak (%33,8) gaztelania. Azken horiek euskaldun berriak dira eta eskolan edo euskaltegian ikasi dute euskara. Azpimarratzekoa da elebidunen artean multzo hori hartzen ari den pisua.

14. irudia. Lehen hizkuntza (elebidunak). Nafarroa, 2006 (%)



Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

### 3.4. FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA

**Gaur egun, aita eta ama elebidunak direnean, euskararen transmisioa ziurtatuta dago ia erabat**

Familia bidezko transmisioaz dihardugunean, ume batek gurasoengandik jaso duen hizkuntzari edo hizkuntzei buruz ari gara. Inkesta soziolinguistikoaren kasuan, unibertso osoa kontuan hartuz gero, gurasoengandik seme-alabenganako transmisioa azken 100 bat urteotan nolakoa izan den ezagutzeko aukera dugu.

Nafarroako 16 urtetik gorako biztanle guztiak kontuan hartuz gero, gurasoak, biak, euskaldunak izanik, seme-alaben %66,2k euskara jaso du haiengandik, %16,4k euskara eta gaztelania eta %17,3k gaztelania bakarrik. Euskalduna gurasoetako bat baino ez izanik, euskara jaso dutenen ehunekoa txikia da (%2,6) eta euskara eta gaztelania jaso dutenena %16,3. Hortaz, gehienek (seme-alaben %81,1) gaztelania jaso dute gurasoengandik.

**9. taula.** Lehen hizkuntza gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera. Nafarroa, 2006 (%)

	Guraso euskaldunak		
	Biak	Bietako bat	Ez bata, ez bestea
Seme-alaben lehen hizkuntza			
Euskara	66,2	2,6	
Euskara eta gaztelania	16,4	16,3	0,3
Gaztelania	17,3	81,1	99,7

**Iturria:** IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

Emaitza horiek, baina, ez digute gaur egun familia bidez euskara nola transmititzen den erakusten, XX. mende ia osoa oro har hartuta nolakoa izan den baizik.

Nafarroan azken hamar urteotan euskara nola transmititu den ezagutzeko, 2 eta 9 urte bitarteko seme-alabak dituzten inkestatuak hartuko ditugun kontuan.


Bikotekideen hizkuntza-gaitasunak erabat baldintzatzen du seme-alabei transmititzen zaien lehen hizkuntza. Gurasoak elebidunak direnean seme-alaben %98k euskara jasotzen du etxean. Horietako gehienek (10etik zortzik baino gehiagok) euskara bakarrik jaso dute eta gainerakoek euskara gaztelaniarekin batera (%17,2).


Bikotekideetako batek euskaraz ez dakienean, aldiz, hamarretik batek baino gutxiagok jaso du euskara bakarrik. Halere, bikote misto horietako seme-alaben artean, euskara eta gaztelania jaso dutenen portzentajea handia da, erdia baino gehiago (%67) baitira.

Hortaz, esan daiteke bikote euskaldun ia guztiek euskara transmititzen dietela seme-alabei gaur egun, eta gero eta gehiago direla hizkuntza biak (euskara eta gaztelania) transmititzen dituzten bikoteak.

Gertakari hori bikotekideen hizkuntza-gaitasunarekin dago lotuta. Izan ere, guztiak elebidunak diren arren, azken urteotako hizkuntzaren berreskuratze-prozesuaren ondorioz, bikotekide euskaldun berriak gero eta gehiago dira gurasoen eta gurasogaien artean, eta horiek seme-alabei euskara transmititzen badiete ere, gero eta gehiago dira gaztelaniarekin batera transmititzen dutenak.

15. irudia. Lehen hizkuntza gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera. Nafarroa, 2006 (%)





### 3.5. HIZKUNTZA-BILAKAERA: EUSKARAREN IRABAZIAK ETA GALERAK



Euskararen irabaziak (euskaldun berriak) galerak baino gehiago dira Nafarroan. Irabazien hazkundera eta galeren ia desagertzea gazteen artean antzematen da bereziki

Lehen hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelania izan duten gehienek euskara gorde dute eta elebidunak dira gaur egun. Halere, badira lehen hizkuntza euskara izan arren, gaur egun elebidunak ez diren 11.700 lagun, hau da, euskara guztiz edo partez galdu dutenak. Galera horien herena pasatxo (%38,7) galera partziala da, hau da, pertsona horiek euskaraz ondo hitz egin ez arren, ondo ulertzeko gai dira. Gainerako %61,3k erabat galdu dute euskara.

Baina, aldi berean, lehen hizkuntza gaztelania izan arren, euskara ikasi eta gaur egun elebidun diren 19.000 pertsona daude.

Aitzitik, irabaziei buruz ari garenean, irabazi osoei buruz ari gara. Izan ere, badira beste 34.100 lagun lehen hizkuntza gaztelania izan arren, gaur egun euskaraz ondo ulertzeko gaitasuna dutenak, baina horiek ezin ditugu irabazien artean sartu oraindik.


16. irudia. Euskararen galerak eta irabaziak. Nafarroa, 2006 (%)



Euskara irabazi dutenen ehunekoa, euskaldun berriena hain zuzen, oso desberdina da hiru eremuetan: %7,2 euskaldunean, %5 mistoan eta %1 ez euskaldunean.

Adinaren arabera ere alde esanguratsuak daude. Euskara irabazi dutenen ehunekoa txikia da 50 urtetik gorakoan artean (%2 baino gutxiago batez beste). Baina 50 urte baino gutxiago dituztenen artean, euskaldun berrien ehunekoak gora egingen du adin-talde batetik aurrera (49 eta 35 urtekoen artean %3,5, 34 eta 25 urtekoen artean %5,8 eta 24 eta 16 urtekoen artean %9,3).

17. irudia. Euskararen galerak eta irabaziak adinaren arabera. Nafarroa, 2006 (%)



Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.



10. taula. Euskararen galerak eta irabaziak adinaren arabera. Nafarroa, 2006 (%)

Adin-taldeak	Euskararen irabaziak eta galerak		
	Irabaziak	Galera partzialak	Galera osoak
>=65	0,5	-1,3	-3,8
50-64	2,2	-1,5	-0,8
35-49	3,5	-0,9	-1,6
25-34	5,8	-0,2	0
16-24	9,3	-0,2	0
<b>Guztira</b>	<b>3,7</b>	<b>-0,9</b>	<b>-1,4</b>

Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

Euskara **irabazi** dutenen ezaugarri nagusiak honakoak dira:

- Gehienak gazteak dira. Erdiak baino gehiagok (%59) 35 urte baino gutxiago dute. Halere, euskara irabazi dutenen laurdena (%26) 35 eta 49 urte bitarteko multzoan dago.
- Ia erdiak (%41) euskaraz egin ditu oinarrizko ikasketak, eta erdiak baino gehiagok (%65) eskolaz kanpo ikasi edo hobetu du euskara.
- Hiru laurdenak (%76) errazago moldatzen dira gaztelaniaz euskaraz baino.
- Ia hiru laurdenak (%72) eremu mistoan bizi dira.

Euskara **galdu** dutenak, aldiz, honako ezaugarri hauek dituzte:

- Ia denek (%97) 35 urte baino gehiago dituzte.
- Hiru laurdenak (%76) euskara eta gaztelania izan du lehen hizkuntza.
- Inork ez ditu oinarrizko ikasketak euskaraz egin, eta ia hiru laurdena (%72) ez da inoiz eskolaz kanpo euskara ikasten ahalegindu.
- Gehienak (%69) eremu mistoan bizi dira.

Euskaldun zaharrek lehen hizkuntza euskara izan dute eta gaur egun elebidunak dira. Erdaldun zaharrek, aitzitik, lehen hizkuntza erdara izan dute eta erdaldun elebakarrak izaten jarraitzen dute.


Bi multzo horiek oso bestelakoak izan arren, badute antzekotasunik. Esate baterako, euskaldun zaharren eta erdaldun zaharren ehunekorik handienak 65 urtetik gorakoen artean daude (%7tik gora dira euskaldun zaharrak eta %84tik gora erdaldun zaharrak).

Dena dela, adinean behera egin ahala erdaldun zaharren ehunekoa jaisten doa oro har eta 25 urtetik beherakoetara iristean beherakada nabarmena du. Esate baterako, 25 eta 39 urtekoen artean erdaldun zaharrak %80,4 dira, baina 16 eta 24 urtekoen artean ia hamar puntuz jaisten da, %70,6 baitira.

Euskaldun zaharren ehunekoak ere behera egiten du 64 urte baino gutxiago dituztenen artean eta %5 inguruan dago 49 urtetik beherakoen artean adin-talde guztietan.

Baina, euskaldun berrienarekin batera, adinak behera egin ahala hazkunde handia izan duen multzoa jatorrizko elebidunena da. Jatorrizko elebidunak euskara eta gaztelania izan dute lehen hizkuntza eta gaur egun ondo hitz egiten dute euskaraz. 25 urte baino gehiago dituztenen artean jatorrizko elebidunak %2 baino gutxiago dira. 16 eta 24 urtekoen artean, aldiz, ehunekoa bikoiztu egin da, %4 baino gehiago baitira.

18. irudia. Hizkuntza-bilakaeraren indizea adinaren arabera. Nafarroa, 2006 (%)



## 4. Euskararen erabilera

### 4.1. EUSKARAREN ERABILERAREN TIPOLOGIA


Eremu jakin batzuetan (etxean, familiako kideekin, lagunekin, dendariekin, lanean, eremu formal publikoetan eta pribatuetan) banan-banan euskararen erabilera nolakoa den jasotzen du inkesta soziolinguistikoak. Beraz, eremu horietako bakoitzean zenbat euskara erabiltzen den eta azken urteotako bilakaera nolakoa izan den jakin badakigu. Baina euskarak gizartean oro har duen erabileraz jabetzeko, 2001ean indize bat eratu zuen Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak: indize horri euskararen erabileraren tipologia izena jarri zitzaion.

Euskararen erabilera neurtzeko tipologiak honako eremu hauek ditu kontuan: etxea, lagunartea eta eremu formala. Eremu formalak lau azpi-eremu hartzen ditu bere baitan: osasun- eta udal-zerbitzuak esparru publikoan, eta auzoko dendak eta finantza entitateak (bankuak eta kutzak) esparru pribatuan.

Erabileraren tipologia inkesta soziolinguistikoak aztergai duen unibertso osoari, hau da, 16 urte edo gehiagoko biztanleriari aplikatu zaio, 508.961 laguni hain zuzen.

Erabileraren tipologiaren arabera, Nafarroako biztanleen %5,6k euskara gaztelania beste (%2,4) edo gehiago (%3,2) erabiltzen du eguneroko jardunean, %4,1ek gaztelania erabiltzen du nagusiki eta %90,3k ez du euskararik erabiltzen.


19. irudia. Euskararen erabilera. Nafarroa, 2006 (%)




Azken 15 urteotako bilakaera aztertuz gero, euskararen erabilera ez da ia aldatu ehunekoan. 1991n, Nafarroako biztanleen %5,9k erabiltzen zuten euskara gaztelania beste (%2,2) edo gehiago (%3,7). Hamar urte beranduago, 2001ean, %5,8 ziren euskara gaztelania beste (%1,6) edo gehiago (%4,2) erabiltzen zutenak. 2006an %5,6k erabiltzen dute euskara gaztelania beste (%2,4) edo gehiago (%3,2).

Aldi berean, multzorik handiena alde handiz gaztelania hutsean mintzatzen direnen ehunekoa izateaz gain, ez du ia aldaketarik izan. Ikus ditzagun datuak: %90,9 mintzatzen ziren gaztelaniaz soilik 1991n, %89,9 bost urte geroago eta 2006an, esan bezala, %90,3.

20. irudia. Euskararen erabilerearen bilakaera. Nafarroa, 1991-2006 (%)





Dena dela, erabilerari buruzko emaitzetan alde handiak daude eremu euskaldunaren, mistoaren eta ez euskaldunaren artean. Izan ere, euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzen dutenak %46,5 dira eremu euskaldunean, %1,8 eremu mistoan eta %0,3 eremu ez euskaldunean. Horiekin batera, euskara gaztelania baino gutxiago erabiltzen dutenena talde esanguratsua da, batez ere eremu euskaldunean eta eremu mistoan: %10,5 eta %4,7 hurrenez hurren. Txikiagoa da, ordea, (%1,4) eremu ez euskaldunean.



Emaitza horien arabera, gaztelania hutsean mintzatzen direnen portzentajea ere alde handiak daude eremu batetik bestera. Eremu euskaldunetan, adibidez, gaztelania hutsean hitz egiten dutenak ez dira erdira iristen (%43,1). Eremu mistoan, ordea, hamarretik bederatzik baino gehiago dira (%93,5) gaztelania hutsean mintzatzen direnak eta ia denak eremu ez euskaldunetan (%98,4).

Bestalde, eremu euskaldunetan erabilerak izan duen bilakaerari erreparatuz, duela 15 urtekoaren berdintsua dela ondorioztatzen da, ez da aldaketa aipagarrikerik izan. Izan ere, %46,8k erabiltzen zuten 1991n euskara gaztelania beste edo gehiago eta, %11,4k euskara gaztelania baino gutxiago eta %41,9 ziren gaztelania hutsean mintzatzen zirenak.

21. irudia. Euskararen erabilera eremuaren arabera. Nafarroa, 2006 (%)



Euskararen erabilerari buruzko datuak gune soziolinguistikoaren arabera aztertuz gero, aldeak Nafarroako hiru eremuen artekoak baino handiagoak direla konturatuko gara. Euskaldunak %20 baino gutxiago diren guneetan, 1. gune soziolinguistikoan alegia, %1,2k baino ez du euskaraz gaztelaniaz beste edo gehiago hitz egiten. Badago, hala ere, talde bat (%3,4) gaztelania baino gutxiago bada ere, euskara ere erabiltzen duena. Lehenengo gune soziolinguistikoan gehiengo handia (%95,4) gaztelania hutsean mintzatzen da.

2. gune soziolinguistikoan (euskaldunak %20 eta %50 bitartean) ere gaztelania da gehien erabiltzen den hizkuntza, %84,9k hain zuzen erabiltzen dute gaztelania soilik. Euskaraz gaztelaniaz beste edo gehiago hitz egiten dutenak %4,1 dira, eta gaztelania baino gutxiago bada ere, euskara erabiltzen dutenak %11.


3. gune soziolinguistikoan (euskaldunak %50 eta %80 bitartean), bizilagunen ia erdiak (%48,8) euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzen du, %18k euskara gaztelania baino gutxiago, eta heren batek (%33,2) ez du euskara erabiltzen.

4. gune soziolinguistikoan (euskaldunak >%80) erdiak baino gehiagok (%60,1) euskara erabiltzen dute nagusiki, %23,5ek euskara gaztelania beste eta %5,6k adierazten dute euskaraz egiten duela, baina gaztelania baino gutxiago. Azkenik, laugarren guneko hamarrena (%10,8) gaztelania hutsean mintzatzen da.

Guneen araberrako erabileran ez da aldaketa nabarmenik izan azken hamabost urteotan, 3. gunean izan ezik. Gune horretan 1991n %43,1ek erabiltzen zuen euskara gaztelania beste edo gehiago, hau da, bost puntutan egin du gora erabilerak.

Gune soziolinguistikoaren araberrako emaitzei benetako neurria hartzeko, lagungarria da gune bakoitzeko biztanleek Nafarroako biztanleria osoarekiko duten pisuaz jabetzea. Izan ere, lehen gunean Nafarroako biztanleen %90,6 bizi da, bigarren gunean Nafarroako biztanleen %3,1, hirugarren gunean %2,5 eta laugarrenean %3,8.

## 22. irudia. Euskararen erabilera gune soziolinguistikoaren arabera. Nafarroa, 2006 (%)




Oharra: zirkuluen tamaina gune bakoitzeko biztanleriaren arabera da.

Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

Bestalde, hizkuntza berreskuratzeko prozesuan lan-munduak duen garrantzia ezin ahaztuta, euskarak lan-munduan duen presentziak euskararen erabilerearen indizeari nola eragiten dion jakin nahi izan dugu. Horretarako, euskararen erabilerearen tipologia laneko erabilerearekin osatu dugu.

Baina erabilerearen tipologia osatu hori ezin zaio unibertso osoari aplikatu, lan egiten dutenei baizik. Hortaz, 16 urtetik gorako landunei buruz ari gara orainoan: 252.100 lagun, unibertso osoaren %49,5.

**23. irudia.** Euskararen erabileraren bilakaera (lanean). Nafarroa, 1991-2006 (%)

Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritz, 2006.

Datuei begiratu gero, laneko erabileraren eragina argia da indizean. Oro har, euskaraz gaztelaniaz beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoa oso antzekoa bada ere (%5,6 lehenengo tipologian eta %5,2 bigarrean), lanean ari direnen artean gutxiago dira euskaraz gaztelania baino gehiago erabiltzen dutenak (%2,1 vs %3,2) eta gehiago, aldiz, euskara gaztelania beste hitz egiten dutenak (%3,1 vs %2,4). Aldi berean, gehiago dira gaztelania baino gutxiago bada ere, euskara erabiltzen dutenak (%5,4 vs %4,1) eta gutxiago gaztelania hutsean mintzatzen direnak (%89,5 vs %90,3).

Beraz, laburbilduz esan daiteke lan egiten dutenen artean gutxiago direla, alde batetik, nagusiki euskaraz hitz egiten dutenak eta, bestetik, euskararik erabiltzen ez dutenak, eta gehiago euskaraz gaztelaniaz beste edo gutxiago mintzatzen direnak. Joera hori, oro har, lurralde, gune eta, aurrerago ikusiko dugunez, adin-talde guztietan ematen da.



## 4.2. EUSKARAREN ERABILERAREN TIPOLOGIA, ADINAREN ARABERA

**Gazteak eta zaharrak dira eguneroko jardunean euskara gehien erabiltzen dutenak**


Adin-talde guztietan erabat nagusi da gaztelaniaren erabilera (batez beste %90 inguru). Halere, 25 urtetik beherakoen artean, gaztelaniaren erabilera (%84,7) behera egiten ari da.

Euskara gaztelania beste (%3,6) edo gehiago (%3,1) erabiltzen dutenen ehunekorik handiena 16 eta 24 urte bitarteko gazteek dute (%6,7). Ondoren, 65 urtetik gorako zaharrak daude (%6,2). Esan behar da, hala

ere, zaharren artean gazteen artean baino gehiago direla euskaraz gaztelaniaz baino gehiago mintzatzen direnak, hau da, nagusiki euskara erabiltzen dutenak (%4,8 vs %3,1), baina aldea konpentsatu egiten dela hizkuntza biak neurri bertsuan erabiltzen dutenekin.

34 urtetik 25 urtera bitartean, %5,3k euskara erabiltzen du, baina gaztelania baino gutxiago. Multzo hori handituz doa adinak behera egin ahala: 16 eta 24 urte bitarteko gazteen artean %8,6 dira.

**24. irudia.** Euskararen erabilera adinaren arabera. Nafarroa, 2006 (%)




Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

65 urtetik gorakoen artean euskara gutxiago erabiltzen da gaur egun 1991n baino. Izan ere, adin horretako %7,3k euskara gaztelania beste (%2,3) edo gehiago (%5) erabiltzen zuen 1991n. Gaur egun, aldiz, %6,2k erabiltzen du euskara gaztelania beste (%1,4) edo gehiago (%4,8). Gertakari hori ez da harritzekoa. Izan ere, helduen multzoa, hau da, betidanik erdaldunena izan dena zahartzen doan neurrian, erdalduntzen ari da orain gutxira arte euskaldunen ehunekorik handiena izan duen taldea, zaharrena hain zuzen.

35 eta 64 urtekoen artean ere euskara erabiltzen dutenen ehunekoa zertxobait txikiagoa da gaur egun (%5 inguru) 1991n baino (%6). Baina 35 urte baino gutxiago dutenen artean, euskara gehiago erabiltzen da gaur egun 1991n baino. Hona hemen datuak: 34 eta 25 urtekoen artean %5,3 vs %4, eta 16 eta 24 urtekoen artean %6,7 vs %5,7.

Beraz, azken 15 urteotako erabileraren bilakaeraren azterketatik atera daitekeen ondorioa da joera aldatu egin dela erabileran, gazteenen erabilerari erreparatuz gero, ehunekoetan aldaketa txikia den arren. Duela 15 urte zaharrenak ziren gehien erabiltzen zutenak, eta adinak behera egin ahala gutxituz zihoan euskara erabiltzen zutenen ehunekoa. Gaur egun 25 urte baino gutxiago dituztenen artean, ordea, hazi egin da euskara erabiltzen dutenen ehunekoa. Dena dela, zaharrenen artean euskara erabiltzen dutenen ehunekoak handiena izaten jarraitzen du.

**25. irudia.** Euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera adinaren arabera. Nafarroa, 1991-2006 (%)



Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

Hiru eremuak kontuan hartuz, euskararen erabilerrari buruz azaldu berri diren joerak errepikatu egiten dira oro har, bakoitzak duen erabilera-mailaren arabera jakina, batez ere eremu euskaldunean eta mistoan. Hortaz, eremu euskaldunean zein mistoan 16 eta 24 urte bitarteko gazteak dira euskara gehien erabiltzen dutenak.

Dena dela, eremu euskaldunean nagusiki euskara erabiltzen dutenengan soilik erreparatzen badugu, 65 urtetik gorakoak dira erabilera-ehunekorik handiena dutenak.

Bestalde, euskara gaztelania beste erabiltzen duten gazteak zaharren ia hirukoitza dira eremu euskaldunean zein mistoan.

Erdara hutsean mintzatzen direnen ehunekoak behera egin du adinak behera egin ahala hiru eremuetan. Adin-talde guztietan gaztelania hutsean mintzatzen direnen ehunekorik handiena eremu ez euskaldunak du (%98tik gora 25 urtetik gorako artean eta %94,7 gazteen artean). Eremu mistoan gaztelania hutsean hitz egiten dute %90ek baino gehiagok 25 urtetik gorako artean eta %85,8k gazteen artean. Eremu euskalduna da ehunekorik txikiena duena alde handiz, batez ere gazteen artean (%29,2). Gainerako adin-taldeetan %40tik gora dira gaztelania hutsean mintzatzen direnak.


### 4.3. EUSKARAREN ERABILERA ELEBIDUNEN ARTEAN

Gero eta lagun gehiagok daki euskaraz, baina, gaur egun elebidunen artean euskara erabiltzen dutenen ehunekoa lehen erabiltzen zutenena baino handiagoa ala txikiagoa da? Galdera horri erantzuten ahaleginduko gara jarraian.

Hasteko, unibertsoa mugatuko dugu. Nafarroako 16 urtetik gorako elebidunak 56.384 dira, unibertso osoaren %11,1. Horietako %26,2 euskal elebidunak dira, %29,6 elebidun orekatuak eta %44,2 erdal elebidunak. Adinari dagokionez, elebidunen %42,3 gazteak dira (35 urte baino gutxiago dituzte), %40,8 helduak dira (35-64 urte) eta %16,8 zaharrak ( $\geq 65$  urte). Eta lehen hizkuntzari dagokionez, erdia baino gehiago (%53) euskaldun zaharrak dira, %13 jatorrizko elebidunak eta %34 euskaldun berriak. Beraz, hiru elebidunetatik bik etxean jaso dute euskara eta herenak eskolan edo euskaltegian ikasi du euskara.

Elebidunen %48,9k euskara gaztelania beste (%20,1) edo gehiago (%28,8) erabiltzen du, %33,2k euskara erabiltzen du, baina gaztelania baino gutxiago, eta %18k ez du euskararik erabiltzen.


26. irudia. Elebidunen euskararen erabilera. Nafarroa, 2006 (%)




Euskara gehien erabiltzen dutenak euskal elebidunak dira. Horietako %75,8k erabiltzen dute nagusiki eguneroko bizimoduan eta %17,3k gaztelania beste.

Elebidun orekatuen artean euskara gaztelania baino gehiago erabiltzen dutenak laurdena baino gutxiago dira (%23), baina handia da euskaraz gaztelaniaz beste hitz egiten dutenen proportzioa (%35,7).

Azkenik, erdal elebidunak dira euskara gutxien erabiltzen dutenak. Izan ere, %4,9k erabiltzen dute euskara gaztelania baino gehiago eta %11,3k euskara gaztelania beste. Erdal elebidun gehienek (%47,2) euskara erabiltzen dute eguneroko bizimoduan, baina gaztelania baino gutxiago.




**27. irudia.** Elebidunen euskararen erabilera elebitasun-motaren arabera. Nafarroa, 2006 (%)



Nafarroako elebidunen artean 65 urtetik gorakoak dira (%52,9) nagusiki euskara erabiltzen dutenen artean gehiengoa. Adin horretatik behera euskara nagusiki erabiltzen dutenen ehunekoak behera egiten du nabarmen: 25 eta 34 urtekoen artean %19 eta 16 eta 24 urtekoen artean %16,1.

**28. irudia.** Elebidunen euskararen erabilera adinaren arabera. Nafarroa, 2006 (%)



**11. taula.** Elebidunen euskararen erabilera adinaren arabera. Nafarroa, 2006 (%)

Euskararen erabilera	Adin-taldeak				
	>=65	50-64	35-49	25-34	16-24
Euskara gaztelania baino gehiago	52,9	35,8	26,7	19,0	16,1
Euskara gaztelania beste	13,3	18,0	25,6	21,7	18,8
Euskara gaztelania baino gutxiago	20,5	29,8	32,0	40,6	39,6
Gaztelania bakarrik	13,3	16,3	15,7	18,7	25,5


**Iturria:** IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

Azken 15 urteotako bilakaeran badira zenbait joera. 1991ko datuei begiratuz gero, nagusiki euskara erabiltzen zuten elebidunen proportzioa gaur egungoa baino handiagoa zen (%38,7 vs %28,8) duela hamabost urte, eta handiagoa, era berean, euskara gaztelania beste erabiltzen zutenena (%23,3 vs %20,1). Hortaz, txikiagoa zen euskaraz gaztelaniaz baino gutxiago egiten zutenen portzentajea (%27,9 vs %33,2) eta baita gaztelaniaz bakarrik egiten zutenena ere (%10,1 vs %16,4). 1991tik 1996ra erabilera bere horretan mantendu zen gutxi gorabehera. Azken bost urteotan, ordea, behera egin du euskara nagusiki erabiltzen duten elebidunen proportzioak (%40,9 vs %28,8) eta gora euskaraz gaztelaniaz beste (%16,4 vs %20,1) edo gutxiago (%27,3 vs %33,2) hitz egiten dutenenak.

Bilakaera adinaren arabera aztertuz gero, esan daiteke gaur egun euskara gaztelania baino gehiago erabiltzen dutenen proportzioa 1991n baino txikiagoa dela 65 urtetik beherakoen artean.

Euskara gaztelania beste erabiltzen duten elebidunen ehunekoa, aldiz, 1991koaren oso antzekoa da 50 urte baino gutxiago dituztenen artean, baina txikiagoa adin horretatik gorakoen artean.

**29. irudia.** Euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzen duten elebidunen bilakaera adinaren arabera. Nafarroa, 1991-2006 (%)



Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

#### 4. 4. EUSKARAREN ERABILERAN ERAGITEN DUTEN FAKTOREAK

**Harreman-sareko euskaldunen dentsitatea eta erraztasuna dira euskararen erabileran eragiten duten faktore nagusiak**

Erabilerari buruz egin ditugun azterketek behin eta berriro erakusten digute erabileran eragiten duten faktore nagusiak bi direla:

- hiztunaren harreman-sareko euskaldunen dentsitatea, eta
- hiztunak hizkuntza batean eta bestean jarduteko duen erraztasuna.

Bi faktore horiek erabilera-eremu nagusietan zenbateraino eragiten duten zehatz-mehatz jakiteko, korrelazioak aztertuko ditugu jarraian. Korrelazioak bi aldagairen arteko harremana zehazten du, eta 0 eta 1 arteko zenbaki baten bidez adierazten da.

Euskararen erabileraren eta harreman-sareko dentsitatearen arteko korrelazioa 0,75 da etxeko erabileran, 0,68 lagunartekoan eta 0,88 lanekoan. Korrelazioak oso handiak dira erabilera-eremu guztietan, eta harreman-sareko euskaldunen dentsitatea da faktore nagusia, batez ere laneko erabileran.


Harreman-sarearen eraginaz jabetzeko, emaitzak gune soziolinguistikoaren arabera aztertuko ditugu. Lehenengo gune soziolinguistikoan euskaldunak %20 baino gutxiago dira batez beste. Gune horretan euskara gaztelania beste edo gehiago hitz egiten dutenak %1,2 dira. Bigarrenean (%20-%50) erabilerak gora egiten du (%4,1). Baina, hirugarren gunean (%50-%80) antzematen da benetako jauzia, izan ere gune horretako biztanleen ia erdia %48,8 euskaraz gaztelaniaz beste edo gehiago mintzatzen da. Laugarren gunean (>%80) jauzia erabatekoa da: euskaldunak %80tik gora direnean, %60,1ek euskaraz gaztelaniaz baino gehiago hitz egiten du eguneroko jardunean eta ia laurdenak (%23,5) euskaraz gaztelaniaz beste.

Bestalde, euskararen erabileraren eta euskaraz hitz egiteko erraztasunaren arteko korrelazioa 0,68 da etxeko erabileran, 0,56 lagunartekoan eta 0,33 lanekoan. Hortaz, esan daiteke euskaraz errazago hitz egiten duen elebidunak, hau da euskal elebidunak, nagusiki euskara erabiltzen duela etxean eta lagunartean, baina gutxiago lankideekin. Elebidun orekatuak, aldiz, hizkuntza biak neurri bertsuan erabiltzen ditu hiru eremu horietan, baina gehiago euskara. Azkenik, erdal elebidunak gehienbat gaztelania erabiltzen du eremu guztietan.

Beste faktore batzuek, adinak (0,24ko korrelazioa) edo euskararekiko jarrerak (0,31ko korrelazioa) adibidez, eragina dute euskararen erabileran, baina harreman-sareak eta erraztasunak baino askoz txikiagoa.


Hortaz, euskara erabiltzeko baldintzak egokiak direnean, elebidunek euskara erabiltzen dute eguneroko jardunean, baina baldintza horiek betetzen ez direnean, euskararen erabilerak behera egiten du nabarmen.





**30. irudia.** Euskararen erabilera harreman-sareko elebidunen dentsitatearen arabera.  
Nafarroa, 2006


**Hitz egiten dute...**



**Iturria:** IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

31. irudia. Euskararen erabilera gune soziolinguistikoaren arabera. Nafarroa, 2006

Hitz egiten dute...



Gune soziolinguistikoak

\* Gune honi dagozkion datuak ez dira adierazgarriak kopurua txikiegia delako.

Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

## 5. Euskararen erabilera eremuka

Euskararen erabilerearen azterketarako kontuan hartu diren eremuak honakoak dira:

- familia (bikotekidea, seme-alabak, neba-arrebak eta gurasoak)
- gertuko komunitatea (lagunak, auzokideak, lankideak, dendak)
- eremu formalak (bankua edo kutxa, anbulatorioa, udal-zerbitzuak)

### 5.1. EUSKARAREN ERABILERA ETXEAN

**Etxean seme-alabekin eta neba-arrebeekin erabiltzen da gehien euskara**

Nafarroako 16 urtetik gorako biztanle guztiak kontuan hartuz, %5ek beti edo nagusiki euskara erabiltzen dute etxean eta beste %2k euskara gaztelania beste. Bada beste hiztun multzo bat (%2) euskara erabili erabiltzen duena, baina gaztelania baino gutxiago.

Hiztunaren harreman-sare euskaldunaren dentsitateak eta erraztasunak berebiziko garrantzia dute euskararen erabilerean eta bereziki etxeetan.

Etxean denek edo ia denek euskara dakitenean, Nafarroako 16 urtetik gorako biztanleen %69k nagusiki euskara erabiltzen du bertan eta %15ek euskara gaztelania beste. Baina etxean euskaraz dakitenean kopurua erdira jaisten denean, inork ez du nagusiki euskaraz hitz egiten eta %2 baino ez da euskara gaztelania beste hitz egiten duena.

Gune soziolinguistikoaren arabera ere, gorabehera handiak daude euskararen etxe erabilerean. Laugarren gunean (euskaldunak  $\geq$ %80), esaterako, %65ek euskara erabiltzen du nagusiki etxean eta %13k euskara gaztelania beste. Euskaldunak %50 baino gutxiago diren guneetan, aldiz, etxean euskaraz nagusiki hitz egiten dutenak %2 edo gutxiago dira eta euskara gaztelania beste erabiltzen dutenak %3 edo gutxiago.


Euskal elebidunen %85ek nagusiki euskara erabiltzen du etxean eta %9k euskara gaztelania beste. Elebidunaren erraztasunak behera egiten duenean, euskararen erabilerak ere behera egiten du. Izan ere, euskara nagusiki erabiltzen dute elebidun orekatuen %41ek eta erdal elebidunen %9k. Bi multzo horietan handia da etxean euskara gaztelania beste erabiltzen dutenen ehunekoa (%19 eta %12 hurrenez hurren). Erdal elebidunen erdia baino gehiago (%62) gaztelania hutsean mintzatu ohi da etxean.

Nafarroako 16 urtetik gorako elebidunen %37k nagusiki euskaraz egiten du bikotekidearekin eta %9k gaztelania beste erabiltzen du. Seme-alabekin euskara erabiltzen dutenen proportzioa handiagoa da (%68k erabiltzen du euskara nagusiki eta %11k gaztelania beste). Neba-arrebeekin euskara erabiltzen dutenak %45 dira eta euskara gaztelania beste erabiltzen dutenak %14. Gurasoekiko erabilerari dagokionez, euskaraz beti edo ia beti %38k hitz egiten dute amarekin zein aitarekin; beste %7k euskara gaztelania beste erabiltzen dute amarekin eta %6k aitarekin.

Etxeko erabileran, adinaren arabera datuak irakurtzeko orduan, kontuan hartu behar da adin desberdinetako kideak bizi direla elkarrekin, eta bikotekideen eta neba-arreben arteko erabilera baino ez direla belaunaldi bereko edo adin bertsuko kideen artekoa. Bestetik, kontuan hartuta 25 urtetik beherako elebidunen erdia baino gehiago euskaldun berriak direla, nekez izango dute aukerarik etxean, gurasoekin behintzat, euskaraz jarduteko, horietako gehienak erdaldun elebakarrak baitira.

Adinaren arabera azterketa egiteko orduan, alde handia dago Nafarroako 16 urtetik gorako unibertso osoa kontuan hartu ala elebidunak hartu. Unibertso osoa kontuan hartuz gero, esan dezakegu ez dagoela alde handirik adin-talde desberdinen artean (%5-%7k erabiltzen dute euskara gaztelania beste edo gehiago).

Baina elebidunekiko erabilera jorratuz gero, 65 urtetik gorako elebidunak dira etxean euskara gehien erabiltzen dutenak (%72k euskara gaztelania beste edo gehiago), eta adinak behera egin ahala behera egiten du euskararen erabilerak. Izan ere, 16 eta 24 urte bitarteko gazte elebidunen artean, etxean euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzen dutenak %30 dira.




**12. taula.** Euskararen erabilera etxean adinaren arabera. Nafarroa, 2006 (%)

Euskararen erabilera	Adin-taldeak				
	>=65	50-64	35-49	25-34	16-24
Euskara beti edo gaztelania baino gehiago	5,5	4,0	4,3	4,0	4,7
Euskara gaztelania beste	1,8	2,0	1,8	1,4	1,0
Gaztelania beti edo euskara baino gehiago	92,6	93,9	94,0	94,9	94,3

Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

**32. irudia.** Euskararen erabilera etxean. Nafarroa, 2006 (%)




Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

13. taula. Elebidunen euskararen erabilera etxean. Nafarroa, 2006 (%)

Euskararen erabilera	Adin-taldeak				
	>=65	50-64	35-49	25-34	16-24
Euskara beti edo gaztelania baino gehiago	55,0	45,0	44,0	28,0	25,0
Euskara gaztelania beste	17,0	16,0	19,0	11,0	5,0
Gaztelania beti edo euskara baino gehiago	28,0	39,0	37,0	62,0	70,0

Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

33. irudia. Elebidunen euskararen erabilera etxean. Nafarroa, 2006 (%)



Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

## 5.2. EUSKARAREN ERABILERA GERTUKO KOMUNITATEAN

Nafarroako 16 urtetik gorako biztanle guztiak kontuan hartuz, euskara beti edo ia beti erabiltzen dute %4k lankideekin, lagunekin, auzokideekin zein dendariekin. Halaber, euskara gaztelania beste erabiltzen dute %2k lankideekin eta lagunekin eta %1ek auzokideekin eta dendariekin.

Hemendik aurrera, gertuko komunitatea osatzen duten eremuetan (lagunekin, auzokideekin, lankideekin eta dendariekin), elebidunak bakarrik hartuko ditugu kontuan. Izan ere, Nafarroako biztanle guztiek, elebidunak barne, lagunekin, auzokideekin, lankideekin eta dendariekin dituzten harremanetan, aukera mugatua dute euskara erabiltzeko, portzentaje txikia hartzen dutelako biztanleria osoarekiko. Hortaz, egokiagoa da elebidunak soilik aukeratzea gertuko komunitatean egiten den euskararen erabilera zehatzago aztertzeko.

Nafarroako 16 urtetik gorako elebidunak soilik kontuan hartuz, %43k beti edo nagusiki euskara erabiltzen dute lagunekin, %39k lankideekin eta auzokideekin eta %34k dendariekin. Halaber %18k euskara gaztelania beste erabiltzen dute lagunekin, %13k lankideekin eta dendariekin eta %10ek auzokideekin.


Sarearen eragina handia da lagunarteko euskararen erabileran ere, baina ez etxean bezain handia. Izan ere, lagunartean denek edo ia denek euskara dakitenean %72k beti edo ia beti erabiltzen dute euskara eta %13k euskara gaztelania beste. Baina euskaraz dakitenak denak edo ia denak izan beharrean, erdiak baino gehiago izanik ere, elebidunen multzo handi batek euskara erabiltzen du (%51k beti edo ia beti eta %13k euskara gaztelania beste).

Erraztasuna, aldiz, etxeko erabileran bezain garrantzitsua da lagunarteko erabileran. Euskal elebidunen artean %83k beti edo ia beti erabiltzen dute euskara lagunekin, orekatuen artean, aldiz, %51k eta erdal elebidunen artean %22k. Elebidun orekatu eta erdal elebidun askok (%23k eta %21ek hurrenez hurren) euskara gaztelania beste erabiltzen dute lagunekin.

Nafarroako 16 urtetik gorako elebidunen %39k euskara erabiltzen dute beti edo ia beti auzokideekin eta %10ek euskara gaztelania beste. Sarearen eragina oso handia da auzokideekin hitz egiteko orduan egiten den hizkuntza-aukeran. Izan ere, auzokide denek edo ia denek euskara dakitenean, elebidunen %87k beti edo ia beti euskara erabiltzen dute, baina dakitenak denak edo ia denak baino, erdia baino gehiago direnean, euskara beti edo ia beti erabiltzen dutenen portzentajea hogeita bat puntu jaisten da (%66).

Antzeko datuak ditugu elebidunen erabileraz dendetan. Izan ere, %34k euskara erabiltzen dute beti edo ia beti dendariekin eta %13k euskara gaztelania beste. Dendetan ere sarearen eragina oso handia da dendariekin hitz egiteko egiten den hizkuntza- aukeran.

**34. irudia.** Euskararen erabilera gertuko komunitatean. Nafarroa, 2006 (%)



Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritz, 2006.

**35. irudia.** Elebidunen euskararen erabilera gertuko komunitatean. Nafarroa, 2006 (%)



Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritz, 2006.



### 5.3. EUSKARAREN ERABILERA EREMU FORMALEAN

Erabilera eremu formalak banku edo aurrezki kutxek, anbulatorioek, udaletxeko zerbitzuek eta estatuko administrazioak osatzen dituzte. Nafarroako 16 urtetik gorako biztanle guztiak kontuan hartuz, euskara beti edo ia beti erabiltzen dute %4k banku edo kutxetan eta anbulatorioetan, %5ek udaletxeko zerbitzuetan eta %1ek Estatuko Administrazioan. Halaber, euskara gaztelania beste erabiltzen dute %1ek banku edo kutxetan, anbulatorioetan eta udaletxeko zerbitzuetan.

Hemendik aurrera, 16 urtetik gorako elebidunak bakarrik hartuko ditugu kontuan eta ez biztanleria osoa, gertuko komunitatea osatzen duten eremuekin egin dugun bezala, arrazoi berberetatik.


Nafarroako 16 urtetik gorako elebidunak soilik kontuan hartuz, %39k beti edo nagusiki euskara erabiltzen dute banku edo kutxetan, %31k anbulatorioetan, %38k udaletxeko zerbitzuetan eta %13k estatuko administrazioan. Halaber, %8k euskara gaztelania beste erabiltzen dute banku edo kutxetan eta anbulatorioetan, %12k udaletxeko zerbitzuetan eta %4k Estatuko Administrazioan.

Sarearen eragina handia da etxean eta baita lagunarteko euskararen erabilera ere, baina ez hainbeste eremu formalean. Esate baterako, banku edo kutxetan, anbulatorioan edo udaletxeko zerbitzuetan denek edo ia denek euskara dakitenean %80k baino gehiagok beti edo ia beti erabiltzen dute euskara. Baina euskaraz dakitenak denak edo ia denak izan beharrean, erdiak baino gehiago izanik ere, elebidunen multzo handi batek euskara erabiltzen du (%60k baino gehiagok beti edo ia beti).

Erraztasuna, aldiz, etxeko erabilera zein gertuko komunitatean bezain garrantzitsua da eremu formalean. Esate baterako, euskal elebidunen artean %67k beti edo ia beti erabiltzen dute euskara banku edo kutxetan, orekatuen artean, aldiz, %48k eta erdal elebidunen artean %15ek.

Erabilera txikiena, alde handiz, Estatuko Administrazioan egiten dena da. Elebidunen %13k egiten dute beti edo ia beti euskaraz eta %4k euskaraz gaztelaniaz beste. Euskal elebidunen artean ere gainerako eremuetan baino erabilera txikiagoa da, %32k egiten baitute beti edo ia beti euskaraz. Elebidun orekatuen %11 eta erdal elebidunen %4 dira Estatuko Administrazioan euskara beti edo ia beti erabiltzen dutenak.

**36. irudia.** Euskararen erabilera eremu formalean. Nafarroa, 2006 (%)



Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

**37. irudia.** Elebidunen euskararen erabilera eremu formalean. Nafarroa, 2006 (%)



Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.


## 6. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrerak

Nafarroako 16 urtetik gorako biztanleen herena baino gehiago (%37,7) euskararen erabilera sustatzearen alde dago. Aldeko jarrera handiagoa da elebidunen artean (%85,4) euskararik ez dakitenen artean baino (%28,4)

Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera eza-gutzeko, Nafarroako 16 urte edo gehiagoko biztanleek hainbat esparrutan euskara sustatzearen alde edo kontra erakutsi duten iritzia araberako tipologia eratu du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak.

Nafarroako 16 urtetik gortako biztanleen %37,7 euskararen erabilera sustatzearen alde daude, %28,1 ez alde ez aurka eta %34,2 aurka daude.

38. irudia. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrerak. Nafarroa, 2006 (%)




Euskara sustatzearen aldeko jarrera handiagoa da eremu euskaldunean (%73,6), eremu mistoan (%40,7) eta eremu ez euskaldunean (%23,5) baino.

**14. taula.** Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarreraren bilakaera eremuaren arabera. Nafarroa, 1991-2006 (%)

Jarrerak	1991			
	Nafarroa	Eremu euskalduna	Eremu Mistoa	Eremu ez euskalduna
Aldekoa edo oso aldekoa	21,6	78,6	19,9	7,2
Ez alde, ez aurka	26,6	18,2	30,5	23,7
Aurkakoa edo oso aurkakoa	51,8	3,2	49,6	69,0
Jarrerak	2006			
	Nafarroa	Eremu euskalduna	Eremu Mistoa	Eremu ez euskalduna
Aldekoa edo oso aldekoa	37,7	73,6	40,7	23,5
Ez alde, ez aurka	28,1	18,1	31,3	26,0
Aurkakoa edo oso aurkakoa	34,2	8,2	28,0	50,5

Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

**39. irudia.** Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrerak eremuaren arabera. Nafarroa, 2006 (%)



Oharra: zirkuluen tamaina eremu bakoitzeko biztanleriaren arabera da.

Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

Euskararekiko jarrerak lotura handia du hizkuntza-gaitasunarekin. Izan ere, euskararen erabilera sustatzearen alde elebidunen %85,4 daude, elebidun hartzaileen %67,1 eta erdaldun elebakarren %28,4.

Elebidunen artean %12,9 ez dago ez alde ez aurka eta %1,7 aurka dago. Elebidun hartzaileen artean %20,9k ez dute ez aldeko ez kontrako jarrerarik, eta erdaldun elebakarren artean %30,8k. Azkenik, aurka daudenak %12 dira elebidun hartzaileen artean eta %40,7 erdaldun elebakarren artean.

Adinari dagokionez, 35-49 eta 50-65 urte bitartekoen artean daude euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrera handiena erakusten dutenak (%40tik gora). Herena baino zerbait gehiago dira 65 urte edo gehiagokoen artean alde daudenak eta gainerako bi adin-taldeetan (16-24 eta 25-34) alde daudenak herena inguru dira. Ez alde ez kontra daudenen proportzio handiena 65 urtetik gorakoek eta gazteenek (16-24 urte) dute, %35 eta %30 hurrenez hurren. Aurka daudenak, aldiz, %29 dira zaharreneen artean eta %32 eta %41 bitartean gainerako adin-talde guztietan.

Nafarroako 16 urtetik gorako biztanle gehienei ezinbestekoa irizten zaie haurrek euskara ikastea (%43) eta Administrazioan sartzeko euskaraz jakitea (%53).

Haurrek euskara ikasteari dagokionez, badago alderik elebitasun-motaren arabera. Elebidunen %74ri eta elebidun hartzaileen %61i haurrek euskara ikastea ezinbestekoa iruditzen zaien arren, erdaldun elebakarren %37ri besterik ez.

Adinaren arabera ere badago alderik. Alde daudenen portzentajea handia da nagusien artean, baina zenbat eta gazteagoa izan orduan eta txikiagoa da alde daudenen portzentajea. 65 urtetik gorako %54ri ezinbestekoa iruditzen zaie haurrek euskara ikastea, %28 dira, ordea, 16-24 urte bitartean dituztenen artean ezinbesteko iruditzen zaienak.

Administrazioan sartzeko euskara jakin behar izateari dagokionez, ez dago ia alderik adinaren arabera. Elebitasun motaren arabera, aldiz, bai. Izan ere, ia elebidun guztiak (%89) eta lau elebidun hartzailetik hiru (%72) alde daude, baina erdaldun elebakarren erdia baino gutxiago (%46) dira alde daudenak.

Bestalde, Nafarroako 16 urtetik gorako biztanleen ia erdia (%46) hedabideetan euskararen erabilera sustatzearen alde dago. Iritzi honen aurrean, elebitasun-motak eragin handia du. Izan ere, elebidunen artean alde daudenak %91 dira, baina erdaldun elebakarren artean %39. Adinari dagokionez, aldekoagoak dira gazteak helduak eta zaharrak baino.



Euskarari buruz dauden aurreiritzi batzuek gure gizartean zenbateraino dauden erroturik ezagutu nahian, inkestatuei iritzia eskatu zaie. Laburbilduz, emaitzak honakoak dira:

- Nafarroako 16 urtetik gorako biztanleen artean asko dira (%26) euskarak inoiz gaztelaniak duen indarra izango duela uste dutenak. Gehienek (%53), berriz, kontrakoa uste dute, hau da, euskarak ez duela inoiz gaztelaniak duen indarra izango.
- Hizkuntzaren aberastasunari dagokionez, ia erdiek (%43) uste dute euskara gaztelania bezain aberatsa dela, eta gutxi dira (%15) kontrakoa uste dutenak.
- Gizartean bi hizkuntza egoteak ez du arazorik sortzen biztanleen %64rentzat eta arazo iturri izan daiteke %24rentzat.
- Azkenik, biztanle gehienek (%66) uste dute ez dela txarra gaztelania ondo menperatu ez arren, haur txikiei eskolan euskara irakastea.

**Nafarroako biztanle gehienek uste dute gizartean bi hizkuntza izateak ez duela arazorik sortzen**

Euskarari buruzko iritzi gehienetan ez dago alde esanguratsurik adinaren edo elebitasun-motaren arabera. Alderik nabarmenenak eremuaren arabera dira. Oro har, eremu euskaldun eta mistokoen iritzia ez euskaldunekoa baino positiboa da euskararen aberastasunari edo inoiz gaztelaniak duen indarra izateko aukerari dagokionez, baina oso antzekoa umeak eskaraz eskolatzeari edo bi hizkuntza egoteak gizartean arazorik ez sortzeari dagokionez.


Euskarari buruzko bestelako iritzi batzuekin jarraituz, Nafarroako 16 urtetik gorako biztanleen %31k seme-alabek eskolak euskaraz (gaztelania ikasgai gisa) ikas ditzaten nahi dute, %23k euskaraz eta gaztelaniaz eta %17k gaztelaniaz (euskara ikasgai gisa).


**40. irudia.** Seme-alaben eskolatzeko-hizkuntzari buruzko iritziak. Nafarroa, 2006 (%)


Eremuaren arabera, eremu euskaldunean batik bat eta baita eremu mistoan ere argia da seme-alabek euskaraz, gaztelania ikasgai duela, edota euskaraz eta gaztelaniaz ikas dezaten egiten dutenen nagusitasuna (%91 eta %57 hurrenez hurren). Eremu ez euskaldunean, aldiz, %38 dira.

Elebitasun-motaren arabera ere aldeak nabariak dira: elebidunen %87k seme-alabek euskaraz gaztelania ikasgai gisa ikastearen alde egiten dute eta %9k euskaraz eta gaztelaniaz ikastearen alde, elebidun hartzaileen artean portzentajeak %63 eta %23 dira hurrenez hurren, eta erdaldun elebatarren artean %20 eta %25.

Bestalde, 16 urtetik gorako biztanleen %73k etorkizunean euskaraz eta gaztelaniaz hitz egin beharko litzatekeela uste dute eta %5ek euskara hutsean. Elebidunen artean euskaraz eta gaztelaniaz hitz egin beharko litzatekeela uste dutenen eta euskara hutsean hitz egin beharko litzatekeela uste dutenen arteko aldea txikiagoa bada ere (%79 eta %19 hurrenez hurren), argi eta garbi egiten dute bi hizkuntzen alde.




## 7. Ondorioak



- Badaude Nafarroako biztanleriaren bilakaeran eta, hortaz, bilakaera sozio-linguistikoan eragiten ari diren eta aurrerantzean ere eragingo duten bi gertaera garrantzitsu.
- Batetik, **etorkinen hazkunde nabarmena**. 1991n %2 baizik ez ziren etorkinak (8.965 pertsona) eta %10,4 dira 2006an (62.328 pertsona). Beraz, oso hazkunde handia izan du azken 15 urteotan ehunekoan zein kopuruan eta estatuaren batez bestekoaren mailan dago. Kontuan hartuz, euskara ez den beste hizkuntza batean mintzatzen direla, eragina du eta izango du elebidunen ehunekoan.
- Bestetik, Nafarroako **biztanleriaren zahartzeak eta jaiotza-tasak behera egiteak** ere eragina du eta izango du elebidunen ehunekoan. Izan ere, elebidunen igoerarik handiena 25 urtetik beherakoen artean gertatu da eta demografikoki gazteen adin-taldeek gero eta pisu txikiagoa dute biztanleria osoarekiko.
- Datuetara ekarriz, 15 eta 25 urte bitarteko 84.127 gazte zeuden 1991n. Hamabost urte geroago, aldiz, adin-tarte horretako 67.047 gazte daude, hau da, 17.080 gutxiago (%21eko hazkunde negatiboa). Alderantziz gertatu da 65 urte edo gehiago dituztenekin, hazkunde handia izan baitute hamabost urteotan (%63ko hazkunde positiboa). 79.791 ziren 1991n eta 126.026 dira 2006an.
- Dena dela, elebidunek **gora egin dute** Nafarroan azken 15 urteotan, kopuruan zein ehunekoan. Gaur egun Nafarroan 16 urte edo gehiagoko 56.400 elebidun daude, 1991n baino 16.200 gehiago, alegia. Ehunekoetara ekarriz, duela 15 urte biztanleriaren %9,5 zen elebiduna; 2006an, aldiz, biztanleen %11,1.
- Elebidunen **igoerarik nabarmenena eremu mistoan** gertatu da. %5,2 ziren 1991n eta %8,3 dira egun. Kopuruetara joz, are handiagoa da igoera, 12.400 elebidun baitzeuden 1991n eta 22.800 egun. Horrek esan nahi du hamabost urtetan %45,9ko igoera izan dutela elebidunek eremu mistoan.
- Era berean, **irabaziak galerak baino handiagoak** dira gaur egun euskaldun berriei esker. Irabazien hazkundera eta galeren ia desagertpena gazteen artean antzematen da bereziki.






- Euskararen **transmisioan ere aurrera egin da**. Inkesta honetako guraso gazteak soilik aintzat hartuz, hau da, 2-9 urte arteko seme-alabak dituztenak, ikus daiteke askoz gehiago transmititzen dutela lehengoek baino. Guraso gazteak elebidunak direnean, seme-alaben %98k jasotzen dute euskara etxean eta bikoteak mistoak direnean ere, erdiak baino gehiagok jasotzen dute euskara etxean. Adin guztietako gurasoak aintzat hartuz gero, nahiz bikotekide biak euskaldunak izan, %17,3k ez dute euskararik transmititu. Bikote mistoetan are handiagoa da euskararik transmititu ez dutenen portzentajea (%81,1).
- Bestalde, gogoan izan dezagun, Nafarroako **hamar biztanletik bederatzik (%90,4) gaztelania dutela lehen hizkuntza**. Datuetara joz, 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren artean, %6,4 dira euskara soilik jaso dutenak eta %3,2 euskara eta gaztelania jaso dituztenak. Eremu mistoan eta ez euskaldunean erabat nagusi dira lehen hizkuntza gaztelania jaso dutenak (%93,7 eta %98,5 hurrenez hurren). Eremu euskaldunean, berriz, %63k euskara jaso dute.
- **Erabilerari dagokionez**, datu orokorrak soilik kontuan hartuz, azken 15 urteotan ez da ez igoera ez jaitsiera nabarmenik izan (%5,9 vs %5,8), baina bai joera-aldaketa bat erabiltzaileen adinean. **25 urte baino gutxiago dituztenen artean handitu egin da euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoa**. Hala ere, 65 urte edo gehiagokoak dira nagusi euskara gaztelania baino gehiago egiten dutenen artean.
- Era berean, elebidun asko **euskaldun berriak direnez (%33,8), aukera mugatua dute euskara erabiltzeko** bai etxean baita kalean ere, oso inguru erdaldunean bizi direlako, euskaldun berri gehienak eremu mistoan bizi baitira. Hortaz, etxea, gertuko komunitatea zein erabilera eremu formalak gehienbat erdaldunak dituzte. Oso garrantzitsua da elebidun horiei euskara erabili ahal izateko guneak eta aukerak eskaintzea.
- Bestalde, **eremu euskaldunean** elebidunen ehunekoa (%60) zein erabilera (%46,5ek euskara erabiltzen du gaztelania beste edo gehiago) handiak dira gaur egun, orain dela 15 urte bezala. Izan ere, 1991n biztanleen %60 zen elebiduna eta %46,8k erabiltzen zuten euskara gaztelania beste edo gehiago.





- Euskara sustatzeari buruzko iritzi eta jarreretan nabarmen igo da euskara sustatzearen alde daudenen ehunekoa. Izan ere, Nafarroan **euskara sustatzearen alde** daudenen (%37,7) eta **aurka** daudenen (%34,2) ehunekoak nahiko parekatuta daude gaur egun, hiru puntuko aldea baizik ez dute. Gainera, gehiago dira alde daudenak aurka daudenak baino. Duela 15 urte, aldiz, askoz gehiago ziren aurkako jarrera zutenak (%51,8) aldekoa zutenak baino (%21,6).











**E U S K A L H E R R I A**  
IV. Inkesta Soziolinguistikoa





## 1. Euskal Herriko biztanleriaren ezaugarri nagusiak

Biztanleriari buruzko 2006ko datuen arabera, Euskal Herrian 3.015.558 pertsona bizi dira guztira. Horietako %71 Euskal Autonomia Erkidegoan (EAEn), %20 Nafarroan eta gainerako %9 Iparraldean.

Euskal Herriak 20.664 Km<sup>2</sup>-ko azalera du eta Bizkaiko Golkoran, Pirinioetako mendebaldeko ertzean dago. Euskal Herria zazpi lurraldek osatzen dute. Zazpi lurralde horiek Europako bi estatuko zati politiko eta administratibo dira: Espainian, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa, eta Frantzian, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa.

Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE) osatzen dute eta Nafarroa, bera da autonomia erkidego (Nafarroako Foru Erkidegoa). Lapurdik, Nafarroa Behereak eta Zuberoak Iparraldea osatzen dute. EAEk eta Nafarroak autogobernua daukate, Iparraldeko hiru lurraldeak, aldiz, Pirinio Atlantikoetako Departamentuaren zati dira.

Euskal Herriko biztanleriak azken 15 urteotan izan duen bilakaera aztertuz gero, badira bereziki azpimarratu beharreko bi ezaugarri:

- biztanleriaren zahartze-prozesua, eta
- etorkinen eragina

Euskal Herriko biztanleria gero eta zaharragoa da. Bizitza-esperantza oso handia da eta, aldi berean, jaiotze-tasak behera egin du nabarmen. Izan ere, EAEn eta Nafarroan, 1991 eta 2006 bitartean 65 urtetik gorako biztanleriak ia %50 egin du gora. Iparraldean igoera hori ez da hain handia izan, baina kontuan hartu behar da duela 15 urte zaharren proportzioa handia zela jada.

Euskal gizartea gero eta zaharragoa da, eta etorkinek hazkundea handia izan dute azken urteotan, batez ere Nafarroan eta EAEn

Biztanleriaren jatorriari dagokionez, azken 15 urteotan atzerritik Euskal Herrira etorritako etorkinen hazkundera oso handia izan da. Hazkunde hori bereziki handia izan da EAEn eta, batez ere, Nafarroan. 1991 eta 2006 bitartean, EAEko atzerritarren ehunekoa biztanleen %2tik %5era igo da, eta Nafarroan %2tik %10era.

Inkesta soziolinguistikoak aztergai duen unibertsoa Euskal Herriko 16 urte edo gehiago dituzten pertsonena da. 2006ko datuen arabera, 16 urte edo gehiagoko 2.589.600 lagun dira Euskal Herrian. Horietako %71,5 (1.850.500 pertsona) Euskal Autonomia Erkidegoan (EAEn) bizi dira, %19,7 (508.900 pertsona) Nafarroan eta %8,9 (230.200 pertsona) Iparraldean.

Datuak irakurtzeko orduan, oso kontuan hartu behar da EAEk Euskal Herrian duen pisu demografikoa eta, horren arabera, emaitza nagusietan duen eragina.

**1. taula.** 16 urte edo gehiagoko biztanleria adinaren arabera. Euskal Herria, 2006

Adin-taldeak	16 urte edo gehiagoko biztanleria			
	<b>Euskal Herria</b>	EAE	Nafarroa	Iparraldea
≥ 65	<b>557.500</b>	393.200	104.700	59.600
50-64	<b>556.800</b>	402.400	102.900	51.500
35-49	<b>712.300</b>	512.000	141.300	59.000
25-34	<b>481.100</b>	348.600	101.500	31.000
16-24	<b>281.900</b>	194.300	58.500	29.100
<b>Guztira</b>	<b>2.589.600</b>	<b>1.850.500</b>	<b>508.900</b>	<b>230.200</b>

**Iturria:** IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritz, 2006.


## 2. Hizkuntza-gaitasuna

### 2.1. BIZTANLERIA HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERA

2006ko datuen arabera, 16 urte edo gehiagoko 2.589.600 pertsona bizi dira Euskal Herrian. Horietatik %25,7 (665.800 lagun) elebidunak dira, hau da, ondo hitz egiten dute euskaraz eta erdaraz. Badira, halaber, beste 397.900 pertsona (%15,4) euskaraz ondo mintzatzen ez badira ere, ondo ulertzeko gai direnak. Horiek elebidun hartzaileak dira. Gainerako guztiak (1.525.900 pertsona, %58,9) erdaldun elebakarrak dira, hau da, ez dakite euskaraz hitz egiten.

**Euskal Herriko biztanleen  
%25,7 elebiduna da,  
%15,4 elebidun hartzailea eta  
%58,9 erdaldun elebakarra**

1. irudia. Hizkuntza-gaitasuna. Euskal Herria, 2006 (%)




Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritz, 2006.

Euskal Herriko elebidunen ehunekorik eta kopururik handiena (%83,7 eta 557.600 pertsona, hurrenez hurren) EAEn bizi da. Nafarroako elebidunak (56.400 pertsona) Euskal Herriko elebidunen %8,5 dira. Euskal Herriko elebidunen ehunekorik eta kopururik txikiena (%7,8 eta 51.800 hurrenez hurren) Iparraldean bizi da.



**2. irudia.** Hizkuntza-gaitasuna herrialdearen arabera. Euskal Herria, 2006 (%)



Oharra: zirkuluen tamaina herrialde bakoitzeko biztanleriaren araberakoa da.

Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritz, 2006.

**2. taula.** 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren eta elebidunen bilakaera. Euskal Herria, 1991-2006

Herrialdea	16 urte edo gehiagoko biztanleriaren bilakaera			
	1991		2006	
	Guztira	Elebidunak	Guztira	Elebidunak
EAE	1.741.500	419.200	1.850.500	557.600
Nafarroa	420.700	40.200	508.900	56.400
Iparraldea	208.900	69.100	230.200	51.800
<b>Euskal Herria</b>	<b>2.371.100</b>	<b>528.500</b>	<b>2.589.600</b>	<b>665.800</b>

Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritz, 2006.

Azken 15 urteotako bilakaerari erreparatuz gero, 1991n baino 137.300 elebidun gehiago daude 2006an. 1991n Euskal Herriko elebidunak %22,3 ziren eta, esan bezala, 2006an %25,7. Elebidunen hazkundera EAEn eta Nafarroan gertatu da, ez, ordea, Iparraldean. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoa etengabe ari da elebidunak irabazten. Aipagarria da, esaterako, azken 15 urteotako hazkundera handiagoa izatea EAEn (138.400 elebidun gehiago) Euskal Herri osoan baino (137.300). Nafarroan ere, apurka-apurka, gero eta elebidun gehiago daude eta ia ez dago galerarik. Iparraldean, aldiz, oraindik ere galerak daude eta izango dira datozen urteotan, baina gazte elebidunen kopurua hasi da dagoeneko gora egiten.

Aldi berean, erdaldun elebakarrak duela 15 urte baino 133.900 gutxiago dira Euskal Herrian (%70 ziren 1991n eta %58,9 dira 2006an). Halere, elebidunekin gertatzen den bezalaxe, erdaldun elebakarren kasuan, bereizi egin behar da EAEn eta Nafarroako bilakaera, alde batetik, eta Iparraldekoa, bestetik. Erdaldun elebakarren ehunekoak behera egin du EAEn eta Nafarroan. Iparraldean, aldiz, gora egin du bai kopuruak baita ehunekoak ere.


Azkenik, euskaraz ondo hitz egin ez arren, ondo ulertzeko gaitasuna dutenek, hau da, elebidun hartzaileek gora egin dute hiru lurraldeetan. Euskal Herriko biztanleen %7,7 izatetik %15,4 izatera iritsi dira azken hamabost urteotan.

## 2.2. HIZKUNTZA-GAITASUNA, ADINAREN ARABERA

EAEn elebidunen hazkundera 50 urtetik beherako adin-talde guztietan gertatu da eta Nafarroan 35 urtetik beherakoan artean. Iparraldean, berriz, 65 urtetik gorakoan artean dago elebidunen ehunekorik handiena, eta adinak behera egin ahala behera egin du elebidunen ehunekoak. Halere, Iparraldeko gazteen artean joera-aldaketaren zantzuak gero eta argiagoak dira, eta 2006ko datuen arabera gora egin du elebidunen ehunekoak eta kopuruak. Izan ere, 2001ean 16 eta 24 urte bitarteko 3.200 elebidun zeuden (%12,2) eta 2006an, aldiz, 4.700 elebidun daude (%16,1).

**EAEn eta Nafarroan gazteen artean dago elebidunen ehunekorik handiena, Iparraldean, aldiz, zaharren artean**

## 3. irudia. Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera, herrialdeka. Euskal Herria, 2006 (%)



Hortaz, azken 15 urteetako bilakaerari begiratu gero, elebidunen hazkundera gazteenetatik ari da zabaltzen EAEn, Nafarroan zein Iparraldean.

Multzorik erdaldunena helduena da, baina urteak aurrera egin ahala, multzo hori elebidunak irabazten ari da azpitik eta erdaldun elebakarrak galtzen goitik, zaharren kaltean. Hau da, gazteak gero eta euskaldunagoak diren bitartean, zaharren multzoan (EAEn eta Nafarroan duela 15 urtera arte elebidunen ehunekorik handiena zuenean) erdaldun elebakarren ehunekoa hazi egin da.

Elebidun hartzaileen ehunekoa adin-talde guztietan hazi da oro har. Hazkundera hiru lurraldeetan gertatu da. Halere, EAEn lehenengo aldia da ehunekoa 16 eta 24 urte bitartekoen artean, hau da, gazteenen artean (%24,9) 25 eta 34 urte bitartekoen artean (%26,0) baino txikiagoa dena. Hau da, gazteenen artean, elebidunen hazkundera erdaldun elebakarren beherakada ez ezik, elebidun hartzaileena ere

eragiten ari da. Bestera esanda, 16 eta 24 urtekoen artean elebidun hartzaileetan dagoen galera elebidunen mesedetan gertatzen ari da.


### 2.3. HIZKUNTZA-GAITASUN ERLATIBOA

Elebidunak hiru multzotan banatu ditzakegu, euskaraz edo erdaraz hitz egiteko daukaten erraztasun handiagoaren edo txikiagoaren arabera: euskal elebidunak (%30,7), elebidun orekatuak (%30,3) eta erdal elebidunak (%38,9).

**Euskal elebidunak** euskaraz erdaraz baino errazago moldatzen dira. Elebidunen %31,8 dira EAEn, %26,2 Nafarroan eta %24,7 Iparraldean. Euskal elebidunen ehunekorik handiena 65 urtetik gorakoen artean dago

**Euskal Herriko elebidunen ia herena hobeto moldatzen da euskaraz erdaraz baino. Proporzio hori, baina, txikiagoa da gazteen artean (bostena)**

4. irudia. Elebitasun-mota (elebidunak). Euskal Herria, 2006 (%)




Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

Euskal Herri osoan, eta adinak behera egin ahala, behera egiten du proportzio horrek. Ia guztiek euskara izan dute lehen hizkuntza. EAeko eta Nafarroako euskal elebidunak gune euskaldunetan bizi dira: EAekoak hirugarrenean (euskaldunak %50-%80) gehienbat eta Nafarroakoak nagusiki laugarrenean (euskaldunak >%80).

**Elebidun orekatuak**, aldiz, berdin moldatzen dira euskaraz eta erdaraz. Elebidunen %28,5 dira EAEn, %29,6 Nafarroan eta %50,8 Iparraldean. Elebidun orekatuen proportziorik handiena 25 eta 50 urte bitartekoen artean dago (hiru lagunetik bat EAEn eta Nafarroan eta erdia baino gehiago Iparraldean). Gehienek euskara izan dute lehen hizkuntza (batez ere Iparraldean). Halere, EAEn eta Nafarroan lautik batek erdara izan du lehen hizkuntza.

**Erdal elebidunak** hobeto moldatzen dira erdaraz euskaraz baino. Elebidunen multzorik handiena da EAEn eta Nafarroan. Erdal elebidunen proportzioa handiagoa da adinak behera egin ahala. Lehen hizkuntzari dagokionez, EAEn eta Nafarroan gehienek erdara izan dute lehen hizkuntza, Iparraldean, aldiz, euskara.

5. irudia. Elebitasun-mota herrialdearen arabera (*elebidunak*). Euskal Herria, 2006 (%)



Oharra: zirkuluen tamaina herrialde bakoitzeko biztanleriaren arabera da.

Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.


### 3. Hizkuntzaren transmisioa

#### 3.1. LEHEN HIZKUNTZA LURRALDEAREN ARABERA

Euskal Herriko lau biztanletik hiruk (%78,7k) erdara dute lehen hizkuntza. Euskara dutenak %16,5 dira eta biak dituztenak %4,8.

Lehen hizkuntza erdara dutenak nagusi dira Euskal Herriko lurralde eta adin-talde guztietan


6. irudia. Lehen hizkuntza. Euskal Herria, 2006 (%)



Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.


Lurraldearen arabera, lehen hizkuntza euskara dutenak %21,6 dira Iparraldean, %18,7 EAEn eta %6,4 Nafarroan.

7. irudia. Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera, herrialdeka. Euskal Herria, 2006 (%)




### 3.2. LEHEN HIZKUNTZA, ADINAREN ARABERA

Lehen hizkuntza euskara dutenen proportziorik handiena 65 urtetik gorako helduen artean dago oraindik (%23,5). Ehuneko horrek behera egiten du adinarekin batera. Baina gazteen artean (24 urtetik beherakoen artean) joera-aldaketa dago, eta hasi egin da bai euskara (%12,9) bai euskara eta erdara (%8,4) dutenen ehunekoak. Halere, kontuan hartu behar da joera-aldaketa hori EAEn eta, neurri txikiagoan bada ere, Nafarroan gertatu dela. Iparraldean, aldiz, gazteen artean gero eta txikiagoa da lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekoak.




**8. irudia.** Lehen hizkuntza adinaren arabera. Euskal Herria, 2006 (%)




Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

**9. irudia.** Lehen hizkuntza adinaren arabera, herrialdeka. Euskal Herria, 2006 (%)



Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.






### 3.3. LEHEN HIZKUNTZA, HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERA

Euskal Herriko 16 urtetik gorako elebidunen erdiak baino gehiagok (%58k) euskara izan du lehen hizkuntza, %11,8k euskara eta erdara eta ia herenak (%30,2k) erdara.

Azken horiek euskaldun berriak dira eta eskolan edo euskaltegian ikasi dute euskara. EAEn eta Nafarroan, 16 urte edo gehiagoko elebidunen herena inguru dira eta gero eta pisu handiagoa hartzen ari dira. Iparraldean oraindik oso txikia da euskaldun berrien pisua. Izan ere, elebidunen %7,5 baino ez dira. Halere, kontuan hartu behar da duela hamar urte %3,9 zirela.

10. irudia. Elebidunen lehen hizkuntza. Euskal Herria, 2006 (%)



### 3.4. FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA


Familia bidezko transmisioaz dihardugunean, ume batek gurasoengandik jaso duen hizkuntzari edo hizkuntzei buruz ari gara. Euskal Herrian, azken hamar urteotan euskara nola transmititu den ezagutzeko, 2 eta 9 urte bitarteko seme-alabak dituzten inkestatuak hartu ditugu kontuan.

Bikotekideen hizkuntza-gaitasunak erabat baldintzatzen du seme-alabei transmititzen zaien hizkuntza. EAEn eta Nafarroan, gurasoak elebidunak direnean seme-alaben %98tik gora euskara jasotzen dute etxean. Iparraldean ere ehuneko hori handia den arren, beste bi lurraldeetan baino 10 puntu txikiagoa da. Etxean euskara jaso duten gehienek (hamarretik zortzik baino gehiagok EAEn eta Nafarroan eta lautik hiruk Iparraldean) euskara bakarrik jaso dute, gainerakoek euskara erdararekin batera.

Bikotekideetako batek euskaraz ez dakienean, aldiz, seme-alaben %20k jaso du euskara bakarrik EAEn, %9,1ek Nafarroan eta %4,6k Iparraldean. Halere, bikote misto horietako seme-alaben artean, euskara eta erdara jaso dutenen ehuneko handia da EAEn eta Nafarroan (seme-alaben erdiak 10 eta 24 urtekoen artean eta hirutik bik 2 eta 9 urtekoen artean)

**Gaur egun, aita eta ama elebidunak direnean, euskararen transmisioa ia erabat ziurtatuta dago EAEn eta Nafarroan, eta oraindik galerak daude Iparraldean**

11. irudia. 2-9 urte bitarteko seme-alaben lehen hizkuntza gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera, herrialdeka. Euskal Herria, 2006 (%)



Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

### 3.5. HIZKUNTZA-BILAKAERA: EUSKARAREN IRABAZIAK ETA GALERAK

Irabazien hazkundera eta galeren ia desagertzea gazteen artean antzematen da bereziki, baita, neurri apalagoan bada ere, Iparraldeko gazteen artean ere

Lehen hizkuntza euskara edo euskara eta erdara izan duten gehienek (%85etik gora EAEn eta %75etik gora Nafarroan eta Iparraldean) euskara gorde dute eta elebidunak dira gaur egun. Elebidun horiek euskaldun zaharrak (lehen hizkuntza euskara izan dutenak) eta jatorrizko elebidunak (lehen hizkuntza euskara eta erdara izan dutenak) dira.

Halaber, bada lehen hizkuntza euskara izan arren, gaur egun elebiduna ez den lagun multzoa, hau da, euskara guztiz edo partez galdu dutenena (16 urte edo


gehiagoko biztanleen %3 inguru). Galera horren zati bat (erdia inguru EAEn eta Iparraldean eta herena pasatxo Nafarroan) galera partziala izan da, hau da, pertsona horiek euskaraz ondo hitz egin ez arren, ondo ulertzeko gai dira.


Aldi berean, baina, lehen hizkuntza erdara izan arren, euskara ikasi eta gaur egun elebidun diren 200.987 pertsona daude. Horiexek euskararen irabaziak dira.

Euskara irabazi dutenak, euskaldun berriak alegia, 178.000 lagun dira EAEn (16 urte edo gehiagoko biztanleriaren %10), 19.000 Nafarroan (16 urte edo gehiagoko biztanleriaren %4) eta 3.900 Iparraldean (16 urte edo gehiagoko biztanleriaren %2).


Adinaren arabera, alde esanguratsuak daude euskaldun berrien artean. Ehunekoa txikia da 50 urtetik gorakoan artean (%1,7 batez beste). Baina 50 urte baino gutxiago dituztenen artean, euskaldun berrien ehunekoa asko ari da hazten. Hazkundera EAEn gertatzen ari da bereziki.

**12. irudia.** Euskararen galerak eta irabaziak adinaren arabera, herrialdeka. Euskal Herria, 2006 (%)






**13. irudia.** Hizkuntza-bilakaeraren indizea adinaren arabera. Euskal Herria, 2006 (%)




Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritz, 2006.

**14. irudia.** Hizkuntza-bilakaeraren indizea adinaren arabera, herrialdeka. Euskal Herria, 2006 (%)



Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritz, 2006.



## 4. Euskararen erabilera


### 4.1. EUSKARAREN ERABILERAREN TIPOLOGIA

Euskarak gizartean oro har duen erabileraz jabetzeko, 2001ean indize bat eratu zuen Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Indize horri euskararen erabileraren tipologia izena jarri zitzaion. Euskararen erabilera neurtzeko tipologia honako eremu hauek ditu kontuan: etxea, lagunartea eta eremu formala. Eremu formala lau azpi-eremu hartzen ditu bere baitan: osasun- eta udal-zerbitzuak esparru publikoan, eta auzoko dendak eta finantza-entitateak (bankuak eta kutxak) esparru pribatuan.

Erabileraren tipologia inkesta soziolinguistikoak aztergai duen unibertso osoari, hau da, 16 urtetik gorako biztanleriari aplikatu zaio, 2.589.629 laguni hain zuzen.


Erabileraren tipologiaren arabera, Euskal Herriko biztanleen %15,3k euskara erdara beste (%5,4) edo gehiago (%9,9) erabiltzen du eguneroko jardunean, %9,8k euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago eta %74,9k ez du euskararik erabiltzen.

15. irudia. Euskararen erabilera. Euskal Herria, 2006 (%)



Erabilerari buruzko emaitzetan, baina, alde handiak daude lurralde batetik bestera. Izan ere, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak %18,6 dira EAEn, %10,3 Iparraldean eta %5,5 Nafarroan. Horiekin batera, euskara erdara baino gutxiago erabiltzen dutenen taldea esanguratsua da hiru lurraldeetan: %11 EAEn, %12,3 Iparraldean eta %4,1 Nafarroan.


16. irudia. Euskararen erabilera herrialdearen arabera. Euskal Herria, 2006 (%)



Azken 15 urteotako bilakaera aztertuz gero, euskararen erabilerak gora egin du apurka-apurka EAEn, bere horretan dago Nafarroan eta behera egin du Iparraldean. 1991n, EAeko biztanleen %15,3 eta Nafarroako %5,9 ziren euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen zutenak. Hiru puntu egin du gora euskararen erabilerak EAEn eta hiru hamarren behera Nafarroan. Iparraldean, 1996an biztanleen %13k erabiltzen zuten euskara frantsesa beste edo gehiago, gaur egun baino hiru puntu gehiago (%10,3).

Euskararen erabilerari buruzko datuak gune soziolinguistikoaren arabera aztertuz gero, aldeak lurraldeka baino nabarmen handiagoak direla konturatuko gara.

17. irudia. Euskal Herriko gune soziolinguistikoak, 2006



Euskaldunak %20 baino gutxiago diren guneetan, 1. gune soziolinguistikoan alegia, %2,0k baino ez du euskaraz erdaraz beste edo gehiago hitz egiten. Badago, halere, talde handi bat (%6,2) erdara baino gutxiago bada ere, euskara ere erabiltzen duena. Lehenengo gune soziolinguistikoan gehienak (%91,8), normala denez, erdara hutsean mintzatzen dira.


2. gune soziolinguistikoan (euskaldunak %20 eta %50 bitartean) ere erdara da gehien erabiltzen den hizkuntza: hiru lagunetik bi baino gehiago (%69,4k). Euskaraz erdaraz beste edo gehiago hitz egiten dutenak %13,7 dira, eta erdara baino gutxiago bada ere, euskara erabiltzen dutenak %16,8.



3. gune soziolinguistikoan (euskaldunak %50 eta %80 bitartean), biztanleen ia erdiak (%48,8k) euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du. Erdara baino gutxiago %14k erabiltzen du eta herenak baino gehiagok (%37,2k) ez du euskara erabiltzen.

4. gune soziolinguistikoan (>%80) hiru lagunetik bik (%67,9k) euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du eta %7,4k euskaraz egiten du, baina erdara baino gutxiago. Azkenik, laugarren guneko %11,2 erdara hutsean mintzatzen da.

18. irudia. Euskararen erabilera gune soziolinguistikoaren arabera. Euskal Herria, 2006 (%)



Oharra: zirkuluen tamaina gune bakoitzeko biztanleriaren arabera da.


Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

Hizkuntza berreskuratzeko prozesuan lan-munduak duen garrantzia ezin ahaztuta, euskarak lan-munduan duen presentziak euskararen erabileraren indizeari nola eragiten dion jakin nahi izan dugu. Horretarako, euskararen erabileraren tipologia laneko erabilerarekin osatu dugu.

Baina erabileraren tipologia osatu hori ezin zaio unibertso osoari aplikatu, lan egiten dutenei baizik. Hortaz, 16 urtetik gorako landunei buruz ari gara orainoan: 1.278.700 lagun, unibertso osoaren %49,4.

Datuei begiratzuz gero, laneko erabileraren eragina argia da indizean. Oro har, euskaraz erdaraz beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoa oso antzekoa bada ere (%15,3 lehenengo tipologia eta %15,1 bigarrean), lanean ari direnen artean gutxiago dira euskara erdara baino gehiago erabiltzen dutenak (%8,1 vs %9,9) eta gehiago, aldiz, euskara erdara beste hitz egiten dutenak (%7 vs %5,4). Aldi berean, nahikotxo gehiago dira erdara baino gutxiago bada ere, euskara erabiltzen dutenak (%12,1 vs %9,8) eta gutxiago erdara hutsean mintzatzen direnak (%72,7 vs %74,9).

19. irudia. Euskararen erabilera (lanean). Euskal Herria, 2006 (%)



Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

Euskal Herrirako azaldu berri diren joerak hiru lurraldeetan betetzen dira oro har. Salbuespen bakarra Iparraldean euskara frantsesa beste erabiltzen dutenen ehunekoan dago. Izan ere, laneko ehuneko txikiagoa da oraindik.


#### 4.2. EUSKARAREN ERABILERAREN TIPOLOGIA, ADINAREN ARABERA

EAEn eta Nafarroan gazteak eta zaharrak dira eguneroko jardunean euskara gehien erabiltzen dutenak. Iparraldean, aldiz, gazteek oso gutxi erabiltzen dute eta zaharrek ia EAEkoek beste

Adin-talde guztietan erabat nagusi da oraindik erdararen erabilera (batez beste %75). Halere, 35 urtetik beherako gazteen artean eta, bereziki, 25 urtetik beherako artean, erdararen erabilera behera egiten ari da argi eta garbi. Izan ere, 16 eta 24 urte arteko gazteen artean %65,4 mintzatzen da erdaraz bakarrik, hau da, batez bestekoa baino ia 10 puntu gutxiago.

Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekorik handiena 16 eta 24 urte arteko gazteek dute EAEn (%23,5ak) eta Nafarroan (%6,7ak). Iparraldean, aldiz, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen duten gehienak 65 urtetik gorakoak dira (%18,5).

20. irudia. Euskararen erabilera adinaren arabera, herrialdeka. Euskal Herria, 2006 (%)



## 5. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrerak


Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera eza-gutzeko, Euskal Herriko 16 urte edo gehiagoko biztanleek hainbat esparrutan euskara sustatzearen alde edo kontra erakutsi duten iritziaren araberako tipologia eratu du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak.

EAEn 16 urte edo gehiagoko hiru lagunetik bi (%64,7) euskararen erabilera sustatzearen alde daude, Iparraldean %41,2 eta Nafarroan herena pasatxo (%37,7).

**Euskararen erabilera sustatzearen alde daude 16 urte edo gehiagoko biztanleen %64,7 EAEn, %41,2 Iparraldean eta %37,7 Nafarroan**

Bada, halaber, biztanle-multzo esanguratsua ez dagoena ez alde ez aurka (%41,1 Iparraldean, %28,1 Nafarroan eta %24 EAEn). Azkenik, euskara sustatzearen aurka daudenak %11,2 dira EAEn, %17,6 Iparraldean eta herena (%34,2) Nafarroan.

**21. irudia.** Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrerak herrialdearen arabera. Euskal Herria, 2006 (%)



Oharra: zirkuluen tamaina herrialde bakoitzeko biztanleriaren arabera da.

**Iturria:** IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza, 2006.

Euskararekiko jarrerak lotura handia du hizkuntza-gaitasunarekin. Izan ere, euskararen erabilera sustatzearen alde daude elebidunen %85etik gora EAEn eta Nafarroan eta %75 Iparraldean. Erdaldun elebazarren artean, aldiz, euskararen erabilera sustatzearen alde daudenak nabarmen gutxiago dira: %50 EAEn eta %28 Nafarroan eta Iparraldean.

Adinari dagokionez, 65 urtetik gorakoen artean euskararen erabilera sustatzearen alde daudenen ehunekoa handia da hiru lurraldeetan. EAEn eta Iparraldean, esaterako, gainerako adin-taldeetan baino handiagoa da. Adinak behera egin ahala, oro har, txikiagoa da euskararen erabilera sustatzearen alde daudenen ehunekoa. Halere, EAeko eta Nafarroako gazteenen artean joera-aldaketa antzematen da, eta ehunekoak gora egiten du. Iparraldean, aldiz, gazteenak dira aldeko ehunekorik txikiena dutenak.

EAEn, 16 urte edo gehiagoko biztanle gehienei ezinbestekoa irizten zaie hurrek euskara ikastea (%82ri) eta Administrazioan sartzeko euskaraz jakitea (%75i). Iparraldean ere horrela uste dute biztanle gehienek (%56 eta %51, hurrenez hurren). Nafarroan, erdia baino gehiago dira (%53) Administrazioan sartzeko euskaraz jakitea ezinbestekoa irizten zaienak. Askok dira komunikabideetan euskararen presentzia areagotu egin behar dela uste dutenak (%46) eta hurrek ezinbestez euskara ikasi behar dutela uste dutenak (%43).

Euskarari buruz dauden aurreiritzi batzuek gure gizartean zenbateraino dauden erroterik ezagutu nahian, inkestatuei iritzia eskatu zaie. Laburbilduz, emaitzak honakoak dira:

- Euskarak inoiz erdarak duen indarra izango duen galderari EAeko biztanleen %47k baietz erantzun du, baina Nafarroako biztanleen %53k eta Iparraldeko %48k ez du horrela uste. EAEn bertan ere, bada biztanleriaren zati handi bat (%33) ezetz uste duena, hau da, euskarak ez duela inoiz erdarak duen indarra izango.
- Hizkuntzaren aberastasunari dagokionez, EAeko biztanleen %52k, Iparraldeko %56k eta Nafarroako %43k uste dute euskara erdara bezain aberatsa dela, eta gutxi dira (%15 EAEn eta Nafarroan eta %4 Iparraldean) kontrakoa uste dutenak.
- Gizartean bi hizkuntza egoteak ez du arazorik sortzen EAeko biztanleen %77rentzat, Nafarroako %64rentzat eta Iparraldeko %82rentzat.
- Azkenik, biztanle gehienek uste dute ez dela txarra erdara ondo menperatu ez arren, haur txikiei eskolan euskara irakastea (%84k EAEn, %66k Nafarroan eta %74k Iparraldean).

**Euskal Herriko biztanle gehienek uste dute gizartean bi hizkuntza izateak ez duela arazorik sortzen**

Euskarari buruzko iritzietan ez dago alde esanguratsurik lurralde batetik bestera. Halere, esan daiteke oro har EAEn eta Iparraldean iritzia Nafarroan baino zertxobait baikorragoa dela euskararen aberastasunari, gizartean arazoan iturri ez izateari edo haur txikiei eskolan euskara irakasteari dagokionez. Hizkuntza-gaitasunaren arabera ere aldeak txikiak dira, baina elebidunen iritzia hartzaileena eta erdaldun elebarrarena baino baikorragoa da.

Alde nabarmenagoak adinaren arabera antzematen dira. Oro har, 35 urtetik behe-rakoen iritzia zaharragoena baino baikorragoa da euskararen aberastasunari, gizartean arazoan iturri ez izateari edo haur txikiei eskolan euskara irakasteari dagokionez.

Euskarari buruzko bestelako iritzi batzuekin jarraituz, seme-alabek ikasketak euskaraz egin ditzaten nahi dute EAEn 16 urtetik gorako biztanleen %63k, Nafarroako %31k eta Iparraldeko %12k. Iparraldean, biztanleen herenak baino gehiagok (%36k) irakaskuntza elebidunaren (euskaraz eta frantsesez) alde egiten du. Nafarroan ikasketak euskaraz egitearen aldekoak multzorik handiena badira ere, biztanleriaren laurdenak (%24k) erdara hutsezko eredu nahiko lukete seme-alabentzat.

## 6. Ondorioak





- Euskal Herriko biztanleriak azken 15 urteotan izan duen bilakaera aztertuz gero, badira bereziki azpimarratu beharreko bi ezaugarri: biztanleriaren zahartze-prozesua eta etorkinen eragina. EAEn eta Nafarroan, 1991 eta 2006 bitartean 65 urtetik gorako biztanleriak ia %50 egin du gora. Iparraldean igoera hori ez da hain handia izan, baina kontuan hartu behar da duela 15 urte zaharren proportzioa handia zela jada. Biztanleriaren jatorriari dagokionez, azken 15 urteotan atzeritik Euskal Herrira etorritako etorkinen hazkundera bereziki handia izan da EAEn eta, batez ere, Nafarroan. 1991 eta 2006 bitartean, EAeko atzerritarren ehunekoak biztanleen %2tik %5era igo da, eta Nafarroan %2tik %10era.
- Euskal Herriko biztanleen %25,7 elebiduna da, %15,4 elebidun hartzailea eta %58,9 erdaldun elebakarra. Halere, datuak irakurtzeko orduan, oso kontuan hartu behar da EAEk Euskal Herrian duen pisu demografikoa eta, horren arabera, emaitza nagusietan duen eragina. Hortaz, Euskal Herriko elebidunen ehunekorik eta kopururik handiena (%83,7 eta 557.600 pertsona, hurrenez hurren) EAEn bizi da. Nafarroako elebidunak Euskal Herriko elebidunen %8,5 dira (56.400 pertsona). Euskal Herriko elebidunen ehunekorik eta kopururik txikiena (%7,8 eta 51.800 hurrenez hurren) Iparraldean bizi da.
- Gaur egun 1991n baino 137.300 elebidun gehiago daude. Elebidunen hazkundera EAEn (138.400 gehiago) eta Nafarroan (16.200 gehiago) gertatu da, ez, ordea, Iparraldean (17.300 gutxiago).
- EAEn eta Nafarroan gazteen artean dago elebidunen ehunekorik handiena, Iparraldean, aldiz, zaharren artean. EAeko elebidunen hazkundera 50 urtetik beherako adin-talde guztietan gertatu da eta Nafarroan 35 urtetik beherakoen artean. Iparraldean, berriz, 65 urtetik gorakoen artean dago elebidunen ehunekorik handiena, eta adinak behera egin ahala behera egin du elebidunen ehunekoak. Halere, Iparraldeko gazteen artean joera-aldaketaren zantzuak gero eta argiagoak dira.
- Euskal Herriko 16 urtetik gorako elebidunen erdiak baino gehiagok (%58k) euskara izan dute lehen hizkuntza (euskaldun zaharrak dira), %11,8k euskara eta erdara (jatorrizko elebidunak) eta ia herenak (%30,2k) erdara. Azken horiek euskaldun berriak dira eta eskolan edo



euskaltegian ikasi dute euskara. EAEn eta Nafarroan, 16 urte edo gehiagoko elebidunen herena inguru dira eta gero eta pisu handiagoa hartzen ari dira. Iparraldean oraindik oso txikia da euskaldun berrien pisua. Izan ere, elebidunen %7,5 baino ez dira. Halere, kontuan hartu behar da duela hamar urte %3,9 zirela.

- Lehen hizkuntza erdara izan arren, euskara ikasi eta gaur egun elebidun diren 200.987 pertsona daude Euskal Herrian. Horiexek euskararen irabaziak dira. Euskara irabazi dutenak, euskaldun berriak alegia, 178.000 lagun dira EAEn (16 urte edo gehiagoko biztanleriaren %10), 19.000 Nafarroan (16 urte edo gehiagoko biztanleriaren %4) eta 3.900 Iparraldean (16 urte edo gehiagoko biztanleriaren %2).
- Halaber, bada lehen hizkuntza euskara izan arren, gaur egun elebiduna ez den lagun multzoa, hau da, euskara guztiz edo partez galdu dutenena (16 urte edo gehiagoko biztanleen %3 inguru). Galerak Iparraldean ari dira gertatzen nagusiki. Izan ere, EAEn ia ez dago galerarik gazteenen artean eta Nafarroan %0,2koa da 35 urtetik beherakoen artean.
- Elebidunak hiru multzotan banatu ditzakegu, euskaraz edo erdaraz hitz egiteko daukaten erraztasun handiagoaren edo txikiagoaren arabera: euskal elebidunak (%30,7), elebidun orekatuak (%30,3) eta erdal elebidunak (%38,9). EAEn eta Nafarroan, elebidunen multzorik handiena erdal elebidunena da. Ehunekoa, gainera, handiagoa da adinak behera egin ahala. Lehen hizkuntzari dagokionez, EAEn eta Nafarroan erdal elebidun gehienek erdara izan dute lehen hizkuntza, Iparraldean, aldiz, euskara.
- Gaur egun, 2 eta 9 urte bitarteko seme-alabak dituzten inkestatuak kontuan hartuz gero, aita eta ama elebidunak direnean, euskararen transmisioa ia erabat ziurtatuta dago EAEn eta Nafarroan, eta oraindik galerak daude Iparraldean. EAEn eta Nafarroan, gurasoak elebidunak direnean seme-alaben %98 baino gehiagok euskara jasotzen dute etxean. Iparraldean ere ehuneko hori handia den arren, beste bi lurraldeetan baino 10 puntu txikiagoa da.
- Erabilerari buruzko emaitzetan, alde handiak daude lurralde batetik bestera. Izan ere, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak %18,6 dira EAEn, %10,3 Iparraldean eta %5,5 Nafarroan. Azken 15 urteotako bilakaera aztertuz gero, euskararen erabilerak gora egin du apurka-apurka EAEn, bere horretan dago Nafarroan eta behera egin du Iparraldean.

- EAEn eta Nafarroan gazteak eta zaharrak dira eguneroko jardunean euskara gehien erabiltzen dutenak. Iparraldean, aldiz, gazteek oso gutxi erabiltzen dute eta zaharrek ia EAekoek beste.
- Euskararen erabilera sustatzearen alde daude 16 urte edo gehiagoko biztanleen %64,7 EAEn, %41,2 Iparraldean eta %37,7 Nafarroan.
- Euskararekiko jarrerak lotura handia du hizkuntza-gaitasunarekin. Izan ere, euskararen erabilera sustatzearen alde daude elebidunen %85etik gora EAEn eta Nafarroan eta %75 Iparraldean. Erdaldun elebakarren artean, aldiz, euskararen erabilera sustatzearen alde daudenak nabarmen gutxiago dira: %50 EAEn eta %28 Nafarroan eta Iparraldean.
- Adinari dagokionez, 65 urtetik gorakoen artean euskararen erabilera sustatzearen alde daudenen ehunekoa handia da hiru lurraldeetan, eta adinak behera egin ahala, oro har, txikiagoa da euskararen erabilera sustatzearen alde daudenen ehunekoa. Halere, EAeko eta Nafarroako gazteen artean joera-aldaketa antzematen da, eta ehunekoak gora egiten du. Iparraldean, aldiz, gazteenak dira aldeko ehunekorik txikiena dutenak.



## Fitxa teknikoa

### EAE

Euskal Autonomia Erkidegoan landa-lana Ikertalde enpresak egin du.

Datu-bilketa 2006ko ekain eta uztail bitartean egin da, telefono bidez eta galdetegi egituratua eta itxia erabiliz.

Lagina zehazteko, 16 urte edo gehiagoko biztanleak hartu dira kontuan. Guztira 3.600 inkesta egin dira, eta lurraldearen arabera honela banatu dira: 750 inkesta Araban, 1.510 inkesta Bizkaian eta 1.340 inkesta Gipuzkoan.

Lurralde bakoitzean, 16 urte edo gehiagoko biztanleriari proiektatu zaizkio emaitzak, 2001eko zentsu eguneratua oinarri hartuz. Gainera, lurralde bakoitzean, 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren banaketaren arabera haztatu dira emaitzak, sexua, adina eta euskaldunen zein ez euskaldunen banaketa kontuan hartuta.

Laginketa polietapikoa izan da eta inkestak egiteko etxebizitzaren aukeraketa geruzatua gune soziolinguistikoaren eta udalerriaren arabera.

Euskal Autonomia Erkidegoko lagin osoaren laginketa-errorea +%2,0koa da %95,5eko konfiantza-mailarako eta  $p=q=50$ . Konfiantza-maila bererako, lurraldekako laginketa-erroreak honako hauek dira:  $\pm 4,3$ koa Araban,  $\pm 3,0$ koa Bizkaian eta  $\pm 3,0$ koa Gipuzkoan.

### IPARRALDEA

Iparraldean landa-lana Siadeco enpresak egin du.

Informazio-bilketa 2006ko azaro eta 2007ko urtarril bitartean egin da, telefono bidez eta galdetegi egituratua eta itxia erabiliz.

Lagina zehazteko, 16 urte edo gehiagoko biztanleak hartu dira kontuan. Guztira 2.000 inkesta egin dira, eta eskualdearen arabera honela banatu dira: 750 inkesta BAMen, 750 Lapurdi barnealdean eta 500 inkesta Nafarroa Beherean eta Zuberoan.

Eskualde bakoitzean, 16 urte edo gehiagoko biztanleriari proiektatu zaizkio emaitzak, 1999ko zentsu eguneratua oinarri hartuz. Gainera, eskualde bakoitzean, 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren banaketaren arabera haztatu dira emaitzak, sexua eta adina kontuan hartuta.

Laginketa polietapikoa izan da eta inkestak egiteko etxebizitzaren aukeraketa geruzatua gune soziolinguistikoaren eta udalerraren arabera.

Iparraldeko lagin osoaren laginketa-errorea  $+2,3$ koa da  $\%95,5$ eko konfiantza-mailarako eta  $p=q=50$ . Konfiantza-maila bererako, zonaldekako laginketa-erroreak honako hauek dira:  $\pm 3,6$ koa BAMen,  $\pm 3,6$ koa Lapurdiko barnealdean eta  $\pm 4,5$ koa Nafarroa Beherean eta Zuberoan.

## NAFARROA

Nafarroako Foru Erkidegoan landa-lana Gizaker enpresak egin du.

Datu-bilketa 2006ko ekain eta uztail bitartean egin da, telefono bidez eta galdetegi egituratua eta itxia erabiliz.

Lagina zehazteko, 16 urte edo gehiagoko biztanleak hartu dira kontuan. Guztira 1.600 inkesta egin dira, eta eremuaren arabera honela banatu dira: 500 inkesta eremu euskalduneari, 753 inkesta eremu mistoan eta 347 inkesta eremu ez euskalduneari.

Eremu bakoitzean, 16 urte edo gehiagoko biztanleriari proiektatu zaizkio emaitzak, 2001eko zentsu eguneratua oinarri hartuz. Gainera, eremu bakoitzean, 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren banaketaren arabera haztatu dira emaitzak, sexua, adina eta euskaldunen zein ez euskaldunen banaketa kontuan hartuta.

Laginketa polietapikoa izan da eta inkestak egiteko etxebizitzaren aukeraketa geruzatua gune soziolinguistikoaren eta udalerraren arabera.

Nafarroako Foru Erkidegoko lagin osoaren laginketa-errorea  $+3,3$ koa da  $\%95,5$ eko konfiantza-mailarako eta  $p=q=50$ . Konfiantza-maila bererako, eremu-kako laginketa-erroreak honako hauek dira:  $\pm 5,0$ koa eremu euskalduneari,  $\pm 4,6$ koa eremu mistoan eta  $\pm 5,7$ koa eremu ez euskalduneari.

## EUSKAL HERRIA

Euskal Herriko lagin osoaren laginketa-errorea  $+1,6$ koa da  $\%95,5$ eko konfiantza-mailarako eta  $p=q=50$ . Konfiantza-maila bererako, euskaldunen laginketa-errorea  $\pm 2,0$ koa da eta ez euskaldunen  $\pm 2,6$ koa.

